

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2016-02-26
EGUBAKOITZA
674. ZENBAKIA
16. URTEA
DOAKOA
GOIENA.EUS
TOKIKOM

Arrasateko
pertika
jauzilariak
Euskadiko
Txapelketara | 24

"AHTko obren
berrikuspena"
eskatuko du
Aramaioko
Udalak | 3

324 neska-mutiko abesbatzen
topaketan bihar, zapatua | 28



El Drogas eta (Des) Memoria
Band Elgetan bihar, zapatua | 29



Bergarako abeslariak eta dantzariak
oholtza gainean aritzeko gertu | 27



ANTZUOLA-BERGARA, 2018RAKO

Bi udalerrien arteko ezponda konponduta dago | 2

Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak,
Elena Lete Bergarako alkatea eta enpresako
ordezkariak, obrak ikusten, eguaztenean.

IRATXE GONZALEZ



ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- Neurri handiak aldarrikatzeko ekimena Debagoianean
- Asier Hilario, Geologian doktoareari elkarrizketa

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

Gaixotasun arraroak ezagutarazi guran

Ikerketak egiten lagunduko lukeela uste dute | 5

Kilometroak
Txikia egingo
dute domekan | 13

DEBAGOIENA 2 | IRITZIA 7 |
HERRIAK 8 | KIROLA 24 | KULTURA 27
ZURE RAGARKIAK 30 | ZORION AGURRAK 31
TELEBISTA-IRRATIA 32 | EZKONTZAK 33 |
ESKELAK 33 | NON-ZER 34



**NISSAN NP300
NAVARA BERRIA**
ZURE ALDERDI GUZTIAK ESPLORATU



Ezagutu zehaztasunez Bezerren Promesa Cliente programa haren nissan.es/promesacliente edo kontzesionarioen gure sare ofizialean.

ARABAUTO

Gamarrako Atea, 46 A-B - 01013 Gasteiz, Araba - Tel. 945 262 501 - <http://red.nissan.es/arabauto>

Kontsumo mistoa: 6,4-7,6 l/100 km. CO₂ emisioak: 169-201 g/km.

Fabrikatzailearen 5 urteko bermea, 160.000 km-tara mugatuta, lehenengo gertatzen dena, ibilgailu komertzialen gamarako (NP300 Navara, NV200, NV400, NT400 Cabstar eta NT500).

SINADURAK

Asmakizun bat | 6
MAIDER AZKARRAGA-URIZAR

Oraindik ere pentsatu beharra | 6
UBANE MADERA

Ebakia izotzarekin | 11
ANE ZUAZUBIZKAR

Joxe Arregi: gogoan zaitugu | 15
ANDRES OSA 'SAKONA'

Iruzurra eta diru beltza | 17
JOSE LUIS MADINAGOTIA

Android | 36
IDIA ETXEBERRIA

Antzuola-Bergara arteko zatia urte amaieran hasteko asmoa

Bukatu dituzte bi udalerrion artean jausitako ezponda konpontzeko lanak

A. T. / U. M. | DEBAGOIENA

"Ezponda horren konponketa lehentasun nagusietako bat izan da legealdiaren lehen minututik. Obrak 2.194.313,75 euroko aurrekontua zuen eta aurreikusitako epearen eta aurrekontuaren barruan egin dira". Bide Azpiegiturako diputatu Aintzane Oiarbidek eguaztenezan Bergaran azpimarratu zuenez, Antzuola-Bergara zatian 2014ko uztailean jausitako ezponda konponduta egotea oso albiste ona da, errepidean

zegoen arriskua "erabat ekidin" dutelako. Helarazitako informazioaren arabera, obra horri 2015eko abuztu hasieran ekin zioten, eta, eroritako materiala kendu, ezponda berritoki egin eta apurtutako puntua eta ingurua egonkortu dituzte.

Urte amaieran lanak hasi

Behin hori eginda, Antzuola-Bergara zatia egiteko proiektuaren idazketarekin daudela azaldu zuen Bide Azpiegiturako dipu-

tatuak, eta iragarri zuen asmoa dela apiril amaierarako bukatuta egotea, eta, hartara, "uda partean lizitatzea eta lanak urte amaieran hastea" dela "Gipuzkoako Foru Aldundiaren asmoa". Lanek bi urte -24 hilabete- iraungo dute, aurreikuspenaren arabera. Eta 31-32 milioi euroko aurrekontua izango dute.

Komunikabideen aurrean egin zituen jakinarazpenok Oiarbidek. Harekin batera Bergaran izan ziren, besteak beste, Gipuzkoako



Makinak eta langileak obra gunean. | A. TXINTXURRETA

Foru Aldundiko ordezkariak, Markel Olano diputatu nagusia tarteko, Bergarako Elena Lete alkatearekin eta Antzuolako Beñardo Kortabarria alkatearekin batera.

Gipuzkoako biribilgunea

Hala, besteak beste, Olano diputatu nagusiak azpimarratu zuen "Antzuola-Bergararen proiektu hau oso urrats garrantzitsua" dela eskualdearendako "eta Gipuzkoa osoarentzako, horrekin amaitzen delako Gipuzkoako biribilgunea; Gipuzkoa eta bere bailara guztiak lotzen dituen ahalmen handiko errepide sarea bukatzen delako".

Horren harira, Aintzane Oiarbidek azpimarratu zuen ezpondaren konponketarekin batera Gipuzkoako biribilgunea dela legealdiko proiektu estrategikotako bat Foru Aldundiarentzat. "Zati hori amaitzen dugunean Gipuzkoako edozein herritik 15 kilometrorra, gehienez, gaitasun handiko errepide bat izango dugu" nabarmendu zuen hark. Eta Markel Olanok berretsi zuen espero dutela 2018 amaieran obra hori amaituta egotea.

DATUA

24

HILABETE

Behin lanak hasita, kalkulatzen dute 24 hilabetean bukatuko dituztela Antzuola eta Bergara arteko zatiari dagozkion obrak.

Trazatua aldatuta

Azken zati horri dagokionez, diputazioko ordezkariak jakinarazi zuten ezponda erori zenean, gune horretan trazatua aldatu behar zela aurkitu zela diputazioa, hirugarren adarra egingo zen lekua luiziak hartu zuelako. Eta azpimarratu zuten proiektuan "hobekuntza nabarmenak" egon direla. "AP-1erainoko lotura bikoiztea posible izatea bilatu dugu". (...) Irtenbideak autobia baten ezaugarriak eduki behar ditu eta noski, ekonomikoki lehiakorra izan behar du. Idazten ari garen proiektu horretan, GI-632 errepideak hobetzen da ere: bihurtuak leunduz eta segurtasuna handituz".

"Debagoieneko eredu" aldarrikatu eta zabortegirik nahi ez duen plataforma eratu dute

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

26 lagun batu eta *Debagoienako eredu, Zabortegirik Ez!* plataforma eratu dute oraingo astean Arrasaten. "Lehentasunak finkatu, bilera egunak eta lekua, gure arteko harremana ziurtatzeko hainbat bitarteko" martxan jarri, eta jakinarazi dute, besteak beste, martitzenean, martxoaren 1ean aurkeztuko dutela plataforma, 18:30ean, Arrasateko Kulturategiaren areto nagusian.

"Debagoienako eredu dela sinisten dugu. Hemen %78 gaika biltzen

badugu, edozein lekutan egin daiteke, eta, gainera, lehen hilabetetik aurrera. Borondate politikoa behar da, hori besterik ez! Debagoieneko emaitza Gipuzkoa osora hedatuz gero, errauste planta eta zabortegi kutsakorrek ekidin ditzakegu...".

Aldarrikapen hori oinarri, eratu berri den plataforman parte hartzeko gonbita egin dute. "Plataforma irekia da, edozein etor daiteke lanera edo informatzera, ateak erabat irekita daude eta plataforma anitza izatea gustatuko litzaiguke", azpimarratu dute.

Erabakitze eskubidearen gaineko "herri kontsultaren data eta galdera" argituko dituzte bihar Arrasaten

Erain Debagoiena izenarekin, bihar, zapatua, Arrasaten aurkeztuko dute "gizarte honi dagokion erabakitze eskubidea bultzatu eta gauzatzeko eraturako elkarte eta ekimena". 12:00etarako egin dute aurkezpenerako deia, Kulturategiaren aretoan. Eta iragarri dute "ekimenarekin bat egin duten eskualdeko udalerririk guztietako hainbat pertsona aipagarri" izango dela aurkezpenean. "Egitasmoa eta haren oinarriak aurkezteaz gain, jarduketaren egutegia azaldu eta herri kontsultaren data eta galdera argituko dira".

PREST

GURE IKASLEEN AHOTAN

"Gauza berriak ikasteko proiektuen metodologia da onena"

JOANES PLAZAOLA MADINABEITIA bergarra Informatikako Ingeniaritza eta Telekomunikazio Sistemen Ingeniaritza gradu bikoitza egiten ari da MONDRAGON UNIBERTSITATEAN.

Zergatik aukeratu zenuen Gradu bikoitza? Eta zergatik MONDRAGON UNIBERTSITATEA?

Betidanik gustatu izan zaizkit teknologia berriak, baita informatikaren mundu hori ere, beraz, informatika egiteko hautua nahiko argi neukan; non egitea, ordea, ez hain argi. Behin MUKO orientazio hitzaldi batean gradu bikoitza aipatu zuten, aurretik ezagutzen ez nuen. Oso interesgarria iruditu zitzaidan, eta pausua ematea erabaki nuen.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Esperientzia positibotzat daukat orain arte bizitakoa, irakasleekin gertutasun handia dagoen ikastola batetik dator, eta hasi aurretik baneukan gertutasun hori mantenduko zenaren duda, baina arlo horretan sorpresa ona hartu dut. Horretaz gain, gustuko dutzun hori ikasten egoteak, klaseko giroak eta proiektuen garapenak zerikusi handia izan dute orain arteko esperientzia positibo honetan.

Nola definituko zenuke Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia? Alde praktikoari garrantzi asko ematen zaio?

Batez ere praktikoa dela esatea zuzena litzateke, bai. Nahiz eta urtean zehar azterketa dezente eduki, sei-hilabete bakoitzean jasotzen dugun teoria, ondoren egiten dugun proiektuan aplikatu behar izaten dugu. Beraz, urtean zehar ikasitako kontzeptuak errazago barneratzen ditugu.

MUtik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta zerbait hobetzeko?

Gehien gustatzen zaidana proiektuen garapena izango litzateke, dudarik gabe, lehenago ikasitakoa barneratzeko eta gauza berriak ikasteko metodo eraginkorra delako, baina baita klase-kideen arteko harremana estutzen duelako ere.

Nahiz eta hobetzeko beti dagoen zerbait, kasu honetan uste dut zerbait hori hizkuntza politika dela. Unibertsitate euskaldun bat izanik, eredu eleanitza izatea garrantzitsua, eta era berean ezinbestekoa da, baina eleanitzasun hori ezin da simetrikoa izan, hau da, ezin zaie garrantzi bera eman euskarari, ingelesari eta gaztelaniari. Euskarak eduki behar duen papera protagonistarena izan behar da.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Etorkizuna hitzari beldur pixka bat diogu azkenaldi honetan gazteok, halere badugu asmorik. Nire kasuan Euskal Herrian bertan lan egitea gustatuko litzaidake, nire jakin-mina pizten duten proiekturen batean, hori bai, atzerriko esperientziaren bat izatea ere asko gustatuko litzaidake, bidaiatzea eta hizkuntzak ikastea oso gustuko baitituz.

"AHTko obren berrikuspenera" eskatu du Aramaio Udalak

- ▶ Lur-jausiaren arrazoiak eta irtenbidea aztertzen dabilta Adif-eko adituak
- ▶ Lugartegi baserriko bizilagunak etxetik kanpo egoten segitzen du

UBANE MADERA | ARAMAIO

"Asteburuko AHTko gertakaria oso larrizat jotzen du" Aramaio Udalak eta "ustez amaituta dauden obra batzuetan horrelakoak gertatzea salatzen du". Adif-i, AHTko obren arduraduna den erakundeari, eskatu dio, era berean, "lehenbailehen gertakari honen arriskuak ebaluatu eta neurriak hartzeko; "gertakari honek zuzenean eragiten dion baserriaren egoerari konponbidea emateko", baserriko jabeari "egoera argitu eta konpondu artean bere babesa eta laguntza" ematea, eta oro har, Abiadura Handiko Trenari dagozkion obren "berrikuspenera", "herritarren eta inguru-

ruen segurtasuna" bermatzea exijituz. "Gertakari hau, eta orain dela gutxi AHTko obren ondorioz jasan genuen bide nagusiaren urte eta pikuko itxiera gogoan izanda", egingo dizkiote eskaera horiek Adifi, atzo, eguena, Aramaio Udal Gobernuak osoko bilkurara eramandako mozio baten bitartez -ezustekorik ezean onartu egin den mozioaren bitartez, alegia-.

Zerbitzuak desbideratzen

Horrez gainera, Aramaio Udalak Lierni Altunak Goienari jakinarazi dio lur-jausia gertatutako esparruan argiteriarekin eta telefonia zerbitzuarekin lotutako

arketako azpiegiturak desbideratzen dihardutela. Argindar azpiegiturak desbideratzeaz, hain justu, Aramaio Udal arduratuko da, berak ematen du-eta zerbitzu hori udalerrian. "Bolinburuko auzotarrak argi barik geratzeko duten arriskua" saihesteko desbideratuko dituzte arketako azpiegiturak.

Pitzadurak ikusi, lurra jausi

Joan den bariku arratsaldean ohartu zen Aramaio Udalak auzoko Lugartegi baserriko bizilaguna AHTko euste-hormak eusten dituen bere lurretan pitzadurak zeudela. Udaleko arduradunak han izan ziren egoera



Lur-jausiak zapatuan utzitako argazkia. | JULEN IRIONDO

ikusten. Eta 23:00etan hasi zen lurra jausten. Lurrarekin batera, euste-hormako hormigoari eusten dioten hainbat pibote ere etorri ziren behera. Aramaio Udaleko arduradunak gain, Diputazioak eta Sustapen Ministerioak ere izan ziren lekuan, eta baita Ertzaintza eta suhiltzaileak ere. Gertatutakoaren aurrean, prebentzio neurri gisara ingurua zigitatu egin zuten, eta lekura ez gerturatzeko agindu zion Udalak herritarrei, zabalduko mezua baten bidez. Era berean, Lugartegi baserri bizi

den emakumea etxetik kanpo dago zapatuaz geroztik. Izan ere, lur-jausiarekin, euste-horma gaineko zelaia hondoratu egin zen apur bat zati batean, eta euste-hormatik jausitakoak trenbidea joango den plataformara iritsi ziren.

Astelehenaz geroztik gertatutakoa aztertzen eta arazoari irtenbiderik egokiena bilatzeko lur-jausia gertatu deneko gunean dira Adifeko adituak, geo-teknikariak eta beste. Era berean, zapatuaz geroztik 24 orduan zaindaria jarri dute bertan.



Artzain berriak artzain-makilarekin, eguaztenean. | MIREIA BIKUÑA

Beste hamahiru artzain eman ditu Gomiztegiko Artzain Eskolak

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Arantzazuko Gomiztegiko Eskolako hamahiru ikasle jaso dute artzain makila eta diploma oraingo astean: bederatzi gizon eta lau emakumezkoak, hain justu ere. XIX. ikasturtearen amaiera ekitaldian "lehen sektorea gaztetzearren beharraz" egin zuten berba, besteak beste.

Artzain berriei makila eta diploma emateaz batera, bi omenaldi xume egin dituzte. Batetik, Artzain Eskolako ikasle izanda-

ko eta artzainak praktikan hartzen dituzten Jose Ramon Martinez eta Lourdes Menoyo omenatu dituzte. Bestetik, Artzain Eskolako bultzatzaile izandako Jose Maria Zeberiori eskerrak eman zizkioten. Eta Nikolas Segurrolak gogoan izan zituen Ramon Ugarte eta Gurutz Jausoro. "Eskolaren alde egindako lanarengatik eta babesarengatik. Omenaldia jaso barik joan zaizkigu. Zaudeten lekuan zaudetela, eskerririk beroena bioi", esan zuen.

Lekukoak behar dira joan den egubakoitzean Arrasaten izandako harrapaketa argitzen laguntzeko

Barikuan 21:30ean gertatu zen harrapaketa, Garagartza auzoko oinezkoen pasabidean. Lur orotako ibilgailu batek 37 eta 38 urteko bi emakume jo zituen eta gidariak ihesari eman zion. Bi emakumeak Mendaroko ospitalera eraman zituzten. Bada, harrapaketa argitzeko lekuko bila dabil Ertzaintza. Norbaitek laguntzeko modurik balu, deitu: 943 53 47 20. Harrapaketa egin zuen ibilgailua ustez hori edo urre koloreko Mercedes ML berri bat da.

"Merkataritza-gune handirik ezin da ipini, zehazten diren erabilerak aldatu gabe"

U.M. | ARRASATE

Arrasateko Zabaleta eremuko plan berezia garatzeko Arrasateko Udalak Txomintxu promotorearengandik jasotako eskaeraren bultantza GOIENA paperean argitaratutako artikulua dela-eta, 2007-2011 agintaldian Arrasateko udal taldeak honako idatzi hau bidali du.

"Otsailaren 12an GOIENA paperean kaleratu zen eta Interneteko atarian ikusgai dagoen *Arrasate sarreran supermerkatu berria erakitzeke asmoa, ate-joka* berriaren gainean zuzenketa eta ekarpen bana egin nahi genituzke ohar honen bitartez. Aipatutako berri horretan, Maria Ubarretxenaren hitzetan, honako hau adierazten da: 'Plan Berezi horretan esaten da Zabaleta eremuan ze jarduera jar daitekeen eta ze jarduera ezin daitekeen jarri. Eta momentu honetan Zabaletan jar daitekeen jarduera bakarra da komertzioarekin eta elikadurarekin zerikusia daukan jarduera'.

Gaur egun indarrean dagoen Arrasateko Udaleko Egitamu Orokorrean Zabaleta esparrua 104 EU gune moduan agertzen da eta honek dio -ondoko taulan-.

Hau kontuan izanik, ezin da ondorioztatu *supermerkatuak direla erabilera bakarrenetako bat*, aurkakoa adierazten baita. Are gehiago, merkataritza-gune handirik ezin da ipini gaur egun zehazten diren erabilerak aldatu gabe.

Antolaketa eta erabilera hau 2007-2011 legealdian zehaztu zen, Txomintxu promotorearen eta Ibai Arte Arrasateko merkataritza elkarreko ordezkarien artean adostu, Udaleko alderdi politiko guztiek

aho batez onartu (EAJ, EA, PSOE, Ezker Batua -gero Alternatiba-/ Zutik, PP, eta ANV) eta Hirigintza Aholku Batzordeak bere oniritzia eman ostean. Behin betiko onarpena 2011ko apirilaren 7an gauzatu zen. Aipatzekoa da aholku batzorde horretan, gaur egun hirigintza zinegotzi Ibon Arrupek parte hartzen zuela EAJren ordezkari bezala. Gauzak honela, GOIENAN publikatutako informazioak eta hau adierazten duten protagonisten artean bera agertzeak harridura sortu digu.

Bukatzeko, ekarpen bat egin nahi genuke. Bakoitzak jakingo du nola izendatu, irudikatu edota ulertzen duen udaletik egiten den lana, baina gure ustez legealdiak ez dira pertsona konkretu batenak, eta zentzu horretan, 2007-2011ko legealdia ez zen Ino Galparsororen legealdia izan. EAE-ANVko zazpi hautesiek Ezker Batua/Zutik-eko hiru zinegotziekin osatu zuten udal gobernua lehen urtean, eta azken hiru urteetan EAE-ANVko zazpi hautesiek gutxiengo nabarmenean".

EGITAMU OROKORRA

III. HIRIGINTZA HELBURUAK:

- Jarduera ekonomikoetarako lurzoru beharrei erantzuteko moduko esparrua sortzea
- Hirigunean ezartzeko korapilatsua diren merkataritza eta aisia jarduerendako kokalekuak eskaintzea, erabilerak eta azalera mugatuz.
- Ereua honetan 'trenbide zahararen' ibilbide ez motorizatuaren luzapena

IV. HIRIGINTZA ERREGIMEN XEHATUA

LURZORUAREN ERABILERA XEHATUA:

- ▶ Erabilera nagusia: industria jarduera ekonomiko arrunta.
- ▶ Industria jarduera ekonomiko mistoa.
- ▶ Erabilera erregimena: 48. eta 49. artikulua.

BAIMENDUTAKO ERABILERAK:

- ▶ Bizitegi erabilera landa eraikina (40. artikulua).
- ▶ Ekipamendu orokorra.

- ▶ Beste erabilera batzuk, guztira 5.000 m²-ko azalera gainditu gabe

Ostalaritza, goi mailako sukaldaritza.

Hotela.

Gimnasioa, sauna, eta abar.

Diskoteka eta dantzalekuak.

120 m²-tik beherako lokalak, onartutako jarduerentzat. Adibidez, zerbitzu hauek: kutxazain automatikoak, prentsa eta aldizkariak, fotokopia dendak eta antzekoak, farmaziak eta parafarmaziak, produktu naturalak saltzeko edo animaliekin eta osagarriekin zerikusia duten dendak.

DEBEKATUTAKO ERABILERAK:

▶ Industria astunak.

▶ Merkataritza-gune handiak.

▶ Pertsonentzako eta etxerako ekipamenduen zerikusia duten jarduerak komertzialak.

▶ Aisiari lotutako erabilerak, oro har: bolatokiak, makina zibernetikoak dituzten joko aretoak, billarrek eta antzekoak, haurrentzako jolas eremuak, haur parkeak, eta abar.



Itxura hori izango du supermerkatuak, Eroskik egindako irudiaren arabera. | EROSKI

Supermerkatua egin asmo du Eroskik Azbeko lurretan

Aretxabaletako Udalarekin tratuan dago asmoak zehaztu eta lanak egiteko

LEIRE KORTABARRIA | ARETXABALETA
Aretxabaletako Mitarte kalean, Azbe enpresaren pabiloien lekuan, supermerkatua eraikiko duela jakinarazi du Eroskik, eta 2 milioi inbertituko dituela horretarako. Salmentako guneak 1.500 metro koadroko hedadura izango du; 80 aparkaleku ere izango ditu ondoan, eta 35 langilek jardungo dute establezimendu berrian. Eroskiko promotore Mikel Labaienek honako hau esan du: "Lekuaren hiri-berroneratzera lagunduko du eta bertako ekonomiaren motor lana egingo du".

Honako iragarpena bat dator Eroskiren plan estrategikoan markatutako ildoekin.

Ingurumen inpaktu txikia

Supermerkatua 2012ko abenduan Oñatin inauguratu zuenaren antzekoa izango da. Honela azaltzen du Eroskik: "Eraikuntza eko-sostengarriko azken aldiko berrikuntza teknologikoak izango ditu. Horrela, eraikina energia aldetik eraginkorra izango da eta bertako jarduerak dakarren ingurumen inpaktua txikiagoa izango da". Hotz, giroitze eta argizta-

pen sistema eraginkorrak izango ditu dendak, ahalik eta energia gehien aurrezteko.

Bezeroarenganako lotura

Negozio eredu aldetik, supermerkatu berria Eroski Taldea bultzatzen dabilen Contigo/Zurekin ereduakoa izango da. Eroskiko promotore Mikel Labaienek honela azaldu du talde kooperatiboak hartu duen erabakia: "Eroskiren helburu nagusiak dira bezeroarenganako lotura eta sare komertziala berritzea, supermerkatu berriak irekiz, besteak beste".

Tramiteak egin behar dira

Udalarekin tratuan dago Eroski. Udaleko Hirigintza arduradunek azaldu dutenez, Eroskik denda irekitzeko eman duen data-2017ko lehenengo hiruhilekoa- ez betetzeko aukera handia dago, izan ere, tramite "luzeak" egin behar dira lehenengo: Azbe dagoen lurra lur industrial da, eta arau subsidiarioak aldatu egin behar dira eta lur tertziario kalifikazioa eman. Horrez gain, aparkalekuak egiteko erabili nahi den lurra eta lantegiaren lurra bi eremu edo zatitan daude, eta horrek ere aldaketa batzuk eskatzen ditu; eta aparkalekurako izango litzatekeen lurra norbanako batena da. Foru Aldundiari ere bidali behar zaio dokumentazioa. Dena dela, Udalak Eroskiren asmoa "ondo" ikusten du: "Gainbehera etorriko litzatekeen pabiloi baten ordez, eta herri erdian dagoen industria baten ordez, supermerkatu eta aparkaleku bat egongo lirake".

Bost hiriburutako alkateek mahai-ingurua egingo dute

Huhez in izango da topaketa historiko hori, eta entzule gisa joateko izen ematea zabalik dago

L.K. | ESKORIATZA
Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Euskara Batzordeak Euskal Herriko hiriburuetako bost alkate- Juan Mari Aburto, Bilboko; Joseba Asiron, Iruñeko; Michel Etchebest, Maulekoa; Eneko Goia, Donostiako; eta Gorka Urtaran, Gasteizkoa- batuko ditu *Euskal Herriko hiriburuetako alkateak. Euskararekiko harremana eta etorkizuneko erronkak* izeneko mahai-inguruan. Antolatzaileen hitzetan, topaketa historikoa da, izan ere, 50 urtean lehenengo aldiz, Hego Euskal Herriko lau hiriburuetako eta Iparraldeko hiriburu bateko alkateak euskal hiztunak dira. Martxoaren 10ean izango da, 17:00etan.

Entzule gisa joateko izenemate epeak zabalik jarraitzen du lekua bete arte. Izena emateko, 943 71 41 57 telefonora deitu edo harrera.huzezi@mondragon.edu helbide elektronikora mezua bidali behar da. Moderatzailea Huheziko irakasle Nekane Goikoetxea izango da.

Norberaren bizipenak

Honela azaltzen ditu Euskara batzordekide Asier Irizarrek ekitaldiaren helburuak: "Mahai inguruak bi alderdi izango ditu: batetik, euretako bakoitzak kontatuko dizkigu euskararekin izan dituen bizipenak. Bestalde, alkate edo auzapez diren erakundeetan dauzkaten erronken inguruan ere arituko gara".



LAB, presoen eta iheslarien alde

LAB sindikatuko hainbat kidek euskal presoen eta iheslarien aldeko kale-bilkura egin zuten eguenean, hilak 25, Eskoriatzan. Hain zuzen, Fagor Ederlanen ondoko biribilgunean elkartu ziren eguerdian, haien etxeratzea eskatzen zuten pankartekin. LABek hilero euskal presoen eta iheslarien eskubideen alde egiten dituen bilkuretako bat da hori.

Fagor Taldeak estatutu sozialak aldatuko ditu

L.K. | DEBAGOIENA

Fagor Taldea osatzen duten zazpi kooperatibetako- Copreci, Fagor Arrasate, Fagor Automation, Fagor Ederlan, Fagor Elektronika, Fagor Industrial eta Mondragon Assembly- ia 9.000 bazkideek erreferendum bidez erabakiko dute estatutu eta erregelamendu sozialak aldatzearen gainean. Martxoaren 4tik 12ra bitartean, Fagor Taldeko kooperatibek banaka bozkaturiko dute, eta boto guztiak martxoaren 17ko batzar orokor baten zenbatuko dira.

Kooperatibak birpentsatzeko programako bigarren fasea da honako hau. Barne-dokumentu batekin hasi zen programa, non aldaketak planteatzen zituen marko teoriko bat batzen zen. Estatutuak aldatzearekin bat, funtzionamenduko alderdi batzuk aldatuko dira. Hirugarren fasean, maiatzean hasita, arau zehatzak berrituko dituzte.

2010. urtean kooperatibetan hasi eta Fagor Etxetresnen krisiaren ondoren areagotu zen hausnarketa prozesu baten ondorioa da programa hori.

Erretiroek 266.000 lanpostu sortuko dituzte 10 urtean

Etorkizunean, lan aukerak honako aldeetatik etorriko dira: erretiratzen diren langileen ordezkapenetik; hurbileko zerbitzuetatik; eta emakumea profil teknikoetara hurbiltzetik, Laboral Kutxaren *Enpleguaren gaineko ikuspegi sektorialak euskal ekonomian* izeneko txostenaren arabera. Estimazioen arabera, langileen erretiroagatik hutsik geratzen diren lanpostuak 266.000 izango dira; hedapen-eskariarengatik etorriak, 36.000 besterik ez.

Aldundiak lagundutako 8 plaza izango ditu Atzegik Bergaran

Diputatuen Kontseiluak 18 milioi euro pasatzeko aurrekontua onartu du A Space, Atzegi, Gautena eta Fundación Goyeneche elkarteekiko hitzarmenak berritzeko. Plaza berriak sortuko dira, eta horietatik zortzi Atzegik Bergaran irekiko duen etxebizitzan izango dira.

Bestalde, 10.000 biztanletik beherako herrietan sexu berdintasuna bultzatzeko Berdindibidean Gipuzkoa programa aurkeztu dute Markel Olanok eta Miren Elgarrestak.

Muskulu-atrofia espinala duen bergararraren ama: "Gaitza zenbat eta ezagunago izan, hobeto"

Otsailaren 29aren bueltan, muskulu-atrofia espinalaren berri eman nahi dute Leire Martinek eta ama Anak; 10.000 umetik batek duenez, gaixotasun arraroa da eta, oraingoz, ez du sendabiderik

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Otsailaren 29a da Nazioarteko Gaixotasun Arraroen eguna, eta horretaz baliatuta, jendeak inoiz entzun ez dituen gaixotasun berri eman nahi dute aurten gaixoei eta euren familiek. Muskulu-atrofia Espinala da, gaixotasun genetiko neurodegeneratiboa, gaztelaniazko AME siglez ere deitzen dena. Jaiotzen diren 10.000 umetik batek edukitzen du. Debagoiengan badago kasu bat, Leire Martin Pineda 11 urteko bergararrarena.

Hego Euskal Herrian eta Espainian 1.500 familia ingururi eragiten die zuzenean AMEk. Gipuzkoan, beste neskato baten kasua

ren berri dute; Gasteizen, beste kasu bat; Bizkaian, banaka batzuk; eta Nafarroan, beste bi. Familia horietako gehienak, Leirerena bezala, Fundame fundazioan batzen dira. Leireren ama, Ana, Fundameko Euskadi eta Nafarroako ordezkaria da, eta argi dauka otsailaren 29aren bueltan helburua zein den: "AME zer den jakinarazi nahi dugu, izan ere, guk nahi duguna da sendabidea aurki dezaten, eta horretarako ikertu egin behar da; eta ikerketa gehiago egon daitezten, ezinbestekoa da gaixotasuna ahalik eta ezagunena izatea". Fundamek berak ez du beste eginkizunik, ikerkuntza finantzatzeko dirua batzea baino.

Mendekotasun handia

Muskulu-atrofia espinalak muga handiak ipintzen dizkie gaixoei. Hala, eguneroko gauza arruntak egiteko -bere burua garbitzeko, jantzeko, orrazteko...- laguntza handia behar du Leirek; eta mugitzea, gurpildun jesarlekua behar du. Etxean, gurasoak eta ahizpa Ane ditu Leirek ondoan; eskolan,



Leire Martin Pineda, ama Anarekin. | LEIRE KORTABARRIA

GAIXOTASUN ARRAROEN EGUNA

OTSAILAK 29

- European, 2.000tik gora pertsonatik batek dituenak dira.
- Otsaileko azken egunean da Nazioarteko Eguna.

lagunek ere laguntzen diotela esaten du. Eskolara joaten da egunero Leire Anarekin, eta, ondoren, pintura eta igeriketa egiten ditu. Leirek dio gustura joaten dela igerilekura, eta oso ondo doakio ariketa hori, izan ere, Ana Pinedak dioenez, gaixo horiendako dagoen tratamendu bakarra fisioterapia eta igeriketa da, atrofiak ahalik eta motelen egin dezaten aurrera. Ebakuntzak ere izaten dituzte, bizkarrezurraren okerdura zuzentzeko.

Gaixotasun arraroak ballaran

Oso jende gutxi dituen gaixotasunak batzen dira gaixotasun arraro izenpean. Debagoiengan badaude beste kasu batzuk: gaixotasun mitokondrial duen Iker Galan bergararra, akondroplasia duen Oihan Iturriotz aretxabaletarra, Duchenne-ren distrofia muskularra duen Hector Prieto aretxabaletarra edo fibrosi kistikoa duen Maren Urrutia gatzagarra.

ESANAK

"Ikerkuntzarako dirua batzea da gure fundazioaren zeregin bakarra"

ANA PINEDA | LEIREREN AMA

LEINTZ GATZAGA EZAGUTZERA NATOR!

SAIO BERRIA

GOIENA TELEBISTA

MARTXOAREN 3AN, EGUENA, 22:00ETAN

SAIOAREN EKOIZLEA:

m
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena



Asteon egin dute Emakume Martxaren aurkezpena. | JOKIN BEREZIARTUA

Aretxabaleta eta Eskoriatza arteko Lehen Emakume Martxa martxoaren 13an

Aresko Saskibalo Taldeak antolatu du hiru kilometro eta erdi inguru izango dituen proba: "Edonork egiteko moduko martxa izango da", nabarmendu dute

JOKIN BEREZIARTUA | DEBAGOIENA

"Martxa honekin aldarrikatu nahi duguna da emakumeek zein gizonen euren artean berdintasuna izan behar dutela, bai kirolean, eta baita bizitzako arlo guztietan ere". Lander Goikoetxea Aresko Saskibalo Taldeko koordinatzailearen arabera, aldarrikapen horren bueltan antolatu dute Aretxabaleta eta Eskoriatza arteko lehenengo Emakume Martxa, martxoaren 13an (datorren zapatuan) egingo dutena. Hiru kilometro eta erdi inguru izango du.

Hain justu, Martxoaren 8aren bueltan antolatu dute, eta Ares-

ko saskibalo taldearen ekimena izan da, emakumeen kirola sustatzen esperientzia luzea duen kirol elkarte. Saskibalo esparrutik harago joan dira oraingoan, emakumeen kirola klubetik kanpora atera gura izan dute eta.

Lasterketa barik, martxa

Martxoaren 13an Aretxabaleta-ko Herriko Plazatik abiatuko da Emakume Martxa, bertako emakume kirolari esanguratsu bati omenaldi xume bat egin ostean. Eskoriatzako Herriko Plazan izango du, berriz, helmuga eta bertan ere beste ema-

kume eskoriatzar bat omenduko dute. Goienak edizioaren itxierara arte itxaron du bi omendu horiek zeintzuk izango diren jakiteko, baina antolakuntzak ezin izan du zehaztu zeintzuk izango diren omendu horiek. Bestalde, ekimenaren aurkezpen prentsaurrekoan nabarmendu zuten, martxa izango da, eta ez lasterketa: "Edonork egiteko moduko martxa izango da". Ekimena antolatzeko, babesle pribatuz gainera, Aretxabaletako zein Eskoriatzako udalen babesa jaso dute, Berdintasun Sailetik.

Euskal Kulturgintzaren Transmisioan oinarritutako saioa berriro emisioan

GOIATZ ARANA | DEBAGOIENA

Goiena telebistak berriz emitituko ditu EKT saioak, Huheziko Euskal Kulturgintzaren Transmisioa aditu tituluaren bueltan ekoiztutakoak –eguenetan, 22:30ean–. Titulu horren bitartez, euskalgintzaren eta kulturgintzaren alorre egindako ekarpena azpimarratu dute ordezkariek, baita zabalkuntzan egindako lana eta elkarlanaren garrantzia ere.

Musikariek, sortzaileek, kazetariek, politikariek eta unibertsitate irakasleek parte hartu dute eta kultur sorkuntza, euskara, hegemonia eta beste izan dituzte gogoetarako iturri. 20-30 minutuko saioak osatu ditu Goie-

nak, oso arinak, baina mamidunak, eta mami horretatik norberak asko jaso dezake, Jon Berezibar egilearen hitzetan.

Jakintza biltzea, sortzea eta transmititzea izan dira tituluaren asmoak. Hasieratik egin dute zabal-kunde lan hori, baina Goienaren erreportajeekin beste dimentsio bat hartu du. 07-08 ikasturtetik EKTren ibilbide oparoa azpimarratu du Huheziko dekanok Begoña Pedrosak. Kontsolidatu den eskaintza dela esan eta azken edizioan Goienaren ekarpena azpimarratu du. Goienak eta MUK elkarlanerako duten marko orokorraren barruan kokatu ditu saioak Goienako zuzendari Iban Arantzabalek.



Arexolaleiba, Pedrosa, Arantzabal eta Berezibar Goienan. | MIRARI ALTUBE

Trikin parasittoa, txerrietan eta basurdeetan: partikularrendako gomendioak

KOMUNITATEA GOIENA | MIRIAM UGARTE
MIMAU ZENTROKO ALBAITARIA

Eskualdeko baserri askotan oraindik ere txerri-hilketen ohitura jarraitzen da, bai txorizoak egiteko edota etxean hazitako aberearen okela jan ahal izateko. Irailtik otsailera arte hainbat ehiztari kuadrillek basurdeak harrapatzen dituzte, kuadrillako kideen artean banatu eta jateko. Bien kasuan, haragi hauek ez dituzte hiltegi baten jasoko litzuketen osasun-kontrolak.

Etxekoan autokontsumorako okela denez, legediak ez du behar-tzen haragi hau analizatzera. Baina badago bereziki parasito bat oso kontuan izan beharko dena: trikina, hain zuzen.

Zer da trikina?

Parasito bat da; hesteetan hazi eta ugaltzen da. Larbak odolaren bidez giharretara heltzen dira eta kisteak sortzen dituzte.

Parasito honek trikinosi izeneko gaitza sortzen du. Gaixotasun hau nagusiki haragijaleetan azaltzen da, gordinik edo gutxi

Botiken berrordainketarako laguntzak eska daitezke

Eskaera egiteko, besteak beste, botiken erosketa-txartelak aurkeztu behar dira

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Jaurlaritzako Osasun Sailak epea zabaldu du Euskadiko Osasun Sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko 2015eko eta 2016ko laguntzak eskatzeko. Bestela esanda, botikak berrordaintzeko laguntzak eskatzeko epea zabaldu da.

Laguntza horiek 2015eko ekitaldian, abenduaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko epeari eta, 2016ko ekitaldian, urtarrilaren 1etik azaroaren 30era bitarteko epeari dagozkio. 7.140.000 euro bideratuko dituzte.

18.000 eurotik behera

Honako pertsona hauek eska ditzakete laguntzak: Gizarte Segurantzako pentsiodunek (eta onuradunak), baldin eta urtean 18.000 eurotik beherako diru-sarrerak badituzte eta Euskadiko osasun txartela badute. Langabezian egon (eta onuradunek) eta langabezia-prestaziorik eta diru sarrerak bermatzeko errentarik jasotzen ez dutenek. Horiek ere derrigorrezko dute osasun txartela izatea laguntzak eskatzeko. Eta, besteak beste, MUFACE –estatu funtzionario zibilen mutualitate orokorrak–, MUGEJU –mutualitate judizial orokorra– edo ISFASeko –indar armatuen institutu soziala– pentsiodunek (klase

pasiboetakoek) eta onuradunek ere eska ditzakete laguntzak, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoan errolatuta badaude eta 18.000 euro baino gutxiagoko sarrerak badituzte.

Epeak, berriz, honakoak dira: tramitazio erraztuaren kasuan, eskabide bakar bat aurkeztuz gero, abenduaren 10a bitartean, edozein unetan. Tramitazio erraztuak egin daitezke, baldin eta gastu guztiak Euskadin egindakoak badira. Aldiz, ohiko tramitazioari dagokionez, interesdunek gehienez bina eskabide aurkeztu ahal dituzte, horietako lehena 2016ko ekainaren 10a bitartean; eta bigarrena, 2016ko abenduaren 10a bitartean. Tramitazio ohikoa edo arrunta da, oro har, gastuak Euskaditik kanpora egin dituztenei zuzendutakoak.

Non eskatu

Hainbat bide daude laguntzak eskatzeko: anbulatorioetan edo osasun zentroetan Osakidetzaen web orrian: www.osakidetza.euskadi.eus; Osasun Sailak dituen lurralde ordezkaritzetan edo Jaurlaritzaren kanal elektronikoa baliatuta: www.osakidetza.euskadi.eus. Laguntzak onartzen dituen ebazpena argitaratu eta bi hileko epean ordainduko dituzte laguntza horiek.

egositako okela infektatua jateagatik; giharretan enkistatutako larbak, alegia.

Animalietan ez du sintomarik; gizakietan, ordea, gaixotasunak sintoma gabe edota sintoma arinetatik gaitz oso larria izatera gerta daiteke. Sintomak honako hauek izan daitezke: diarreak eta sabeleko mina sortzen ditu hasieran, eta okerrera joanez gero sukar altuak, giharretako mina edo karranpak, ahultasuna, buruko mina, aurpegiko edo betazaleko hantura...

Beraz, parasittoa ez dagoela egiaztatzea oso garrantzitsua da gure osasunerako, okela gutxi egosita jateko ohitura dugunontzat bereziki. Baita txorizoak gordinik jateko badira ere.

Gomendio bezala kontuan hartu daitezkeen gauza bat: haragia, gutxienez, minutu batez egosteak edota -25 gradutan 20 egunez izozteak arazoak edukitzea saihestuko digu, trikina hondatzen baitu.

Zertan aldatu da legea?

Haragian trikina dagoen edo ez jakiteko, batez ere bi metodo era-

biltzen dira: plakagatiko konpresioa eta digestio-metodoa.

Plakagatiko konpresioa orain arte klinika gehienetan egiten zena da, eta hemendik aurrera ezingo dena erabili. Okela zatiak kristalezko bi plakarekin zapaldu eta mikroskopioan begiratuta parasittoa identifikatzen datza.

Digestio-metodoak okelaren gainean urdailak egiten duen digestio-lana imitatzen du. Eta prozesu horren amaieran trikinak dauden edo ez ziurtatzea da albaitariaren lana.

Metodo honek lan egiteko modua aldatzen du; beraz, analisiak ez dira egunero egingo. Baita egun eta ordutegi finkoak egongo dira analisiak egiteko. Nork bere albaitariarengana jotzea eta ze moduko aldaketak egongo diren ziurtatzea gomendagarria izango litzateke.

Trikina dagoen aztertzeke ez du edozein okelak balio. Hartzen dena giharra izan beharko du; koipeak, gibela, ganglioak, azalak, birrikak, bihotzak, mingainaren puntak, eta abarrek ez dute balio.

ZABALIK



MAIDER AZKARRAGA-URIZAR
goiena.eus/komunitatea/

Asmakizun bat

Txori forma eman didate eta horrekin batera *egoak*. Euskaraz mintzatzen naiz edo helburu hori daukat, behintzat, gonbidapena egitekoa sikiera. Ondoan naukate jarria askok, baina gero erdaraz mintzo dira gehienak. Edonora begiratuta aurkituko nauzu...

Askori EITBko txoria naizela etorriko zitzaizuen burura. Izan zitekeen, elkarriketatzaila askok Euskal Irrati Telebista izena Radio Television Vasca bilakatzeko baitute euskaldunak erdaraz hizketan jartzeko. Ez zabiltzate urrun, jarria naukatenean artean antzeko jarrerak izaten baitira; baina ez naiz hori. Segi dezagun.

Papar gorria daukat eta publizitate zoragarria egin didate –publizitatea soilik–. Gabon garaian uste dut guztiok ikusi nauzuela *Eman hegoak euskarari* lelopean. Askok pin batean naramate –lorpen gisa akaso– eta beste askok, berriz, itsatsita naukate bulego sarreran –zurikerian–...

Jakin badakit batzuek ez duzuela nire beharrik euskaraz aritzeko. Baina badakit, ondo jakin ere, askok ardurak zuzitzeko naramazuela paparrean. Sortu nauten askoren ingurukoek barne. Unibertsitatea horren adibide. Pasa den astean EITBko nire txori lagunak esan zidan UPVko errektorea hizketan egon zela irratiari. Bai, UPVkoa, eta ez EHUkoa. Unibertsitatean euskararen aldeko apustua handia dela esanaz eta euskaraz ikasteko bermea dugula azalduz. Txio, txio...

Egon, ez dakit inon banagoen. Hegan egiterik ez duten txoriak ez daude inon. Ni jarri egin naute. Unibertsitatean, udaleko bulegoan...

Egoak eta kaiola, biak eman dizkidate sorreran. Aitortzeak min egin arren, badakit kalera begirako leihorik ez duen bulego batean sortu nautela. Hegaldi laburra dut hemendik aurrera. Beraz, hortxe utziko dut gaurkoa. Oraingoan bai? Badakizue nor naizen? Ez da zaila asmatzen... Begiratu ingurura. Zorte on.

USTEAK USTE

UBANE MADERA | umadera@goiena.eus

Oraindik ere pentsatu beharra

Jostailu arrosa eta morea. Umea dendan, ia bost urtekoa: "Ama, hau nahi dot; erosi neike?" –galdera, koloreengatik–. Ama: "Ummmm, bai, noski". Dendaria: "Aiba, ze polita aukeratu duzun, zeini oparitu behar diozu ba?". Umea isilik. Ama: "Berarendako da". Dendaria: "Aaaa...". Eta irribarretxo. Umea, asmatuko zenuten, mutikoa. Ama bera ere tentatuta umea beste zerbaitek erosteko konbentziarazteko. Badakizue, ondorengo ustezko *katxondeoa* umeari ebitatzearen. Baina mingainari eutsi, eta aurrera. Eta ondorengo *katxondeoa*? Bueno, ba uste baino txikiagoa. Irribarretxo batzuk besterik ez. Eta mutikoa pozik. Zalan-tza, beraz, helduarengan. Zergatik bi bider pentsatu behar hori?

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | goiena.eus/komunitatea/



HANDIK ETA HEMENDIK

Artizarrean, eguna luzeago urtea baino

Josu Garitaonandia
(Oparitu Zuhaitz Bat egitasmoaren arduraduna)
Bergara

Artizarra –edo Venus– gertuen daukagun planeta da; gauez, ilargiaren ondoren, distira handien egiten duena da; eta egunez, ikus daitekeen planeta bakarra da.

Suposa dezagun arazo larriak ditugula bizi izateko Lurrean, eta Artizarra joan beharra daukagula; Biblian aipatzen dena eguneratuz, *Noe*-ren batek itsasontziren bat egin beharrean espazio-ontziren bat egin beharko luke Lurra planetako bizitza hara eramateko.

Behin Artizarrean kokaturik, harrizko gintuena izango litzateke hango eguna luzeago dela (gure 243 egun dira) hango urtea baino (gure 225 egun); tira, moldatuko ginatete. Izan ere, askotan gertatzen zaigu egun batzuk luzeagoak egiten zaizkigula eta konturatu orduko urteak joaten zaizkigula.

Eguzkia ikusiko genuke mendebaldetik irteten eta

ekialdetik sartzen; justu, Lurra planetaren kontrara. Gizakiok aldrebeskeria asko ikustera ohituak gaude, eta horretara erraz moldatuko ginatete.

Airearen presioa handiagoa da Lurra planetan, itsaso barranean kilometro batera dagoena, hain zuzen; gizakiak asmatu ditu presio horiek jasateko urpeko-ontziak. Hortaz, gauza izango gara presio hori jasan dezaketen espazio-ontziak egiteko.

Hozberoarekin arazo gehiago izango genituzke Artizarrean: CO₂ asko dago, eta ez da jaisten 400 gradutik; eguzkitik gertuago dagoen Merkurio planeta baino beroagoa da. Baina ez dut uste gizakiok asmatu dugunik azido sulfurikozko hodeien artean ibil daitekeen tramankulurik; izan ere, hozbero handien ondorioz eraten diren laino arraroen artean azido sulfurikozko lainoak daude.

Artizarrean ez dago zuhaitzik eta Lurrean gero eta gutxiago daude; estimazio batzuen arabera, Gipuzkoako azaleraren halako 66 gutxitzen dira basoak mundu mailan, urtean. Joera ez badugu aldatzen, ondorengo belaunaldientzako arazo larria izango da. Ez dakit gauza izango diren Artizarra joateko, baina lagako diegun Lurra

Artizarrean antzerakoa izango da eta eguna oso luzea egingo zaie, bizirik irauteko izango dituzten arazo ondoz.

Mikel Olaberi

Susana Roa Bedia
(Kontseilu Errektorearen izenean)
Arrasate

Ausolan Taldeak bere bizitzaren 49 urteetan beti errespetatu izan du adierazpen askatasunaren eskubidea. Eta aurrerantzean ere horrela izango dela azpimarratu nahi dugu.

Idatzian aipatzen den gertakizunaren aurrean, gaizki ulertuak eragindako ekintza bakan bat izan zela argitu nahi dugu, eta, zentzu horretan, behar beste neurri hartu ditugula aurrerantzean horrelakorik gerta ez dadin.

Barkamena eskatzen diegu kaltetuak sentitu ahal izan direnei, ez baita gure egitekoa ezta asmoa ere inori kalterik eragitea; bai, ordea, gizartearekiko dugu konpromisoaz, gure ingurunea hobetzeko lan egitea, aktiboak izanez eta ekarpen ekonomikoak eginez, eta unibertsitate eta teknologia zentroekin elkarlanean osasuna eta kalitatezko elikadura bermatzea.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Altor Izagire

Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailtako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)


Maketazioa Imanol Soriano, Garbiñe Beitia.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Zieritza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.850 ale
Diffusioa: 18.507 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritza
diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

HERRIAK



Bizente Goikoetxearen irudia. | GOIENA



Goikoetxea jaiotzeko etxea, Aramaioko plazan. | GOIENA



Bizente Goikoetxearen estatua, lehengo tokian. | GOIENA

ARAMAIO

Konpositore handia omenduko dute

- ▶ Ehun urte beteko dira aurten Bizente Goikoetxea aramaioarra hil zela
- ▶ Musika sakratua konposatu zuen; Europa osoan izan zen ezaguna

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

Bizente Goikoetxea konpositorea hil zela 100 urte beteko dira aurten –1916ko apirilaren 9an hil zen, Valladoliden–. Urteurrena aprobetxatu gura dute Aramaioko musikagile handia gogora ekarri eta omentzeko.

Apirilaren 16an egingo dute mendeurrenaren inaugurazio ekitaldia. Bañera parkean dagoen estatuaren ondoan izango da inaugurazioa. Dantzariak aureskua dantzatzeko dute, bertsolariak Goikoetxearen bizitza bertotan abestuko dute eta Papargorri eta Bizente Goikoetxea abesbatzek emanaldia egingo dute. Inaugurazioan izango dira Udaleko ordezkariak, Diputazioko ordezkariak eta Goikoetxearen estatua egin zuen Lorenzo Askazibar elgetarra –1954an egin zuen–. Gainera, men-

deurrena aprobetxatuz, Foru Aldundiaren laguntzarekin estatua eraberrituko dute aurten.

CD bat grabatuko dute

Ekainean kontzertua eskainiko dute Koro Arabak –Aitor Saez de Kortazar zuzendaria– eta Grupo de Camara de Gasteiz abesbatzak –Sabin Salaberri aramaioarra da zuzendaria– Aramaioko parrokiaren. "Goikoetxearen obrak interpretatuko dituzte, eta grabatu egingo da CD bat argitaratzeko", azaldu du Aramaioko kultura zinegotzi Cristina Etxenagusiak.

Hurrengo ekitaldiak urrian izango dira. Mahai-ingurua egingo dute musika alorreko hainbat profesionalak eta Goikoetxearen bizitza eta lana ezagutzen duten hainbatek: Floren Unzueta, Sabin

Salaberri, Rafa Mendiakua eta Victor Mendiakua izango dira mahai-inguruan. Saioa gidatuko du Josemari Velez de Mendizabal aramaioarra.

Goikoetxearen lana, liburuan

Goikoetxearen bizitza eta lana jasotzen duen liburua idazten dabil Josemari Velez de Mendizabal. Bada, urrian, mahai-inguru-

ria egiten dutenean liburuaren aurkezpena ere egingo dute. "Liburua oso dibulgatzailea izango da, aramaioarrok eta Bizente Goikoetxea ezagutu gura dutenek hobeto ezagutu dezaten", azaldu du Velez de Mendizabalek.

Idazleak azaldu du Goikoetxea sakonago ezagutzeko balio izan diola lan horrek: "Goikoetxearen inguruko libururik ez dago egun;

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

"Bere izena Europa guztira iritsi zen"

Jose Mari Velez de Mendizabalek Goikoetxearen inguruko argibideak eman ditu.



GOIENA

Aramaioko seme ospetsuenetako bat da?

Hala da, aramaioar guztiok ezagutzen dugu izena eta denok dakigu musikaria izan zela. Beste gauza bat da ba ote daki gun ze egin zuen eta nolako garrantzia izan zuen. Garai batean eskaini zitzaion eskulturak lagundu du izena bizirik mantentzen.

Zer egin zuen?

Europako musika sakratua hantzez gora ipini zuen. Bizente Goikoetxeak Valladolideko kapera-maisu kargua eskuratu zuenean, eta katedralean aritu zenean musikari moduan, barnean zeraman grina bideratu zuen musika sakratua behar den bezala egitera. Horregatik, bere izena iritsi zen Europa guztira; hemen bezain ezaguna izan zen Europan. Gaur egun ere, kontzertu sakratuetan programatzen dira Goikoetxearen lanak. Azken 25 urteak oso oparoak izan zituen.

erreferentziak daude, aldizkari eta diskoetan, eta hura ezagutu zutenen testimonioak", gaineratu du.

Udazken Zikloa

Mendeurren ospakizunekin amaitzeko, azaroan organo kontzertua egingo dute Parrokiaren. Emanaldi hori Aldundiak egiten duen Udazken Zikloaren barruan izango da.

San Martin Eskolak ere bere aletxoan ipiniko du mendeurrenean. Apirilean ekitaldi bat egingo dute Goikoetxea gogora ekartzeko.

Aramaion bakarrik ez, Aramaiotik kanpora ere gogora ekarriko dute aurten Goikoetxearen lana. Erreterian, adibidez, maitezian egingo dituzten euskal musikagileen kontzertuetan Bizente Goikoetxearen obrak joko dituzte. Araba abesbatzak, Samaniego eta Gasteizko ganbara abesbatzak interpretatuko dituzte aramaioarraren lanak. Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren laguntza izango dute. Valladoliden ere hainbat ekitaldi egingo dituzte kapera maisua izan zena omentzeko.

Urteurrena antolatzeko lantaldea

Aramaioko Udalak lantalde bat jarri du martxan urteurrena antolatzeko. Cristina Etxenagusia Kultura-kirola batzordeburua, Rafael Bengoa EAJko zinegotzia, Sabin Salaberri, Jose Mari Velez de Mendizabal, Jose Luis Medina, Larratiz Arriolabengoa, Iban Pagaldai, Itxaso Aspiazu eta Lierni Altuna daude batzordean.

Ibai-Arteren Arrasate Txartel berria, "dinamikoagoa eta saritzaileagoa"

- ▶ Martxoaren 1etik aurrera, bezeroek erosketa bakoitzeko deskontu bat jasoko dute hurrengora begira
- ▶ Bestalde, Merkemerkaia egingo da bihar: 36 saltokik hartuko dute parte, 10:00etatik 20:00etara

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Ibai-Arte Merkataritza Elkarteak Arrasate Txartela ekimenean eman diren aldaketan berri eman zuen eguzten eguerdiko prentsaurrekoan. Txartelak urtebete egin aurretik eboluzionatu egin behar izan duela eman zuten aditzera, bezeroa fidelizatzeko modua aldatu egingo dela. Helburua da bezeroek zein denek irabaztea eta gaur egungo behar berrietara egokitzea "zaharkitua" geratu den sistema. Aurrerantzean, Ibai-Arteren puntuak desagertu egingo dira eta, haren ordean, Arrasate Txartela erabiltzen duten bezeroek erosketa bakoitzeko deskontu bat izango du saltoki berean egiten den hurrengo erosketarako. Sistema berriak arrakasta handia izan du Gipuzkoako beste zenbait herritan: Eibarren, Hernanin, Zarautzen eta Tolosan, besteak beste.

Txartelak, 4.000 erabiltzaile
Gaur egun 4.000 erabiltzaile inguru ditu Arrasate Txartelak eta



Eguazten eguerdian Kulturaten egin zuten prentsaurrekoa. | IRATI ELORTONDO

100 bat saltoki dira egitasmoan parte hartzen dutenak. Fidelizazio sistema berria martxoaren lehen jarriko dute martxan eta, diotenez, "dinamikoagoa eta saritzaileagoa" da: "Sistema berriarekin, bezeroak jasoko du onura gehien, saria lehenago jasoko du eta jasotako zenbatekoa ere han-

diagoa izango da". Bezeroak Arrasate Txartelarekin ordaintzen duen bakoitzean, erosketa-txartelaren amaieran *Zure hurrengo erosketarako deskontua...* mezua agertuko da. Gainera, deskontuaz gozatzeko bezeroak ez du erosketa-txartela eraman beharko; sistema informatikoa automa-

tikoki egingo du deskontua. Arrasate Txartelarekin ordaindutako bigarren erosketan, lehen erosketan lortutako zenbatekoa deskontatzen da eta hurrengo erosketarako deskontu berriro sortuko da deskontu berria. Eta horrela segidan.

Merkemerkaia bihar: 36 saltoki
Bestalde, bihar egingo da udazkeneko eta neguko stock-ari irteera emateko Merkemerkaia. 10:00etatik 20:00etara, etenik gabe, 36 saltokik kalera aterako dituzte euren produktuak, "oso prezio murriztuetan". Orlarte, Otalora, Garibai, Zarugalde, Erdiko kalea, Mondragones kalea eta Maiatzaren Lehena plaza hartuko ditu azokak eta azken edizioetako ohiturari eutsiz, kale animaziorik ez da faltako: Sanbamaña batu-kadak -11:00etatik 13:00etara- eta Erraldoi eta Kilikian Konpartsak -17:30etik 19:00etara- kalean zehar eta karpentan musika egongo da jarrita egun osoan zehar.



Oposizio taldeen eta zenbait eragileren arteko bilera, Herriko Plazan. | J.B.

Garbiketa ordenantza eragileekin batera lantzeko eskaera Udalari

J.B. | ARRASATE

Udal Gobernuak onartzekoa den garbiketa ordenantzaren aurka oposizio talde guztiek eta zenbait eragile bilera egin zuten eguztenez. Erabilgarri bat egin zuten joan den asteko prentsaurrekoan aurkeztuko idatzia erekin; Udalari eskatzen diote eztabaidan parte hartzea eta arautegia ez onartzea eztabaida hori eman arte. Gainera, "informazio zehatza" ere eskatzen dute.

Hasiera baten, martxoaren leku osoko bilkuran onartu behar zen ordenantza berria baina Udal Gobernuak atzeratu egin du bilkura: "Badirudi iritziz aldatu dutela, OZMA [Obrak, Zerbitzuak, Mantenua eta Auzoak] batzordetik atera

dutelako beste foro baten landu dadin. Espero dugu foro horrek eztabaida eragileei zabaltzeko aukera eskaintzea", adierazi du Baleikeko Igor Urizarrek. Foro horren lehen bilera atzo arratsaldean egin zuten.

Zentsuraren figura salatzen
Orain arte jarraitu den prozesuaren modua "desegokiak" izan direla adierazteaz gain, adierazpen askatasuna mugatzen duela uste dute eta ez dute onartzen modu prebentiboan ezartzea "zentsura" Arrasateko kaleetan. Izan ere, diotenez, arautegiak ez du zehazten nork erabakiko duen aldarrikapen batzuk onartzea eta beste batzuk zigortzea.

Udal zergak eta tasak indarrean sartuko dira

J.B. | ARRASATE

Aldian behin kobratzen diren tasak eta zergak ordaintzeko beharrezkoak diren errolden onarpenak gauzatu, horiek kobratzeari ekingo dio Udalak. Datoren hilabeteetan, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga, Jarduera Ekonomikoen Zerga, Ibilgailuen gaineko Zerga, zabor tasa eta ur tasa ordaindu beharko dituzte arrasatearrek. Ordainagiriak helbideratuta dituztenei zuzenean kobratuko zaie eta gainerakoek euren etxean jasoko dute errezibo ordainketak egin ditzaten.

Uraren tasa, ordaintzen lehena

Kobratuko den lehena uraren tasa izango da. Ordainagiria helbideratuta dutenei martxoaren 5ean kobratuko zaie eta ordainagiria helbideratuta ez dutenek apirilaren 7a baino lehen ordaindu beharko dute. Ondoren, zabor tasa kobratuko da, martxoaren 19an, ordainagiria helbideratuta dutenek zein ez dutenek. Amaitzeko, ibilgailuen gaineko zerga apirilaren lehen kobratuko da, ordainagiria helbideratuta izan edo ez. Argibide gehiagorako, BAZera jo (943 25 20 00).

Ordenagailuak, irakurgailu elektronikoak eta beste ostu dituzte asteen Kulturategiak

J.B. | ARRASATE

Martitzen gauean lapurretan egin zuten Kulturaten. Udalak prentsa ohar bidez aditzera eman duenez, "baliozko hainbat material" ostu zuten: bost ordenagailu, hiru irakurgailu elektronikiko, telefono mugikor bat... Ertzaintzak hainbat objektu eta material eraman ditu aztarnak jaso eta DNA probak egiteko.

Zigarro-puntuen arrastoa

Udalak ez ditu xehetasun gehiago eman, Ertzaintzaren ikerketa ahalik eta emankorra izan dadin, eta salaketa jarri du dagoneko. Hala ere, lapurrak *lanean* ari ziren bitartean barruan erretzen zuten zigarroak arrasto garrantzitsuak izango dira Ertzaintzaren erantzunaren ondoren, zigarro-puntuetako txistutik DNA atera dezakete eta.

NIRE USTEZ

ANE ZUAZUBISKAR



Ebakia izotzarekin

O hiko kafe-kideak bota dit epaia: "Uste dut gure belaunaldian guztiok izan garela apur bat anorexikoak". Apur bat. Haragiak husteko ahalginean guztiok aritu izan garela, alegia, hezur izatera heldu ez garen arren. Sabela korapilatatu dit ados egon beharrek.

Baina, buruarekin baietz. Josi izan ditugula ezpainak elkarrengana, egin diogula hozka mihiari, eta uko bazkalosteko gozoari. Eta lagunak baietz, baietz buruarekin. Aritu izan gara etxekoei gezur txikiak kontatzen, komunera bueltak noizbehinka, edo kirolzale izan garela goizetik gauerako tartean. Eta bestela, astean bitan sei kilometroko korrikaldiak egiten hasi garela, herri krosetan bat aitzaki hartuta.

Irentsarazi digute asetzeko sabela hutsik izan behar bat; eta guk, irentsi. Heste gorriraino irentsi ere. Pisua zama zaigu aspaldion, eta izterren bitarteko hutsunea obsesio. Pentsa nola atsekabetzen gaituzten gertuko "mejoratuta zaude"-ek; eta nola pozten aspaldi ikusi gabeen "nola argaldu zaren" bakoitzak.

Nahi nuke esaldi potoloren bat amaitzeko. Ukabila jaso, oihuz esan, eta sabeleko haragiei ez begiratzeko neurrikoa. Baina, buruarekin ezetz. Ez zait horrelakorik bururatu.

Ebakia azken tragoa eman, eta mendi bueltak utzitako izerdi lehorra garbitzeko asmotan etxeratu gara.

"Irentsarazi digute asetzeko sabela hutsik izan behar bat; guk, irentsi"

Herriko langabe bat kontratatuko du Udalak aldi baterako

Bide publikoen inbentarioa zehazten jarraitzeko teknikari bat behar du Udalak aldi baterako. Interesatuak Lanbiden izena emanda egon beharko dute eta eskaera BAZen egin dezakete (943 25 20 00). Eskaera egiteko azken eguna otsailaren 29a da. Argibide gehiagorako, Udalaren webgunera jo: www. arrasate.eus.

Lapurretak saihesteko aholkuak eman dizkie Udalak adineko pertsoneri

Iñaki Arriaga udaltzainburuak gidatu ditu aste honetan egindako bi saioak

IMANOL BELOKI | ARRASATE

Aste honetan, lapurretak eta iruzurrak saihesteko aholkuak eman dizkiete Arrasateko Udaleko ordezkariak adineko pertsoneri. Bi saio egin dira, Etxaluzen, martitzenean bat eta eguenean beste bat. Maria Ubarretxena Arrasateko alkatea eta Iñaki Arriaga Arrasateko udaltzainburua izan dira hitzaldietan, eta jende asko gerturatu da aholkuak entzutea.

Aurkezpena egiteko arrazoia izan da lapurretek eta iruzurrek urtarrilean gorakada izan dutela. Debagoiena Hego Euskal Herriko delinkuentzia maila txikiena duen eskualdea izan arren, hartu beharreko neurrien jakinaren gainean jartzea izan da egitasmoaren helburua. Maria Ubarretxena Arrasateko alkatearen esanetan: "Ez dugu alarma sozialik piztu nahi, batez ere, jendearen ohiturak aldatu nahi ditugu prebentzio gisa, eta herritarrek ohartarazi. Lehen, etxeko ateak irekita uzten genituen, baina, gaur egun, egoera aldatzen ari da..."

Bertan azaldu zuten moduan, hainbat dira adineko jendeari egiten dizkieten iruzur motak: besarkada solidarioa, banke-



Etxaluzen martitzenean egindako saioan aretoa beteta. | I.B

txetik atera berritan dirua lapurtzea, estanpatxoaren iruzurra, etxera doazen teknikari faltsuena, eta abar. Askotarikoak izan daitezke.

Balorazio positiboa

Bi saioetan beteta izan da Etxaluzeko aretoa, eta jendearen parte-hartzea handia izan da. Iñaki Arriaga udaltzainburuak gidatu ditu saioak, eta hauek amaitzean entzule ugari hurbildu dira berarengana galderak egitera. "Uste genuena baino jende gehiago hurbildu da. Mar-

titzeneko saioan, esaterako, jende asko eserleku barik geratu zen, eta zutik entzun behar izan zituen azalpenak. Jaso dugun feedbacka oso ona izan da, saioen amaieran galdera asko egitera etorri baitira entzule ugari Iñakirengana..."

Herritarrek ohartarazi

Adineko pertsonentzat izan dira saioak, baina herritar guztiak ohartarazi gura ditu Arrasateko Udalak. Adi ibiltzeko, eta prebentzio neurriak har ditzaten etxetik irtetera doazenean.



Kulturola proiektuaren gaineko lehen bileran. | ARRASATEKO UDALA

Kulturola egitasmoa: kudeaketa eredia jorratzeko bilera egin da

I.B | ARRASATE

Bagarak dinamizatutako kulturaren erreferentzia-gune izateko Kulturola proiektua lehen urratsak ematen ari da. Zerrajerako erlojuaren eraikina eta Aprendices kulturgune bihurtzeko ekimeneko lehen bilera urtarrilean izan zuten Arrasateko Udaleko ordezkariak, Bagarak eta herriko eragileek. Bertan, kultur eragileen beharrak zein diren jasotzeko eta guztiakin elkarlanean Arrasateko kulturaren egoerari buruzko diagnostia egin zuten.

Martitzenean, berriz, beste bilera bat egin zuten, kudeaketa eredia jorratzeko. Hala, kudeaketa eta koordinazio gaiak izan zituzten hizpide, eta hurrengo pausoak proiektuaren idazketa, proiektua bera kultur eragileekin partekatzea eta obren lehiaketa eta exekuzioa izango direla azaldu du Udalak.

Gardentasunaren bermatze aldera, kultur eragileekin bildu eta haiekin informazioa

partekatzeaz gain, herritarrei ere prozesuaren berri eman nahi die Arrasateko Udalak, Kulturola egitasmoaren baitan egiten diren urratsak jakinarazita. Ildo horretatik, udal ordezkariak datozen pausoak zeintzuk izango diren iragarri dute.

Hurrengo pausoak

Lehenik eta behin, proiektuaren idazketa egingo da; proiektua amaituta, kultur eragileekin partekatuko da; eta azkenik, proiektuaren obren lehiaketa egin eta obrei hasiera emango zaie.

Udalak berretsi du kultur eragileek prozesu guztian zehar modu aktiboan parte hartzea duela helburu; izan ere, Udalak estrategikotzat jo du proiektua, herrian zein bailaran garrantzitsua izango den kultur gune zehatza sortzeko eta kultur alorrean herritarrei zein kultur taldeei aukera berriak eskaintzeko.



Arrasatek
Jaengo
espetxera
bisitan

Aurreko zapatuan, otsailaren 20an, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzagatik Jaengo espetxera 70 lagun inguru joan ziren. Bertan, hainbat pankarta jarri zituzten, musikaz girotu zuten eguna, eta puxika batzuen bitartez presoaren etxeratzearen aldeko aldarriak aieratu zituzten.

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta
Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra
Kontxi Lazkano - Pedagogoa
Ion astigarraga - Psikologoa

Diagnostikoa - Orientazioa

Laguntza eskolarrak

Psikoterapia: umeak, gazteak eta helduak

Estimulazio goiztiarra

Arreta psikologikoa genero indarkerian

Logopedia

Ikasketa teknika eta ohiturak

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 295/13

Lore

LURRINDEGIA

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Musakolan eta San Andresen Ludoteka Ibiltaria; domeketan, berriz, familientzako planak Okendon

KOMUNITATEA GOIENA | LUDOTEKAK
TXATXILIPURDI | ARRASATE

Otsailaren bigarren asteburuan hasi ginen Ludoteka Ibiltariaz. Urtero bezala, Musakolan, gazte txoko parean elkartuta, 10:30etik 13:30era bitartean hainbat ekintza egin genituen haurrekin. Hurrengo hitzorduak otsailaren 27an eta martxoaren 5ean izango dira Musakolan. Bertara gerturatu eta denen artean zer egin adostuz, goiza primeran pasatze-

ko aukera izango dugu. San Andresen Ludoteka Ibiltaria egongo diren datak beste hauek izango dira: martxoaren 12an eta 19an eta apirilaren 9an eta 16an, Bedoñabe herri eskolako patioan elkartuta. Bestalde, *Domeketan!* egitasmoa jarriko dugu martxan. Lehenengo saioa otsailaren 28an izango da 17:00etatik 19:00etara: Okendoko ludotekan, euskaraz jolasteko eta gozatzeko aukera izango dugu.

Arrasateko Dragoiak Gasteizko 'Biribildu' torneoan izango dira

Txapelketa denboraldiko lehen torneoa izango dute domekan gimnastek

MAITE TXINTXURRETA | ARRASATE

Domeka honetan, otsailak 28, Arrasate Dragoi gimnasia taldeko hainbat kirolari Gasteizen izango dira lehiatzen. Izan ere, etzi, eguerdian, Biribildu torneoa izango dute, izen bereko gimnasia klubak antolatuta. Denboraldiko torneoak da Gasteizkoa, eta txapelketa horretan, Euskal Herriko eta Sorriako gimnastek hartuko dute parte.

Hala, Arrasateko gimnasia taldeko bederatzita neska aurkeztuko dira guztira. Arait Altuberen kasuan, bi modalitatetan hartuko du parte, gimnasia erritmikoko bakarkakoan, batetik, hirugarren nibelean, eta taldeko aerobikoan, bestetik, bere lau kideekin batera.

Txapelketa Gasteizko Argentina kalean kokatuta dagoen San Andres kiroldegian izango da, eguerdiko 12:30ean hasita.

Modalitateak

Bigarren nibelean, bakarkakoan, Uxue Azkue izango da arrasatearren ordezkaria. Nibel berean baina hirunaka, berriz, Izaskun Gartzia, Nahia Irazola eta Eider Lasanta arituko dira.

Bestalde, hirugarren nibelari dagokionez, Dragoi taldeko Arait Altubek hartuko du parte bakarkakoan.

Bukatzeke, aerodance modalitatean ere izango da sarrailagileen presentziarik; Maialen Gallardok, Maialen Diazek, Maite Olidenek, Arait Altubek eta Leire Ugartek osatutako taldea izango da, hain zuzen. Elena Lanuza da euren entrenatzailea.

Edurne Elkoroko Dragoi taldeko arduradunak aipatu du neskak "gogoz" daudela Gasteizko txapelketarako; izan ere, azkenengo txapelketa urrian izan zuten, Espainiako kopa, hain zuzen.

"Tarte honetan koreografiak gehiago lantzen ibili gara, eta gauzatuak aldatzen, hobetzeko asmoz", azaldu du Elkorok.

Erritmoa hartzeko

Hala, lau hilabetez lehiatu barik egon ostean, etziko izango da txapelketa denboraldiko lehen torneoa Arrasate Dragoi kideentzat. Horren ostean, Euskadiko txapelketa etorriko da apirilaren 9an, Arrasaten jokatu dutena, eta apirilaren 29tik maiatzaren 1era. Hitzordu garrantzitsuak dituzte aurretik, beraz, eta Elkorok azaldu du jada hasi direla horietara begira planifikazioa prestatzen.

Hori dela eta, domekan Gasteizen jokatu dutena bezalako torneoak "martxa hartzeko" ondo datozela iruditzen zaio Elkorori: "Horrelako torneoak oso ondo datoz, esate baterako, akatsak



Gasteizen arituko den erritmikoko hirukotea. | EDURNE ELKORO



Aerobiko taldeko boskotea. | EDURNE ELKORO

zuzentzeko. Horrelakoetan ez diogu garrantzi handien emaitzari ematen, baizik eta neskak erritmoa hartzen joateari, eta lehiaketarako urduritasun puntu hori ere poliki-poliki hartzen joateko".

Bestalde, nabarmendu du Gasteizen Soriatik etorritako gimnastak izango direla gonbidatu modura, eta "maila oso altua" daukatela. Horregatik, bestegandik ikasteko aukera polita ere badela uste du.

Donejakue bideko lehen etapa egingo dute domekan

M.T. | ARRASATE

Domeka honetan, otsailaren 28an, Besaide mendi taldekoek irteera egingo dute. Donejakue bideko bigarren etapa osatuko dute, Donostian hasi eta Zarautzeraino.

07:30ean aterako dira Gari-baiko autobus geltokitik. Ibilbidea hogeita kilometro ingurukoa da, eta gehienezko igoera, berriz, 363 metrokoa.

Ibilbidea gutxi gora-behera sei ordu eta hamar minutukoa izango da, hamaiketakorako geldiunea barne. Ibilbide motzagoa nahiago dutenak Orion erretiratu ahal izango dira. Kasu horretan, lau ordu eta erdi inguruko txangoa izango da.

Eguraldi txarrarekin (hala dago iragarrita), 17:00ak aldean egingo dute Arrasatera itzulerara. Ona eginez gero, 18:00etan.

Izena emateko sistema

Domekako irteerarako izen ematea dagoeneko itxita dagoen arren, sistema berri bat estreinatu dute asteon. Hala, Besaideren bulegoan irteera izango den asteko martitzenetan eta eguaztenetan apuntatu eta ordaindu ahal izateaz gain, ordainketa kutxazain automatiko bidez egiteko aukera ere izan da astelehenera eguaztenera bitartean. Sistema berri honekin, dirua ate azpitik sartzearena alboratuko dute.

ZALDIBAR

EMAITZAK (7. JARDUNALDIA)

Aldatz - Abokajarro	2-0
Elorra JMA - Rayo Makabro	4-2
Monte Taberna - Dribling	1-5
Lasagabaster - Betrayar	3-0
Olimpiakoijos FC - Sonografos	3-6

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Aldatz	22	7
2 Dribling	22	6
3 Monte Taberna	18	7
4 Lasagabaster	16	7
5 Sonografos	16	7
6 Abokajarro	12	6
7 Elorra JMA	11	7
8 Betrayar	10	7
9 Olimpiakoijos FC	4	7
10 Rayo Makabro	0	7

PARTIDUAK (8. JARDUNALDIA)

OTSAILAK 20, ZAPATUA
10:00 Lasagabaster-Abokajarro / Monte Taberna
11:00 Sonografos - Monte Taberna / Abokajarro
12:00 Olimpiakoijos - Rayo Makabro / Sonografos
13:00 Dribling - Elorra JMA / Hirugarren partiduko irabazlea
OTSAILAK 21, DOMEKA
11:30 Betrayar - Aldatz / Lasagabaster
12:30 2. ko irabazlea - 4. ko irabazlea / 5.eko gaitzailea

Koparen hasiera

Asteburu honetan 2016ko Kopa final-zortzirenak eta final-laurdenak jokatu dira. Berdinketa egonez gero, bost penalti jaurtiko dira, ez da luza-penik egongo. Kopako golak ez dira goleatzaileen sailkapenean zenbatuko.

MERKE 2016

MERKAUA

Arrasateko stock azoka

27

OTSAILA
ZAPATUA

10:00-20:00 (jarraian)

ORDAINKETAK:
ESKUDIRUTAN

Arrasateko kaleetan zehar:
Erdiko kale, Garibai etorbidea, Maiatzan 1a plaza, Otalora, Zarugalde, Olarte, Biteri etorbidea, ...

Biteri Plazan

11:00-13:00
Sambamaña Batukada

17:00-19:00
Erraldoi Eta Kilikien Konpartsa

Antolatzaila

Babeslea



Rigoletto opera eguazten iluntzean taularatu zuten Amaia antzokian. | OZENKI ELKARTEA

Verdiren opera klasikoaz gozatu ederra hartu dute herritarrek

Arrakasta borobila izan zen Ozenki elkarteak ekarritako 'Rigoletto' ikuskizuna

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Ozenki elkarte lirikoak Arrasatera ekarri duen zortzigarren opera arrakasta borobila izan da: "Oso pozik gaude. Inpresio pertsonalak eta kanpotik heldu zaizkigun balorazioak aintzat hartuta, esan daiteke *Rigoletto* izan dela orain arteko operarik onena. Arrasaten antolatut dugun ikuskizun onena izan da", adierazi du Ozenkiko arduradun Manu Gallardok.

Eguazten iluntzean taularatu zuten Verdiren opera klasikoa Amaian, ia goraino bete zen antzokian. Ozenkiren ohiko kolabora-

tzaila den Opera 2001 konpainiak antzeztu zuen: "Antolakuntza aldetik iruditu zitzaigun ikuskizuna bikaintasunetik oso gertu geratu zela. Irteeran konfiantzazkoa den jendeak, esan beharrekoak inongo beldur barik esaten dizkigun jende horrek ere horrela aitortu zigun. Itzela izan zela, seguruenik orain arteko onena", jakinarazi du Gallardok.

Herritarren erantzunarekin "oso pozik" daude antolatzaileak: "50 bat eserleku geratu ziren libre baina kopuru hori Amaia moduko antzoki baten, aretoa betetzea da guretzako".

Hurrengo operaren bila

Ozenki elkartearen laugarren denboraldia da Arrasaten. Denboraldi bakoitzeko bi opera eskaintzen dituzte -horrela funtzionatzen dute opera eskaintzen duten antzerki ezagunek- eta dagoeneko lanean hasita daude udazkenara begira. Hori bai, oraindik ez dute erabaki zein izango den bederatzigarrena: "*Rigoletto*-rekin amaitu berri dugu eta atsedena da

orain behar duguna. Antolaketa lan handia exijitzen du-eta halako ikuskizun erraldoi bat ekarzteak. Eszena barruan dauden produkzio erakargarrienak zeintzuk diren ikusi behar dira, eta gure baliabideen barruan betiere, panorama barruko operarik onena ekartzen ahaleginduko gara". Udalarekin harremanetan daude, hurrengoaren data egokiena noiz izan daitekeen zehazteko.

Mobydick, Koolturreko hurrengo gonbidatua

Bigarren aldiz joko du ekimenaren barruan; oraingoan, 'Cotard delusion' diskoarekin dator

J.B. | ARRASATE

Otsaileko kontzertuak atzean utzita, martxoko lehen kontzertua iragarri du Kooltur Ekintza taldeak. Mobydick (Eneko Burzako) izango da martxoaren 3an gaztetxeko agertokira (22:00) igoko dena. Kooltur Ostegunak ekimeneko bigarren edizioan jo zuen eta orain bueltan dator, 2013ko maiatzean kaleratutako *Cotard delusion* diskoarekin. Iraupen luzeago lehen lan horrek folk-rock doinuak batzen dituen bederatzia abesti ditu. Horiek zuzenean gozatzeko aukera egon-

go da Kooltur Ekintzari esker. Mobydick 2008an sortutako proiektua da, folk eta rock akustikoa duena oinarri. Eneko Burzako musikari getxotarrak ez du inor axolagabe utziko, haren gitarrak eta ahotsak asko transmititzen dute-eta.

Landslide eta The Capaces

Aste Santuak tartean daudela-eta, martxoaren 24an ez da kontzerturik egongo; hilaren 10ean Landslide taldeak joko du eta hilaren 17an, berriz, The Capaces taldeak.



Eneko Burzako, Mobydick, zuzenean. | KOOLTUR EKINTZA

ESANAK

"Orain arteko operarik onena izan dela esan daiteke"

MANU GALLARDO | OZENKI ELKARTEA

Laburbira martxoaren 2an helduko da Kulturatera, 19:00etan

Laburbiraren 13. edizioak euskarazko zortzi ekoizpen "fresko-fresko" dakartza, "istorio hunkigarritz kargatuta". Datorren eguaztenean, martxoak 2, helduko da Kulturatera, 19:00etan. Honako hauek dira film laburrak: *Zea Bingo* (Ane Urkiola, 7 minutu), *Erreplika* (Iñigo Gaiton Gonzalez de Txabarri, 14.30), *Jorrai* (Uda Films, 3), *Fishura* (Yago Mateo, 6.45), *Bere bizitzetako bat* (Aitor Gametxo, 8), *Brunilda* (Eriz Alberdi, 12.50), *Hartz Txiki* (Urtaiz Soubies, 16.30) eta *Semeak* (Iker Azkoitia, 7.25). Zirkuitu ibiltari honen helburua da euskarazko sortzaileen lana ezagutaraztea.

Antton Aranburu eta Peppermint Quartet Jai Zale tabernan

Euskal Herrian Euskaraz taldeak kudeatzen duen Jai Zale tabernan zuzeneko musika izango da protagonista aste bukaera honetan ere. Otsaileko egitaraua ixteko Antton Aranburu (gaur, egubakoitza, 22:30ean) eta Peppermint Quartet (bihar, zapatua, 19:30ean) izango dira gonbidatuak. Antton Aranburu musikari busturiarra eskarmentu handiko kantugilea da; abesti lasaiak joko ditu, euskaraz, eta formatu akustikoan. Bestalde, Donostiako Peppermint Quartet taldeak blues eta jazz doinuak eskainiko ditu. Martxoko aste bukaeretan ere egongo da zertaz gozatu.

Debagoieneko Lanbide Heziketako esperientziak



GOIAZ! 2016

Lanbide Heziketaren Azoka

Martxoaren 15ean eta 16an;

Kulturaten, Arrasaten.

Prestakuntza arloko eskaintza

Enplegu zerbitzuak

Ekintzaileentzat zerbitzuak

Tailerrak eta hitzaldiak

Aparatuak eta esperientziak



Aitor Lasagabaster oñatiarra Zuazola-Larraña institutuan erdi-mailako Lanbide Heziketako Mekanizazioko zikloa ikasten ari da. Oñatiko ikastolan DBH amaitu ondoren etorri da bertara, eta gustura dago egin duen aukerarekin.

Zergatik aukeratu zenuen Lanbide Heziketa?

Ez nuen Batxilergoa egin nahi. Zerbait ezberdina egin nahi nuen, praktikoagoa, eta Lanbide Heziketa aukeratu nuen.

Zer dauka Lanbide Heziketak azpimarratzekoa?

Batxilergoarekin alderatuta, ikasgai gutxiago dauzkagu eta tailerrean asko ibiltzen gara. Ahalegina eskatzen du, baina ezin da konparatu Batxilergoarekin. Hemen gauzak egiteko modua oso ezberdina da.

Nola ezagutu zenuen Lanbide Heziketa?

Lanbide Heziketa ikasketak eginak dituen besteren bat ezagutzen nuen, eta, hari entzunda, aukera ona iruditu zitzaidan. Eskolako orientatzaileak ere Lanbide Heziketa gomendatu zidan.

Oraindik lehenengo mailan zaude. Datorren urtean praktikak egingo dituzue. Horren ostean zer asmo



"Batxilergoarekin alderatuta, ikasgai gutxiago dauzkagu eta tailerrean asko ibiltzen gara."

daukazu? Lanean hasi edo ikasten jarraitu?

Ikasten jarraituko dut, goi-mailako ziklo batean. Erdi-mailako ziklo batekin ez dut uste askorik egin daitekeenik gaur egun.

Gomendatuko al zenioke laguneri bati Lanbide Heziketa?

Bai, zalantza barik. Batxilergoan gaizki pasatzen ari direnei, batez ere.

Kilometroak Txikia ere 'Demasa' izatea nahi dute

Ibilaldia, musika, jolasak... izango dira domekan

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Aurtengo urriaren 2an *Demasa* lelopean Bergaran egingo duten Kilometroak jaiaren aurrerapen moduan, Kilometroak Txikia antolatu dute domeka honetarako, otsailak 28. Aranzadi Ikastolatik Labegaraietara ibilbidea egingo dute, jolas, hamarretako eta musikaz girotuta.

Goizeko ekimena izango da, eta Kilometroak 2016k herrian presentzia izatea du helburu. Goizeko hamarretan Aranzadi Ikastolatik abiatuta, Labegaraie-tarantz joango dira, eta hango kiroldegiko eremuan umeendako jolasak eta hamarretakoa izango dira. Horren ostean, ikastolara itzuliko dira, eta han, besteak

beste, eskulanak, musika eta txosna bat izango dira, jai giroarekin jarraitzeko. Hori eguerdiko hama-biak aldera izango da.

Eguraldi txarra iragarrita dago domekarako, eta, euria egin ez gero, Ikastolako ekintzak jolastokian eta Aranzadiko gimnasioan egingo dituzte.

Parte hartzeko deia

Bergararrak *Demasa* arropa jantzita Kilometroak Txikian parte hartzerantz animatu dituzte antolatzaileek. Aranzadi Ikastolako guraso Elena Herrerosen azpimarratu du herritar guztiak daudela festa honetan parte hartzerantz deituta: "Dei egiten diegu bergararrak guztiak, ez bakarrik Aranza-

di Ikastolako komunitatea osatzen dugun ikasle, guraso, irakasle edo ikasle eta guraso izandakoei edo Kilometroak 2016 antolatzen dihardutenei, baizik eta Kilometroak 2016rekin bat egin nahi duten guztiak".

Lantaldeak martxan

Egun, denera, hamabost batzordek dihardute Kilometroak 2016 jaiaren bueltan lanean, eta berriki gazte talde bat ere sortu dute. Hala, une honetan 350 lagunek dihardute lantalde desberdinetan.

Antolatzaileek urtean zehar arropa eta zozketa txartelen salmentatik ateratzen dute diru gehien. Bidekurutzetan daukate arropa denda, eta guraso eta



Kilometroak 2016ko ordezkariak eguazteneko prentsaurrekoan. | M.T.

boluntarioek *Gure Zozketa*-ko txartelak saltzen dihardute; 60.000 euroko saria dago. Horretaz gain, astebururo Gipuzkoako herri desberdinetara irteerak egiten dituzte arropak zein txartelak saltzeko.

Hemendik aurrerakoak

Aurrera begira, martxoaren 6an Donostian egingo den Lilatoira-ko 118 emakumezko talde bat

osatu dute, eta guztiak batera *Demasa* kamiseta morearekin egingo dute korrika.

Bestalde, Erramu Zapatuan ere hainbat ekimen egiteko asmoz dabilta. Besteak beste, txosna bat jarriko dute eta bertan pizzak eskainiko dituzte.

Apirilean, berriz, *Demasa* Astea egingo dute, eta orduan aurkeztuko dute Kilometroak 2016ko abesti ofiziala.

Ezker abertzalearen estrategia berriari buruz hausnartzeko batzarrak herritarrekin

- ▶ 'Abian' txostena aurkeztuta, jendearen ekarpenak jasoko dituzte eraberritze prozesuko fase berrian
- ▶ Martxoaren 5ean, 12an eta apirilaren 16an

M.T. | BERGARA

Ezker abertzaleak egiten diharduen *Abian* izeneko eraberritze prozesuaren txostena aurkeztu dute asteon. Aurreko fasean, ezker abertzalearen inguruko berrogeita hamar pertsonarekin izan dira, eta orain, herritarren ekarpenak jaso nahi dituzte. Horretarako, batzarrak egingo dituzte martxoaren 5ean eta 12an eta apirilaren 16an, 09:30ean, Aranzadi Ikastolan -umezaintza zerbitzua izango da-. Ezker abertzaleko kontsideratzen direnei parte hartzeko dei egin diete.

"Presoen etxeratzea lortzeko bide-orri eraginkor bat" lortu nahi dute prozesuarekin. Bestalde, txostenean gatazkaren hainbat ondorio jorratzen dira: "ETA-ren armagabetzea, bi aldeetako biktimen aitortza nola egin, eta

indar okupatzaileek Euskal Herri-tik alde egiteko egin beharrekoa".

Dena den, azaldu dute bakea ez dela helburu bakarra, eta independentzia eta sozialismoa dutela jomugan. Zentzu horretan, estrategia berrikusi eta independentzia prozesu herrikoia abiatu nahi dute. Horren harira, hainbat galdera planteatu dituzte: independentziarako herri aliantza nola lortu; zein diskurtso erabili, edota lan molderrik egokienak zeintzuk diren. Baita garai berrirako kultura politikoa berria jorratzeko tresnak eta herri mugimenduetarekin nola lan egin aztertzea ere.

Abian txostena ezker abertzalearen webgunean www.ezkerbartzalea.info eskuratu daiteke, baita Arrano tabernan edo ezker abertzaleko kideei eskatuta ere.



Begarako ezker abertzaleko kideak aurkezpenean. | M.T.

Begararrak Algecirasen

Zapatuan kartzetara martxak egin zituzten Euskal Herriko hainbat txokotatik. Begararrak

Algecirasen izan ziren, herriko Joxe Migel Gaztelu preso dagoen espetxean. Han, gutun bat entregatu zuten, berari helarazteko

asmoz, *Abian*-en parte har dezan; izan ere, presoen ekarpenak jaso nahi dituzte ezker abertzalekoek.

Askatasun eguna

Biharko, otsailak 27, Askatasun Eguna antolatu du Bergarako ezker abertzaleak. Hilabete honen hasieran libre geratu zen Mikel Askasibar *Aska* eta presoen senideak izango dira biharko egunaren ardatz nagusia. Joxe Migel Gaztelu ere presente izango dute, eta "preso politikoko guztiaren askatasuna" eskatuko dute. Eguerdiko ordu batean hasita, ekitaldia, poteoa, bazkaria eta kontzertua izango dira, besteak beste.

EGITARAUA

13:00 Ekitaldi politikoa Irala kalean.

13:30: Triki-poteoa Pol-Polen hasita.

14:30: Bazkaria Aranzadi Ikastolako gimnasioan. Txartelak salgai daude Arrano eta Pol-Polen: 13 € ikasle eta langabeentzat; 17 € langileentzat.

17:00: Mor More taldearen kontzertua ikastolako gimnasioan. Ondoren, poteo girotua Bergarako kaleetan zehar.

Martitzenean hasiko dira Errekaldeko horma konpontzen

Errekaldeko parkearen kanpoaldeko hormaren konponteko lehen faseari martxoaren lehen, martitzena, emango diote hasiera. Lanek iraun bitartean, zeharbidea itxi egingo da ordutegi honetan: 09:00-12:30 eta 14:30-18:00. Lan horiek hamabost eguneko epean bukatuko dituztela aurreikusten du Bergarako Udalak.

Begarako hitanoa ikasteko aukera izango da martxoan zehar

Euskaltegiak eta Udaleko Euskara Zerbitzuak, Jardunen lan-kidetzarekin, Bergarako euskaran hika aritzen ikasteko ikastaroa antolatu dute. Lau egunetan egingo dituzte saioak, 18:30etik 20:30era, Udal Euskaltegian. Izen ematea Euskaltegian (Barrenkalea 33, Irizar jauregia). Prezioa: 10 euro. Martxoaren 2a baino lehen.

OHARRAK

SAN JOXEPE BATZARRA

Batzar nagusia martxoaren 17an; zuzendaritzako bi kide ordezkatzeko hautagaitzak aurkezteko aukera izango da.

HERRI BAZKARIA

Erramu Zapatuko herri bazkarirako tiketak martxoaren 3an 19:30etik aurrera salduko dituzte Irala kalean. Pertsonako gehienez 4 eros daitezke.

Janaria ere etxera eramaten dugu

Plater gustukoenak:

- Xia-Jiao (ganba-enpanadillak)
- Curry triangeluak okelaz beteta
- Langostino frijituak almendrekina

Etor zaitez!

☎ 943 25 06 77 • Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean) • BERGARA

Lasagabaster, 30eko hamarkadan emakumezko gerentea zuen lantegia

- ▶ Hark sinatzen zituen, adibidez, kontabilitate liburuak
- ▶ Halakoak daude Udalari egindako dohaintzaren artean

JULEN IRIONDO | BERGARA

Udalak dohaintza jaso du XX. mendeko herriko ehungintza industriako adibide izan zen Lasagabaster enpresako artxiboa – udalbatzak urtarrilean, osoko bilkuran, onartu zuen dohaintza-. "Horko zenbait kontabilitate liburu-eta duten interesa da, adibidez, 1934an enpresako gerentea nire amona zela, ez zela nire aitona, amona baizik; eta liburu haiek hark sinatuta daude"; hala azaltzen du, geroago, 70eko eta 80ko hamarkadetan, Lasagabasterreko arduradun izan zen Serafin Sañudo-Lasagabasterrek Udalari dohaintza emandako dokumentuen berezitasunetako bat.

Dohaintza arrazoitzaerakoan, berriz, "dokumentazio hori guztia desagertu ez dadin, modu bakarria zentro ofizial baten esku uztea" dela dio, "gorde ditzan, zaindu ditzan eta funts historiko bat egiten joan dadin". Birraitonak –Pedro Lasagabaster, Aramaiokoa jatorriz– martxan jarritako enpresa 1971n –berak arduratu hartu zuen urtea– "herrian zeuden 17 ehungintza lantegiak" zela dakar gogora Serafin Sañudo-Lasagabasterrek: "Eta orain ez dago bat ere, industria

ESANAK

"Ematen duena da herriko historiako beste ikuspuntu bat"

ARANTZAZU OREGI | ARTXIBOZAINA

"Inportantea ikusten dugu oso fondo hau hemen edukitzea"

ELENA LETE | ALKATEA

"Desagertu ez dadin, modu bakarria zentro ofizial baten esku uztea da"

SERAFIN SAÑUDO-LASAGABASTER | DOHAINZA EGIN DUENA

hori desagertu egin da"; haren berri "historialarientzat edo eskal industria aztertu nahi lukeen jendearentzat" behintzat gerra dadin nahi izan dute "kontabilitate liburuak, erregistro liburuak" eta abarrekoak Udalaren esku utzita.

Gordeta eta erabilgarri

Zentzu horretan berean, Bergararen "iraganeko kontakizuna osatzeko eta aberatsagoa izateko" dokumentazio garrantzitsu jotzen du Elena Lete alkatea dohaintza jasotako: "Artxibo hauen arriskua da galtzea edo leku desegoki batean gordetzea; hau gordeta dago, eta ondo gordeta. Oso inportantea ikusten dugu edukitzea hemen fondo hau, eta eskuragarri egotea; edozein pertsonak edo entitatek behar badu ikustea edo aztertzea, aukera paregabea da". Udal Artxiborako jaso duten dokumentazioaren inbentarioa Udalaren webgunean ere egongo da, edonondik kontsultatu ahal izateko.

Udal Artxiboak, Udalak berak sortzen dituen dokumentuez gain, bestelakoak ere jasotzen ditu; honela, enpresa edo lantegiakoei dagokienez, Zerrajerako



Lasagabaster lantegia, 1960 inguruan. | BERGARAKO UDAL ARTXIBOA / JUAN IDIGORAS FONDOA



Alkatea eta Maite Agirre zinegotzia, dohaintza jasotakoekin. | JULEN IRIONDO

artxiboa –Bergarako lantegikoa–, Movillarena, Narvaizarena eta Eguren tailerrekoa ere baditu. Udal artxibozain Arantzazu Oregi ere balio horixe aitortzen die Lasagabasterreko eta gainerako enpresetako dokumentuei: "Industriako eta ehungintzako artxiboak gorde izan ditugu Bergaran, eta hau beste bat da. Osatzen ditu aurretik ditugunak, eta nik uste interesgarria dela. Ematen duena da herriko historiako beste ikuspuntu bat, enpresa arloa zela izan den, ze sektore egon diren, zela lan egiten zuten, ze produktio zuten, ze langile".

Eta ikerketarako bakarrik ez,

jakin-min pertsonalak asetzeko ere balio dezakete halakoek, Oregi adibide bat emanaz azaltzen duenez: "Behin etorri zitzaigun gizonetako bat, bere aitona lan egin zuela Zerrajeran, eta ez zekielako noiztik eta... Etorri zirela Zamorako herri batetik-edo, eta bazekielako hemen jardun zela. Langileen liburuetan agertzen zen. Orduan astero kobratzen zen, ez zen orain bezala; topatu zuen noiz hasi zen kobratzen eta noiz utzi zion, eta lortu zuen jakitea Zerragan ze epetan bizi izan zen, Zerrajeran barruan zertan lan egiten zuen... Bere familiako historiako zen".

More kolorekoa dator martxo osoa herrian

J.I. | BERGARA

Martxanetarako, Jardunekin eta Udalarekin elkarlanean, egitarau oparoa antolatu dute Martxoaren 8a dela eta: "Askotan, ematen du egun horretan bakarrik zentra-

tzen direla ekintzak. Pentsatu genuen polita izango zela gehiago luzatzea", dio Elena Eginok.

Lehenengo hitzordua hilaren 2an da: *La mujer y el agua* dokumentala, eta solasaldia ondoren:

"Dokumentalak egiten du paralelismo bat uraren zikloaren eta bizitzako zikloen artean, eta hori azaltzeko lau istorio kontatzen ditu, bakoitzak protagonista emakume bat duena".

MARTXOA FEMINISTA!

MARTXO OSOAN ZEHAR:

Bergarako emakumeen artelanak taberna eta kafetegietan.

MARTXOAK 2

20:00 Zinekluba eta solasaldia: *La mujer y el agua*, Zabalotegin.

MARTXOAK 5

20:00 Bertsolaritzaren sekretuak. *Isilduriko emakumeen historia*, Zabalotegin.

MARTXOAK 6

▶ Lilatoia (Donostian).

MARTXOAK 7

18:30 Hitzaldia: *Gure genealogia feminista*, Irizarren. Herriko hainbat emakumeri omenaldia.

MARTXOAK 8

19:00 Kalejira-performancea, San Martin plazan hasita.

MARTXOAK 9

19:00 *Kapulana bat zintzilik* emanaldia, Irizarren.

MARTXOAK 10

18:00 Jatorri ezberdinetako emakumeen IV. te hartzea, San Martin plazan.

MARTXOAK 16

20:00 Zinekluba: *La fuente de las mujeres*, Zabalotegin.

MARTXOAK 23

20:00 Zinekluba: *Una segunda madre*, Zabalotegin.



BERDEAGO

Ixoturena stand ederrena

Aurreko asteburuan Durangon egindako Berdeago azokan, LED argiztapen alorreko Ixotu enpresa bergararrak eskuratu du stand ederrenaren saria. Oihana Beristainen arabera, ezustean harrapatu zituen sariak: "Ez genuen espero". Azokan izandako hartu-emanek ze ondorio izango duten ikusteko oraindik goiz izan arren, gustura dira Ixotukoak; adibidez, zenbait arkitekto eta dekoratzaileekin harremana egin zuten.



Iazko edizioaren partidu bat. | GOIENA

Murriztua, baina lau t'erdikoa izan, izango da

Datozen bi martitzenetan finalerdiak eta hurrengoan finala, zortzi pilotarirekin denera

JULEN IRIONDO | BERGARA

Txapelketaren gastuei aurre egiteko baliabide faltagatik kolo-kan egon da, baina egin egingo da lau t'erdiko txapelketa. Reyes Azkoitiaren arabera, txapelketa orain arteko formatuan egiteko –zortzi pilotari gazte mailan eta beste zortzi seniorretan– 3.000 euro inguru behar dira, eta BKEko Pilota Sailak ez du aurtengorako aurreko urteetako babes ekonomikorik jaso –babesle berririk ez dute lortu, eta Soralue enpresaren izena eramango du aurten ere txapelketak–: "Aurten egon gara batere ez egin edo laurekin egitearen artean; batere ez egitea ere, izena hartuta daukan txapelketa batekin, latza da. Baina laurekin bakarrik egitea ere oso latza egin zaigu".

Kontuak kontu, datozen hiru martitzenetan izango dira par-

tiduak Udal Pilotalekuan, 19:30ean hasita. Zubizarretak eta Lerenak –gazte maila– eta Errandoneak eta Urbietak –seniorrak– neurtuko dituzte indarrak lehenengoan; bigarrenean, berriz, Salaberriak eta Rirolek eta Lasok eta Ugaldek.

"Salaberria goizuetarra eta Zubizarreta ataundarra bolo-bolo dabilzan gazteak dira. Seniorretan, Errandonea, iazko txapelduna, eta Laso, gazteak izanda, nagusietan aurrean dabilza", dio Azkoitiak. Txapelketa motza izango dela-eta, pilotazaleak hasieratik deitu ditu frontoira.

Asteburuko karteldegia

Gaur, 19:30ean, Udaberri txapelketako finalerdiak jokatuko da, bergarar –Perez eta Iñarra– eta villabonarren artean, nagusi mailan.

Bi urre Beti-Busti taldekoentzat

Frantziako Orthezen jokatu zen azkenean Bergararako iragarrita zegoen Euskal Kopako lehia. Bertan, Miren Murgizuk urrea eskuratu zuen K-1ean, eta gauza bera Iker Mansok eta Unai Otaduk C-2an, biak kadeteetan.



BETI-BUSTI



MUSIKA ESKOLA

Andoaindik bueltan, pozik

XI. piano jaialdia izan zen asteburuan Andoainen. Bergarako Musika Eskolako hamabost ikasle izan ziren bertan. Urrezko lau domina, zilarrezko bederatzita eta brontzezko bi ekarri zituzten etxera.

'Bergararren' 'Traviata', arrakastatsu

Sarrera guztiak saldua egin zituzten asteburuan Donostiako Kursaalera opera obra ezagunaren bi emanaldiak. Hogei bergarar inguruk hartu zuten parte Opus Liricaren lanean, eta Valen Moñux eszena zuzendaria "oso gustura" geratu zen emaitzarekin. Moñuxek zioen lehen aldia dela talde honek Kursala bete duena. 12 minutuko txalo-zaparrada jo zieten.



VALEN MOÑUX

Mugarrien ibilbideko zatia martxoaren 6an, Pol-Poleko gazteekin

Elorregi eta Illunbe arteko ibilbidea egingo dute martxoaren 6an, Pol-Poleko gazte taldeak antolatuta. 15 kilometro inguru dira, eta lauzpabost orduko irteera izango da. Autobus geltokian geratuko dira, 08:30ean. Izena emateko, astelehenean, eguenean edo egubakoitzean, 19:00ak eta 20:00ak artean, bulegoan.

Laburbira domekan: zortzi ekoizpen "fresko-fresko"

Euskarazko film laburren zirkuituak gaztetxean egingo du geldialdia domekan, 19:00etan. Lanak: *Zea bingo* –Ane Urkiola–; *Erreplika* –Iñigo Gaiton–; *Jorrai* –Uda films–; *Fishura* –Yago Mateo–; *Bere bizitzetako bat* –Aitor Gametxo–; *Brunilda* –Eritz Alberdi–; *Hartz txiki* –The Arlotes–; *Semeak* –Iker Azkoitia–.

Aste honetan 'Beer and roll fest' eta 'Tapoi fest' hurrengoan, gaztetxean

Punk-oi! musika, zapatuan: 19:00etan, El Exterminio de la Raza del Mono (Aramaio) eta Krisis (Aretxabaleta); 22:00etan, Shock Waves (Iruñea), WC (Arrasate), Oldarkor (Deba) eta Los Perros (Arrasate); ondoren, DJak. Hurrengo astean, egubakoitzean eta zapatu, zortzi talde eta DJak izango dira *Tapoi fest*-en.

Santo Tomas Lizeoa hartuko du saskibaloit talde nagusiak

Zapatuko 16:30ean hasiko da Labegarietan Soralue BKE-ren eta Santo Tomas Lizeoaren arteko partidua. Sailkapeneko erdi aldean dagoen taldea da bergararren aurkaria, hemezortzi jardunalditan irabazi beste partidu galduta. Jon Beiztegik entrenatzen duen taldeak azkeneko jarraitzen du, garaipen batekin.

Hiru bikote sailkatu dira Euskal Herriko finalerako, musean

Zapatuan jokatu zen Gipuzkoako kanporaketa, eta Bergararako Ramon Ramosek eta Xabier Albixuak bigarren egin zuten. Hurrengo zapatuan Zuberoako Urdiñarben jokatuko den Euskal Herriko finalerako sailkatu ziren Mikel Larrañaga eta Gotzon Ibarra eta Karmelo San Tortuato eta Inazio Aristi ere.

Kantari saiorako grabazioa, asteburuan Zabalotegi aretoan

Guztira 221 bergarar gaztetxok hartuko dute parte Kantari karaokearen bosgarrenaldian. Bihar, zapatua, eta etzi, domeka, egingo dituzte grabazioak, arratsaldean, Zabalotegi aretoan, eta guztira hamar saio grabatuko dituzte. Apirilaren 9tik aurrera ikusi ahal izango dira Bergarako saioak Goiena telebistan.

NIRE USTEZ

ANDRES OSA 'SAKONA'



Joxe Arregi: gogoan zaitugu

1981ean, Euskal Herriko gizar-teak ez ezik, lurrak berak ere dar-dar egin zuen, Joxe Arregi zizurkildarrak torturapean azken arnasa eman zuenean. Bidezkoa eta zuzena da gertakari horren inguruan torturaren aurkako memoria plazaratzea. Hemen go hedabide gehien isiltasuna esanguratsua izan da.

Tortura mehatxupear bizitzea edonori gerta dakioken egoerarik larriena, beldurgarriena da, deshumanizazio eta basatikeria maila gorena. Badira 5.500 bat kasu zuzenean torturatuak izan direnak, milaka familia, senitarteko eta lagunak sufrimendua luzatuaz. Madrilek ez du *mea culpa*-rik aitortu. Ez kolore batekoek ez bestekoek.

Ikerketarik ez da egin. Hemen bertan tortura eguneroko zigorra izan denean ere, askok entzungor egin eta albora begiratu dute, bertako alderdi eta politikariek tarteko. Herri defendatzaile ohiak ere esan zuen: "Tortura kasuak frogatzen direnean salatuko ditugu". (Iñigo Lamarca, Garan). Joan zintezke kuarteletara, zehaztasun osoz informatuko baitzaituzte!

Trantze horretatik pasatu diren asko izan dira biziki aitortu dutenak: "Tortura jasan ezin gehiago eta bertan hil nintzaten deseatzen. Loteria". Estatuak –argi! ez da berdina organizazio edo kolektibo bat–, gure izenean, torturak eta heriotza zigorrak aplikatu ditu. Hor dago gakoa, benetan grabe-dadaea.

"Estatuak, gure izenean, torturak eta heriotza zigorrak aplikatu ditu"

Martxoan sartuko dituzte musika instrumentuak Eltzian

- ▶ Tamaina ezberdinetako hamaika gela egokitu dituzte taldeek entseatzeko
- ▶ Beste espazioak berrantolatzeke lanak aurten hasi eta bukatu gura dituzte

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Musika Eltzia estreinatzean dago. Herriko musika taldeek entseatzeko erabiliko dituzten hamaika gela egokitu dituzte dagoeneko Eltzian; gela horietako ateak, espazioak intsonorizatzeko ate bereziak, jartzan ari ziren eguazten goizean. Sabaiak ere egokituta daude funtzio hori betetzeko, paretak marrotuta, lurra jarrita eta instalazio elektrikoak eginda. Martxoan hasiko dira taldeak euren musika instrumentuak Eltzian erosten eta Aste Santutik aurrera hantxe entseatuko dute.

50etik gora talde

Gela guztiak ez dira berdinak. Batzuk txikiagoak dira beste batzuk baino, baina bakoitza prestatu dute hiru talde sartzeko moduan. "Oraingoz, herriko 33 musika talde erabiliko dituzte gela hauek. Euren artean adostu dituzte partekatzeak eta guztiak bete beharreko araudia. Araudi zorrotza da, gainera, zigorrak ere jasotzen dituen", dio Onintza Andresek, udaleko parte-hartze teknikariak.



Onintze Guridi, Onintza Andres eta Nerea Zubia, Eltzia aurrean | O.E.

"Horiez gain, badaude beste bi talde, Trikitxaranga eta Batukada Feminista. Horietan kideak gehiago dira eta espazio handiagoa behar dute, borobilean ere entseatzen dute eta. Bi talde horiek hamai-kagarren gela erabiliko dute, guztietan handiena", gehitu du.

Eltziak Ugarkalde aldera duen sarrera erabiliko dute musika

taldeek, instrumentuak sartu eta atera ahal izateko bertaraino eramantzeko ibilgailua.

Eta musikariak espazio berria erabiltzen hasten direnean hasiko dira herriko beste hemeretzi eragilek, behintzat, erabiliko dituzten espazioak berrantolatzen. "Proiektua eginda dago eta orain plegua idatzi eta lehiaketara aterako dira

lanak. Dagoen espazioa beharretara egokituko da eta lanak aurten hasi eta bukatzea da asmoa", adierazi du kultura zinegotziak, Nerea Zubiak. Aurten egingo dituzten lan horietan, Eltziako sotoa, klastroa dagoen solairua eta lehen solairua egokituko dituzte. "Eguno erabiltzaileak hortxe egonda egingo dira lanak; goiko solairura pasa beharko dira bitartean", gehitu du Zubiak.

Lagun Leku dagoen tokia eta taberna ere tokiz aldatuko da. Taberna klastroa dagoen solairuan egongo da gero eta deialdi publiko bidez esleituko da zerbitzua, kiroldegikoarekin egiten den bezala. Herriar guztiendako egongo da zabalik eta sarrera propioa izango du. Erretiratuek izango dute tokia batzeko eta orain arteko jardunekin jarraitzeko. Espazioak jardunaren arabera antolatuko dira solairu horretan eta lehenengoan, eta sotoa biltegi moduan erabiliko dute. Musika Eltzia handitu beharra egonez gero, sotoan egingo dute tokia.

Bagarak egindako lana ere amaituztat ematen da fase berri honekin. "Orain erabiltzaileek kudeatuko dute. Lau talde sortu dituzte ardurak banatzeko eta erabiltzaileen ordezkariak dira taldeetako kideak" dio Bagarako Onintze Guridik.

Eltziako erabiltzaileek txartel bidez zabalduko dituzte gune irekiak eta bakoitzak bere espazioa. Eltzia Eguna egiteko asmoa ere badute, ekainean, dena erakusteko.

Eskolako bidean ikusitakoak argazkitan jaso gura dituzte

O.E. | OÑATI

Udalaren mugikortasun planaren barruan sartzen da Eskolako Bidean proiektua eta herriaren ereduaz hausnartu gura du udalak umeek eguneroko joan-etorrietan izaten duten autonomia maila eta jasangarritasuna ardatz hartuta. Udalarekin batera herriko hiru ikastetxeek hartzen dute parte proiektu honetan baina ez da bakarrik umeendako. Udalak gura du jakin ume eta gaztetxoek espazio publikoa, bide-segurtasuna eta hirigintza nola bizi dituzten, txikienen bizi-penak gizarte guztiarentzat onuragarri izan daitezkeelako, herrian hobekuntzak eta eraldaketak proposatzeko garaian.

Hala, gaztetxoak eskolara oinez, bizikleta edo patinetean doazenean, adibidez, bidean zer gustatzen zaien eta zer ez jakiteko argazki lehiaketa eta erakusketa antolatu dute. Ume bakoitzak bi argazki bidali ditzake oinatiskolabi-dea@gmail.com helbidera martxoaren 4a aurretik. Martxoaren 14tik 18ra ikusgai egongo dira argazkiak.

Bidebarrieta eta saihebidetean egongo dute zuhaitz landaketa

O.E. | OÑATI

Natura Eskolak antolatutako XX. ingurumen jardunaldien barruan, zuhaitz landaketa egingo dute domekan. 10:00etan elkartuko dira Foruen plazan eta handik Bidebarrieta kalera joango dira. Kale horren ostean eta saihebidetean artean dagoen zelai aldapatsuan egingo dute aurtengo landaketa.

Kale horretan dauden etxebizitzetara ahalik eta argitasun gutxien kentze aldera, landare txikiak landatuko dituzte: haginak eta urkiak. 60 zuhaitz landare, guztira. Landaketa egiteko behar diren baliabideak

eramango dituzte Natura Eskolako kideek, "baina datorrenak norberarena ekartzen badu, gaizki ez, ez dakigu-eta zenbat elkartuko garen", dio Aimar Uribealgok. "Hamaiketako guztiendako eramango dugu", gehitu du.

Aurreko mendira irteera

Bihar, zapatua, bestalde, anfibioei buruzko tailerra egingo dute eskolan, 09:00etan, eta 10:30ean irteera egingo dute zapaburuak eta txantxikuak ikusteko. Martitzenean azalaramendu geologikoa izango dute hizpide kultura etxean, 19:00etan.



ONATIKO EZKER ABERTZALEA

Topasko presoetara bisita

Guardia Zibilak ez zien Topasko (Salamanca) espetxera nahi beste gerturatzeko utzi ofiatiarrei eta aramaioarrei. Xabier Ugarte preso ofiatiararen alabak bisita egiten zuen bitartean, inguruko soro batera joan ziren gainerakoak, ekitaldia egitera. Ondoren, inguruko muino batera igo —Guardia Zibilak identifikatu egin ditu martxo kideak—, eta handik ikusi ahal izan zuten presoek sumatu dituztela espetxe barrutik.

Txandako 26 komertzio kanpora aterako dituzte produktuak, 'outlet'-ean

O.E. | OÑATI

Txandak antolatuta, neguko produktuen outlet-a egingo dute gaur, egubakoitza, eta bihar. Guztira, 26 dendak hartuko dute parte ekintza honetan eta saltokien kanpoaldean jarriko dituzte beheerpenak izango dituzten produktuak. Kale animazioa ere egongo da eta umeendako tailerrak ere bai.

Outlet produktuak ezingo direla txartel bidez ordaindu, eta, behin erosita, ez da aldatzeko onartuko.

Egubakoitzean 12:00etatik aurrera eta arratsaldean aterako dituzte produktuak kanpora, eta zapatuan goizean zehar. Tarte horietan erdiguneko kaleak itxita egongo dira ibilgailuendako.

Hamar domina ekarri dituzte musika eskolara Andoingo piano jaialditik

O.E. | OÑATI

Jose de Azpiazu musika eskolako ikasleek hamar domina ekarri zituzten joan den asteburuan Andoainen egin zen piano jaialditik: urrezko sei domina eta zilarrezko lau, hain zuzen ere.

Oñatiko hamaika gaztetxok parte hartu zuten jaialdi horretan eta parte hartu zuten banaka A eta B mailetan, eta lau eskutara

kategorian. Musika eskolako zuzendari Aitor Madinak adierazi duen moduan, guztiak oso lan txukuna egin zuten.

Ainhua Galdos eta Araceli Guridi irakasleekin batera joan ziren gaztetxoak jaialdira, eta guztiak, ikasle zein irakasle, zoriondu gura izan ditu Madinak, eta "orain arte bezala" lanean jarraitzea animatu ditu.

Olakua auzoko ahateen urmaela garbitu egingo dute

Olakua auzoan dagoen ahateen urmalean garbiketa sakona egingo dute. Horretarako, han zeuden ahateak eta antzarak kendu egin dituzte eta ohiko animaliarik gabe dago egun urmaela. Aurrekoetan baino garbiketa sakonagoa egingo dute orain eta horregatik kendu dituzte hegaztiak bertatik. Hala, arratoi zuloak tapatuko dituzte eta gehiegi hazi den landare-tza moztu egingo dute, besteak beste.

Esther Oliver dator Elkar Hezira martxoaren 4an

Pertsonen arteko harremanetan genero indarkeria prebenitzeko hezkuntza ereduari buruzko hitzaldia antolatu du Elkar Hezi ikastetxeak martxoaren 4rako. Esther Oliver izango da hizlaria, Bartzelonako Unibertsitateko irakaslea eta Crea-ko ikerlaria.

Martxorako Elkar Heziki antolatu duen ekintzetako bat da, eta hitzaldia herritar guztiendako egongo da zabalik. Ikastetxeko areto nagusian izango da, 15:00etatik 18:00etara.



Errepidean ibiliko diren txirrindularien aurkezpena zapatu eguerdian egin zuten Foruen plazan. | IMANOL SORIANO

24 txirrindulari izango ditu aurten Aloña Mendik

Txirrindularitza sailak 50 urte beteko ditu eta urte berezia izango da

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Aloña Mendiren txirrindularitza sailak 50. urteurrena ospatuko du aurten eta propio diseinatu-tako ekipamendua jantziko dute aurtengo denboraldiko txirrindulariek. Zapatuan udaletxean egindako urtemugako ospakizunen aurkezpen ekitaldian, aretoa jendez beteta zela, Gipuzkoako Federazioko ordezkariak plaka bat eman zion Aloña Mendiri, 50 urteengatik. Aloña Mendiko presidente Anton Inzak, Udaleko Kirol batzordeko buru Borja Moiuak eta urteetan Oñatiko txirrindularitza babesten ari den Ulmako ordezkari batek ere hartu zuten hitza ekitaldian.

Bi babesle

Aloña Mendik 24 txirrindulari izango ditu aurten errepidean,

lau kategoriatan banatuta. Alebinetan bost, infantiletan zazpi, kadeteetan bost eta gazte mailan

zazpi txirrindulari izango ditu aurten herriko txirrindularitza sailak –neska bakarra–. Ulma eta Bizipoz kafetegia izango dira babesleak. Horrez gain, herriko bi txirrindularik kanpoko taldeetan jardungo dute denboraldi honetan: Julen Umerezek Ampon, afizionatuetan, eta Garazi Eros-tarbak nesken Caja Rural-Bidebide taldean. Badira, baita ere, Oñatin ariko diren kanpokoak –gertukoak, bailarakoak–, biak gazte mailako taldean: Mikel Arregi antzuolarra eta Gurutz Axpe bergararra.

Urrezko ezteiak ospatzeko lasterketak ez ezik, erakusketa, tertuliak eta hitzaldiak eta herri bazkari bat –urteotan sailean ibili diren denentzat– ere egingo dituzte, eta liburu bat prestatzen ari dira.

URTEURRENEKO OSPAKIZUNAK

Martxoaren 19an: eskolartekoa

Apirilaren 24an: Gipuzkoa Klasikoa, gazte mailakoa

Maiatzaren 7an: eskolarteko Gipuzkoako Txapelketa

Ekainaren 4an: Arantzazuko Igoera, gazte mailakoa

Ekainaren 12an: Olakua proba, kadeteena

Irailaren 10ean: San Migel proba, gazte mailakoa

Irailaren 17an: Oñati Saria, afizionatuentzat

NIRE USTEZ

JOSE LUIS MADINAGOITIA



Iruzurra eta diru beltza

Aspalditxoan oso ohituaz goaz ia egunero notizia berri bat jasotzen, iruzur berri bat edo diru beltzen inguruko historiaren bat.

Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) irakasle batzuek zergen iruzurren gainean egin duten estudio batek dio Euskadin %20 inguruan kokatzen dela iruzurra (2.700 bat milioi euro, gutxi gorabehera urtero), estatu mailakoa baino zerbait

gutxiago, baina nahiko inguruan. Uste nuen zati bat hobeak ginela. Oso urrun, berriz, beste herrialde batzuekin konparatuta (Erresuma Batua, Suitza edo iparraldeko nazioekin). Toki horietan %7 eta %12 artean kokatzen da.

Euskal populazioaren iritzia da, inkesta bidez jasota, iruzur maila oso altua dela, eta ez dela gehiegizko lanik egiten diputazioetatik hau jaitsi edo kontrolatzeko. Herritar gehienok ez dugu iruzur handirik egiten, gure aukerak oso mugatuak direlako, gure errenta

handienak erretentzioari lotuta eta kontrolatuta daudelako, eta gehienbat BEZaren inguruan kokatzen dira gure tranpak. Baina hor, itxura denez, saiatzzen gara eta gure kultura orokorrean onartuta dago ahal dugunean iruzurra egitea. Baten batek esango luke horiek tranpa txikiak direla; txikiak bai, baina iruzurrak, eta... ahal izanez gero, ez genituzke handiagoak egingo?

Kontuan izanda Kontzertu Ekonomikoaren bidez euskaldunok geuk gobernatzen ditugula diru hauek, ez gure zerga kultura hobetu behar erreferente diren nazioengatik hurbilago egoteko? Pentsa zenbat gauza berri egin daitezkeen gizarte zerbitzuetan iruzur bidez galdutako diru horrekin.

"Nik uste nuen zati bat hobeak ginela"

Aurreikuspen onak izan ditu Gaztetxeen Topaketak

IRATI ELORTONDO | OÑATI

Asteburuan Oñatin egin duten Euskal Herriko Gaztetxe eta Gazte Asanbladen Arteko Topaketak oso gustura utzi ditu Antixeneko kideak. Hego Euskal Herriko herrialde askotako 250 lagunek parte hartu dute tailerretan.

Aisialditik harago

Antolatzaileen esanetan, topaketa bere horretan ez da helburu nagusia, urtean zehar jazotako behar eta nahiei erantzutea ere bada. Gaur egun arte gaztetxeek aisialdi modura funtzionatu dutela diote eta gazteek bizitzako beste esparru batzuei erantzuteko grina sortu dela. Gaztetxe kideen bizitza autogestionatzeko bitarteko modura ere erabili nahi dute Antixena. Zapatu arratsaldean eginiko manifestazioaren ostean, kritika egin zioten eredu kapitalistari, baita gazteek bizi duten prekarietate egoerari ere. Borrokan jarraituko dutela azaldu zuten, eta herriz herri Euskal Herria gaztetxez beteko dutela ziurtatu.

Joseba Arregik marrazkiz bete du bere liburu berria

IRATI ELORTONDO | OÑATI

Alacanten preso dagoen Joseba Arregi Azpilleta-ren *Burdin elorri arantzetan... denbora jorrazten* liburua aurkeztuko dute gaur Antixena gaztetxean arratsaldeko seietan.

Irudiak hitzez lagundurik

Joseba Arregi Azpilleta 1992an espetxeratu zuten, Frantzian, eta 2000. urtean Espainiara estraditatu zuten. Frantzian espetxeratuta zegoela, hainbat erakusketa egin zituen areto ezberdinetan. Liburu honetan, irudiak hitzez lagundu ditu, kartzelako leihotik zein barrutik irudikatutako marrazkiak azaltzeko. Ziegak, kartzelen planoak eta patioak erakutsi nahi izan ditu Arregik, bere hitzetan, borroka eta gose greba ugari jazotako lekuak baitira. Kartzelatik kanpo dauden paisaiak ere irudikatu ditu, hala nola txorien, fruituen eta loreen marrazkiak, baita bere tokirik kuttunenak ere.

Bere mundua labirinto bat dela dio Joseba Arregik liburuan, kartzela barruan dena baitago kontrolpean.

Brahms-en 'Requiem'-a eskainiko du Oñatiko Ganbara Abesbatzak martxoan

IRATI ELORTONDO | OÑATI

Debagoienean lehenengo aldiz entzungo den Brahms-en *Requiem*-a eskainiko du Oñatiko Ganbara Abesbatzak martxoaren 20an.

50 lagun

50 lagunek hartuko dute parte Mikel Goiangeruaren parrokiari.

Ganbera-bertsioa egingo dute, pianoa lau eskutara jota. Arrasateko Goikobalu abesbatzako abeslariak egongo dira, baita Donostiatik etorriko direnak ere. Ganbarako beste kide ohi batzuk ere izango dira. Oñatiarrendako ohikoa ez den proiektua izango da, instrumentazioa eramango du eta.

Negarra eta barrea sortzen ditu 'Distancia siete minutos' lanak

Titzina antzerki taldeak *Distancia siete minutos* antzez-lana ekarriko du gaur, egubakoitza, Santa Anara. Drama eta komedia uztartzen ditu eta justizia, zorientasuna, helmuga eta mota horretako gaiak azalazten ditu.

2012an *Curiosity* izeneko robota bidali zuen gizakiak Marte planetara eta justu egun horretan epailea den Felixek bere etxea utzi behar du termiten izurriteagatik eta bere jaiotetxera doa; aitarekin bizi izaten hasiko da.

Antzez-lana 22:30ean hasiko da eta sarrerak hamar euro balio du.

Ordu eta laurdeneko pilates ikastaro berezia dute gaur

Pilates ikastaro berezia egingo dute gaur, egubakoitza, Zubikoa kiroldegian. Ordu eta laurden iraungo du saio horrek eta erlaxazio saio batekin bukatuko da. 17:15ean hasiko da.

Ikasturtean zehar Zubikoan eskaintzen duten fitness zerbitzuko ezohiko eskaintzetako bat da ikastaro hau. Izan ere, ohiko ekintzez gain, ezohikoak ere antolatzen dituzte eta otsailtik ekainera ere horrela izango da. Esate baterako, iragarrita daude *zumba* maratonia, abdominalen tailerra eta *nordic walking* hastapen ikastaroa.

Kaleko dantzen agertoki izango da Ibarra kiroldegia, hirugarrenez

Martxoaren 12an egingo den Fun Dantz jaialdian Euskal Herriko hainbat txokotatik etorritako 40 talde inguru elkartuko dira

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETAKO

Hirugarrenez egingo dute Fun Dantz jaialdia Ibarra kiroldegian. Dantza urbanoak edo kaleko dantzak erakustea helburu duen lehiaketa martxoaren 12an, zapatua, izango da, eta sarrerak, 680 guztira, dagoeneko salgai dazkate Arkupe kultura etxean – aurrez hiru euro; egunean lehiatilan, bost euro–.

Ibarra, aparteko agertokia

"Euskal Herriko dantza urbanoen lehiaketa garrantzitsuenetakoa dator berriro Aretxabaleko kiroldegira", jakinarazi du Ander Garaizabalek, Break On Stage ekimeneko kide eta antolatzaileak. Emakumeen Nazioarteko Eguna-ren bueltako ekitaldien artean dago eta aurtengoa ere arrakatsua izango delakoan daude Kultura Saileko ordezkariak. "Aurreko ekitaldian 600 lagunekin gora elkartu izan dira, eta Aretxabalea ezagutzera emateko ekimen garrantzitsua da", dio Joxe Migel Uribarren zinegotziak.



Uribarren, Garaizabal eta Miguel, aurtengo Fun Dantz aurkezten. | MIRARI ALTUBE

Kaleko dantzetan jarduten dutenendako aparteko agertokia izango da kiroldegia, beste behin. "Baliabide teknikoak eta eszenikoak jarriko ditugu taldeen eskura, koreografiak modu ikusgarrian taularatu ditzaten horiek". Hala, hiru minutu inguruko dantza saioak eskainiko dituzte eta esti-

lo asko erakutsi: hip-hop, garaikidea, urban dance eta esperimental, besteak beste.

Bi sailetan banatuta

Lehiaketak bi sail izango ditu: 18:30ean, gazteak –15 urtetik beherakoak– eta bikoteak, hamazortzi talde guztira; eta 19:30ean,

urban dance lehiaketa nagusia, hogeitai talde.

Euskal Herriko txoko askotatik gerturatuko dira horiek, Bilbotik, Eibartik, Iruñetik eta Donostiatik besteak beste, eta nor baino nor gehiago jardungo dute guztiek. Horien saioak epaitzea ez da batere samurra izango, horregatik goi mailako epaileak gonbidatu dituzte bertara. "Zaragozatik etorriko dira epaimahaiko kideak, Jorge, Milki eta Paula. Dantzari ezagunak eta ibilbide luzeak dira, eta eurek ere erakustaldiak egingo dituzte".

Gazteen talde eta bikote onenek dirua jasoko dute sarritzat; urban dance lehiaketa nagusikoek, ostera, diru sariaz gain, apirilaren 16an Bilbon egingo den Break On Stage lehiaketarako sarrera: "Bi onenak sailkatuko dira harako, hain zuzen horixe da Fun Dantzek duen erakargarratasun handienetakoa", adierazi du Garaizabal antolatzaileak.

'Abian' prozesuko lehen saioa dago bihar

M.A. | ARETXABALETAKO

Ezker abertzaleak hasi berri duen *Abian* prozesua Aretxabaletan ere eztabaidatuko dute. Hiru saio egingo dituzte, eta hori gertatzeko txostenak Urbaltz elkartearen dazkate eskuragarri.

Lehen saioa bihar da, zapatua, 10:00etan, udaletxe zaharrean, eta eztabaidatuko duten gaia da *Zutik EHtik gaur egun arteko balantzea eta testuingurua*. Txostenean defendatzen den tesi nagusia bozkatzeko dute orduan.

Emendakinak martxoan

Bigarren saioa martxoaren 19an izango da, eta eztabaidarako gaiak honako hauek: proiektu politikoa; eskaintza independentista; taktikaren garapena; gatazkaren konponbidea; eta antolaketa. Gai horien gaineko emendakinak aurkezteko aukera egongo da egun horretan.

Eta hirugarren saioa apirilaren 16an egingo dute. Batzar erabakitzailea izango da ordukoa, eta emendakinak bozkatu ostean behin betiko txostena aurkeztuko dute.

Edu Portilla | Berdintasun teknikaria

"Aitak ez du umea barruan, baina biena da proiektu hori"

- ▶ Aitatasunaren gainean jardungo du gurasoekin
- ▶ Martxoaren 9an da hitzaldia, Ibarra kiroldegian

M.A. | ARETXABALETAKO

On.giz elkartearen egiten du lan Edu Portillak (Gasteiz, 1970), batez ere gizonen "maskulinitate tradizionala deseraikitzen eta bestelako maskulinitateak badaudela erakusten". Guraso Foroak antolatatu duen haurtzaroaren gaineko ikastaroaren aitatasunaren gaineko argibideak emango ditu martxoaren 9an (18:00), kiroldegian.

Aita bigarren mailan dagoen figura da umea txikia denean?

Hala da, bai. Amatasuna biologiarekin oso lotuta dago, eta, amatasun hori naturalizatzen badugu, aitatasuna alboragarri bihurtzen dugu. Umea proiektua den unetik bien inplikazioa bultzatu behar da. Aitak ez du umea barruan, baina proiektua biena da. Eta hau funtsezkoa da. Gure osasun sistema, lan sistema, hezkuntza sistema sexista den aldetik ez du

aita kontuan hartzen hainbat zereginetan; esaterako, erditze aurreko eta osteko ikastaroetara joateko aukerak, aitatasun baimenaren iraupena, enpresen benetako politika zainatzaileak...

Umearentzat, zein da aita?

Aita izango da bera mundura ekartzeko erabakia hartu zenetik aurrera izan duen rolaren isla. Inplikazioa, maitasuna, erantzunkidetasuna, kontzientzia... hitz ederrak dira aitaren barruan zerbait esan behar dutenak. Benetako loturarik ez badago, erdipurdiko aitatasuna izango da emaitza. Alderdi bat zaila da aldatzen, gure sistema matxistaren baitan dago eta.

Nola hezi mutikoak gizon izateko?

Jaso dugun heziketaren produktua gara gu; hau da, matxistak. Kontziente bagara, benetako aldaketa egin nahi badugu eta etxean

bion artean hartzen baditugu ardurak, hau da, protagonistak biok izan, ez bat titularrak eta bestea badaezpadakoa, gizon zoriontsuak eta ahaltsuak izango ditugu. Norberaren eta bikotearen jarrean dago benetako boterea.

Berdintasunean hezteko, gurasoen pentsaera egokitu beharra dago?

Pentsaera garrantzizkoa da, baina jardueran dago koska. Pentsaerari, sentitzea gehituko nioke. Bizitzan zehar bizi izandakoak, gaur egun jasotzen ditugun mezuak, politikak, programak... ez dute benetako aldaketa bultzatzen. Aldaketa txiki batzuk baino ez dira. Ez dago pertsonak bizitzaren erdian jartzeko benetako apusturik. Beraz, barrurako lana egitea oso onuragarria da aitaren eta amaren rolak berrikusteko.

Berdintasuna zelan bizi den etxean, hori hartzen dute eredutzat umeek?

Umeek egiten duguna jasotzen dute; esan bai baina egiten ez duguna ez, ezta? Halaxe da. Eta gizonetzkoie esan zaigu gurea arlo publikoa dela eta emakumezkoie pribatua. Egunerokoa muga horiek apurtzeko gogoa izan behar dugu. Hor dago aldaketaren ardatza.

Aitak eta amak berdin inplikatzeko dira gaur egun umeak hezterakoan?

Lehen baino gehiago, bai. Gero eta emakume gehiago ari dira lan merkatuan eta gero eta gizon gutxiago arlo pribatuan. Hala ere, lanean segi behar dugu. Etxeko arduren kudeaketan dago gakoa. Etxe gehienetan emakumeak gerentelana egiten du eta erabaki gehie-



Edu Portilla. | EDU PORTILLA

nak hartzen ditu. Gizon asko *egitera* mugatzen dira.

Gizartetik balio sexistak transmititzen zaizkie neska-mutuei; etxean landu beharreko kontua da hori?

Etxean, haur eskolan, ikastolan... leku guztietan. Nire ustez, gabezia handia dago lehenengo urteetan. Kanpaina ugari egiten ari dira

gazteekin, eta egin beharra dago. Zenbat eta gehiago landu, orduan eta gutxiago zuzendu beharko dugu gerora. Txikiekien genetika jotzen da askotan, hezkidetzaz oztopatuz. Eta zoritxarrez, irakasle eskola batzuetan oraindik generoaren gaia ginetik ikusten da, ez zaio ematen behar duen lekua. **Gaia zabala da; besterik gaineratu nahiko zenuke?**

Sexismorik gabeko sozializazioak askatasunaren atea zabaltzen digu, gure bizitzaren kontzientzia handiagoa hartuko dugu eta horrek zoriontsuago egingo gaitu. Benetan sentitzen badugu zoriontsuago izango garela gu eta gureak, egingo dugu. Baina egungo gizarteari ez zaio axola, bestelako balioak bultzatzen dira. Norberak du gauzak nahi dituen tokitik bideratzeko aukera. Ez da erraza, baina merezi du.

Haurtzaroaren gaineko prestakuntza zikloa

Guraso Foroak antolatatu duen prestakuntza ziklo barruan umeen sexualitatearen gainean jardun zuen Ana Ramirez de Ocariz adituak joan den eguaztenean (gaztekeraz izango da martxoaren 1ean, 18:00etan).

Datorren eguaztenean, martxoak 2, elikadura orekatuaren gaineko argibideak emango ditu Amaia Diaz de Monasteriok. 18:00etan da, kiroldegian.



Ramirez de Ocarizen hitzaldia. | M.A.

'Gaztekonkis'-ek martxan jarriko ditu gazteak Aste Santu bezperan

Martxoaren 21ean eta 22an izango da eta izena emateko epea zabaltzear dago

MIRARI ALTUBE | ARETXABAETA

Udaberriko Gaztekonkis ekimena antolatu dute herriko hainbat eragilek bigarren. 12 eta 16 urte bitarteko gaztetxoei erakutsi gura diete, beste behin, kirola eginez ondo pasa daitekeela.

Mendiko probak eta Gaztetxef

"Nerabeei kirola egiteko hamai-ka modu daudela erakustea da helburua, eta oinarriak jartzea kirola gozamenarekin eta ohitura osasungarriekin lot dezaten", jakinarazi dute antolatzaileek, Atxagazte gazteak, Arizmendi kirol elkarteak, Udala eta UDA. Hala, egun batean kirol probak egingo dituzte mendian, eta bigarren, sukalde lanetan jardungo dute herrian.

Martxoaren 21ean, astelehena, joango dira hain zuzen ere, mendira. 11:00etan irten eta 17:00etara bitartean, hainbat eratako probak gauditu beharko dituzte puntuak jasotzeko.

Martitzenean, martxoaren 22an, ostera, *Gaztetxef* egingo dute, 11:00etatik 16:00etara bitartean. "Lehenengo ginkana jolasean jardungo dute bazkarirako osagaiak eta tresnak lortzeko. Eta ondoren, bazkaria prestatzera



Gaztetxoak proba bat jokatzen Urkulu inguruan, iaiz. | IMANOL GALLEGU

joango dira Iturrigorri pilotalekura", argitu dute antolatzaileek, eta gaineratu bazkalostean tonbola egingo dutela.

Martxoaren 16a arte izena

Proba guztiak taldeka egingo dituzte gaztetxoek; gutxienez bost lagunek eta gehienez zortzik osatutako taldeak, hain zuzen. Eta horiek mistoak badira puntu gehiago lortuko dituzte. Izena

emateko epea martitzenean, martxoaren 1ean zabalduko dute eta 16an itxi, eta Internet bidez emango da; hona helbidea: <http://goo.gl/forms/EDEUGXHQN>.

Talde onenek sariak jasoko dituzte: lehenengoak, Laboral Kutxa saskibaloitzailearen partidurako sarrerak eta afaria; bigarrenak, izotz pistarako sarrerak eta afaria; eta talde ereduari, afaria.

Agin Laburu eta Iker Zubeldiarekin bertso afaria gaur

M.A. | ARETXABAETA

Loramendi kalean dagoen Hiba Gain gastronomia elkarteak jardungo dute bertsoan gaur, egubakoitza, Agin Laburu (Astigarraga, 1985) eta Iker Zubeldia (Zegama, 1981) bertsolari eza-gunek.

Azken urteotan legez, Loramendi elkarteak eta Lekaixoka bertso eskolak antolatu dute, eta, beste behin, 80 bat herritar elkartuko dira mahaiaren bueltan. 21:00etan hasita, jateko gozoak izango dituzte platerian eta bertso dotoreek berotuko dute giroa, norberak gura duen arte.

EMAKUMEEN III. FRONTENIS TXAPELKETA

"Faboritorik gabe" datoz finalerdiak

Domekan jokatuko dira finalerdiak eta "partidu irekiak" izango direlakoan daude UDAkoak. Orduan erabakiko da finala zeintzuk jokatuko duten martxoaren 6an.

FINAL-LAUDENAK, EMAITZAK

Idoia Elkoro - Iratxe Bravo / Naiara Amezua - Anaiz Fernandez	25-23
Leire Valle - Maite Fraile / Lur Delgado - Dorleta Elkorobarrutia	14-25
Lore Martinez - Rosa Ojuel / Naiara Alonso - Maite Otxoa	25-0
Ainara Muga - Amaia Ariznabarreta / Eli Berridi - Ane Aspe	25-16

FINALERDIAK - OTSAILAK 28

11:30 Idoia Elkoro - Iratxe Bravo / Lore Martinez - Rosa Ojuel
12:00 Lur Delgado - Dorleta Elkorobarrutia / Ainara Muga - Amaia Ariznabarreta

Mendi Astea egingo du Murruxok, astelehenean hasita

M.A. | ARETXABAETA

Murruxok mendizale elkarteak mendiaren gaineko astea antolatu du. Astelehenean hasi eta domekara bitartean hainbat hitzaldi eta mendi irteera bat egingo dituzte.

Astelehenean, otsailak 29, Lourdes Basterretxea mendizaleak Afrikako Kilimanjaro mendi ezagunaren gainean jardungo du. Martitzenean, eskarmentu handiko mendi gidari Martin Elortzak Zermatte eta goi ibilbidea izango ditu ber-

betarako gai. Eta eguaztenean Luismi Egiluz eskalatzaileak Islandiako Vatnajökull glaziarren gaineko irudiak eta han bizi izandakoak ekarriko ditu. Hitzaldi guztiak Arkupen dira, 19:00etan.

Domekan, Zaraiako itzulia

Domekan, martxoak 6, ostera, mendi ibilaldia egingo dute astea bukatzeko. 08:00etan elkartuko dira Azbe lantegi alboan eta Zaraiako mendilerroari buelta emango diote.



IMANOL BELOKI

Zuhaitzak landatuta daude

Landatu dituzte zuhaitzak herriko neska-mutikoen eta gurasoen. Untzilla auzora bidean dagoen Egileor baserri inguruan jardun zuten lanean joan zen domekan, eta urkiak, hurritzak, arteak eta haritzak landatu zituzten, 150 zuhaitz guztira. Aretxabaletarrek ez zuten hutsik egin, eta, eguraldi ona lagun, giro bikaina izan zuten.



M.A.

Aurrera doa Antzerki Astea

Antzerki Astearen murgilduta dabilta Kurtzebarri eskolako 6 eta 12 urte arteko ikasleak. Dantzak, antzezlanak, txotxongiloak eta ipuinak gertatu dituzte, besteak beste, eta horiek erakusten dabilta gurasoei eta aitona-amonei. "Lan handia egin dute eta euskaraz eta ingelesez aurkeztu dituzte", diote eskolako kideek. Martitzenean bukatuko dute astea.

OHARRAK

XAVIER DELTELL

BAKARRIZKETAGILEA GAUR

Xavier Deltell (Lleida, 1958) aktore, telebistako aurkezle eta umorista ezaguna eta Jose Andres (Ciudad Real, 1980) bakarrik tagilea izango dira gaur, egubakoitza, 20:00etan, Arkupen; sarre- ra, lau euro.

'JOY' FILMA HELDUENDAKO

Jennifer Lawrence protagonista nagusi duen *Joy* film arrakasta-

tsua (Estatu Batuak, 2015, 109 min.) emango dute helduendako gaur eta bihar (22:00), domekan (19:30) eta astelehenean (16:00).

Umeek, ostera, *Paperezko hegazkinak* (Australia, 2014, 96 min.) filma izango dute, euskaraz, bihar eta etzi (17:00).

AINGERU GUARDA EGUNA

Zaindariaren eguna ospatuko dute Basotxo erretiratuen elkarte-ko kideek martitzenean. Meza

izango da parrokiaren 11:00etan, eta ondoren, 11:45ean, salda eskainiko dute elkartearen tabernan. Bazkaltzera Arrasateko Sara jate- txera joango dira, eta, horretarako, autobusa izango dute 13:15ean. Bazkalostean, dantzan egin eta gero, itzuliko dira, 19:00 aldera.

EGONALDIK EGOITZETAN

Etxean bizi diren nagusiek Aste Santuko egun batzuk zaharren

egoitzetan pasatu gura izanez gero, eskaera egin behar dute udaletxeko Gizarte Zerbitzuen bulegoan; txanda aurrez hartzea komeni da: 943-71 18 62. Azken eguna martxoaren 2a da.

LIZTOR BELTZAREN GAINEKO ERAKUSKETA

Eguaztenean hasita, liztor beltzaren mehatxuaren gaineko erakusketa egongo da Arkupen, Josu Agirianoren eskutik.

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAETA



Udalbatza osatzen duten ordezkari politikoak osoko bilkuran. | GOIENA

Kultur jardueretarako diru laguntzak emateko oinarriak aldatuko dira

EH Bilduk ezezo hiru boto eman zituen, Irabazik abstentzio bakarra, baina EAJren eta Elizateen aldeko botoekin onartua izan zen

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Martitzenean, otsaileko ohiko osoko bilkura izan zen Eskoriatza. Hainbat gai tratatu ziren, baina bereziki bik sortu zuten eztabaida. Alde batetik, 2016. urtean Eskoriatzan garatuko diren kultur programa eta jardueretarako diru laguntzak emateko oinarriak hasiera batean onartzeak, eta bestetik, EH Bildu udal taldeak Eskoriatzako Euskal Preso Politikoen Lagunen izenean aurkeztu zuen mozioak.

Diru laguntzak emateko oinarriak onartu arren, Irabaziren abstentzioa eta Bilduren ezezoa jaso zuen. Honela azaldu zuen Aitor Zubizarreta EH Bilduko bozeramaileak ezezoa ematearen arrazoa: "Honen arabera, kultur jardueraren bat egin nahi duenak diru laguntza eskatzean, %50 irizpide teknikoetarako izango da; %20, berriz, eskatzaileek autofinantzatu beharko dute eta %30eko diru laguntza eman edo ez batzordeak erabakiko du. Hori

ez da inon ikusi". Alkateak, honi erantzunez, aukera berriak zabaldu nahi dituztela adierazi zuen: "Batzordeetan hitz egin arren, garbi ikusten da gure arteko zati-keta".

Mozioaren aurrean, berriz, EAJ eta Elizateek abstentzioa eman zuten. "Halako gaietan sartzeko ez dugu arazorik, baina gure baietza lortu nahi badute, guregana etorri beharko dute", adierazi zuen alkateak.

Sahararen aldeko elkartasuna Bihar, zapatua, beteko da Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zeneko 40. urteurrena. Hori dela eta, Eskoriatzako Udalak aho batez onartu zuen gertakari historiko horrekin bat egitea, eta bihar udaletxeko balkoian Saharako bandera jarriko dute.

ESANAK

"Abanikoa zabaldu nahi dugu, besteei aukera emateko"

JOSERRA ZUBIZARRETA | ALKATEA

ESANAK

"Hau ez da inon gertatzen, diru publikoaz ari gara"

AITOR ZUBIZARRETA | EH BILDU

Piano emanaldia izango da gaur Zaldibarren

Beheko errota musika eskolako ikasleek hainbat pieza eskainiko dituzte, 18:00etan

I.B | ESKORIATZA

Eskoriatzako Beheko Errota musika eskolako ikasleek emanaldia eskainiko dute gaur Zaldibar antzokian. Urtero egiten den kontzertua 18:00etan hasiko da, eta taula gainean izango diren musikariak 16:00etan batuko dira antzokian, entseguak egiteko.

Guztira, hamazazpi musikaririk hartuko dute parte; ikasle batzuk urte asko daramatzatenak izango dira eta beste batzuk, aldiz, aurten hasitakoak. Horregatik, maila ezberdineko

piezak entzuteko aukera izango da. Pelikuletako soinu bandak, abesti klasikoak eta hasiberrien abestiak entzun ahalko dituzte bertaratzen direnek.

Mentxu Pierruges eta Rachel Hernandez irakasleek ikasleei irakatsitakoa praktikan jarriko dute oholta gainean, eta deialdia egin dute musika eskolatik, nahi duena kontzertuaz disfrutatzerantz bertaratu dadin.

Sarrera doakoa izango da, eta saioa hasi baino hamabost minutu lehenago zabalduko dira atearak.



NEREA ARANA

Txakur-kakak puxikekin salatuz

Ibarraundi museo aurreko berdegunean txakur-kaka ugari agertzen dira, eta jokabide hori salatuzko, Luis Ezeizako lau urtekoen laguntzarekin, gorotzak identifikatu eta gorotz bakoitzean puxika bana jarri zuten haurrek eguaztenean. Guztira, 70 puxika jarri zituzten, aurreko aldean bakarrik 50, eta haurrek primeran pasa zuten goiza.

'Itsasoari begira' dokumentala proiektatuko da martxoaren 2an Zaldibar antzokian

Gabezia neurologikoak dituzten haurrei eta haien bizimoduari buruzko dokumentala proiektatuko da martxoaren 2an, 19:00etan, Zaldibar antzokian. Eskoriatzako Udalak eta Luis Ezeiza eskolako Tximeleta Gelak elkarlanean antolatu dute dokumental hau. Honen helburua da herri eskolan dagoen Tximeleta Gela proiektua herrira hurbildu eta bertako ikasleen errealitatea ezagutzaraztea. Dokumentalean, protagonisten lagun eta senideen adierazpenekin, haur berezien mundua ulertarazi nahi da. Sarrera doakoa izango da, euskaraz, gaztelerazko azpitoluekin.

Bittor Oroz sailburuordea Eskoriatzan izan da


Euskadi mailan nekazaritza munduak dituen erronkei eta etorkizunari buruz berba egin zuen Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikagai Industrien sailburuordeak. Lehen sektorea gaztetzeko "beharra" dagoela azpimarratu zien batzarrean batutako baserri-auzoetako bizilagunei eta auzo-alkateei.



MIREIA BIKUÑA

Aingeru Guarda ibilbidea, 23

627 140 961 | furgo@ibiltariak.com



IBILTARIK
CAMPER EKIPAMENDUAK

www.ibiltariak.com

20540 Eskoriatza, Gipuzkoa



Urtean zehar ekitaldi ugari egiten dira sahararrei laguntzeko. | ANELKAR



Anelkar: "Zerotik hasi behar dute sahararrek"

Saharako errepublika aldarrikatu zela 40 urte beteko dira bihar, otsailak 27

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA
SEADek (Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa) 40 urte beteko ditu bihar, otsailak 27. Hala, egun osoko ospakizunak

izango dira protagonista Antzuolan bihar. Gainera, Anelkarrek eta SOS Sahara elkarteek sahararrei laguntzeko dirua batzeko ahaleginak egingo dituzte. "Orain,

Saharako premia handiena da urriko uholdeek hondatutako hainbat zerbitzu, ospitale, eskola eta egitura garatzea. Uholdeekin ia dena galdu dute eta zero-

tik hasi behar dute", dio Anelkarrek. "Herriko eskolak, Udalak eta Anelkarrek elkartasun bide horretan esperientzia positiboa dauka. Antzuolak hamabi euskal karabanekin parte hartu du eta 7.500kg batu ditu. Gainera, Antzuolako zenbait familiek Saharako umeak opor garaian ere jasotzen dituzte. Gure herriak lotura estua dauka Sahararekin".

Konpromiso instituzionala
Zapatuan, 12:00etan ezohiko osoko bilkura egingo da. Udalaren biharko adierazpen instituzionalak horrela dio: "Gaur, 2016ko otsailak 27, 40. urteurrena betetzen

da Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zela eta Udalak bat egin nahi du gertakari historiko horrekin eta beste urte batez ere garbi erakutsi nahi du saharar herriarekin duen konpromiso tinkoa (...). Sahararen autodeterminazio eskubidea, SEADeko gobernuaren eta Fronte Polisarioaren errekonozimendua aldarrikatzen dugu. Eta Espainiako Gobernuari eta nazioarteko komunitateari eskatzen diegu bultzatzea beharrezko ekimen politikoak konponbide zuzen eta behin betikoa lortzeko (...)"

Musika eta aldarrikapena
Osoko bilkuraren ostean dantzarien saioa izango da eta ikurriña eta Saharako bandera udaletxeko balkoian jarriko dituzte. 17:30ean, haima eta haurrendako jolasak izango dira patioan. 22:00etan, kontzertua Torresoroan: Klak!son, Patxi Luque, Antzuolako Trikitilari taldea, Namektarrak, Issuo Sasiia eta Josune, Koldo Lizarralde... Sarreran borondatea jasoko dute Anelkarreko kideek eta jasoko den dirua sahararrei laguntzeko izango da. Egunotan saldutako txartelen zozketa ere emanaldian zehar egingo dute.

Iraetako tunelean erori den harria kentzeko, ikerketa geologikoa egin beharra dago lehenik

Lizarraga auzoko Iraetako tunelean harri handi bat erori da asteon. Harri gehiago erori daitezkeen arriskuagatik, ingurua hesitu egin du Udalak. Bertatik ez igarotzea gomendatu du Hirigintza teknikari Valen Moñuxek: "Ez da alarma sortu behar, baina arriskutsua da, errespetua ematen du. 15 tona inguruko harria da, auto baten tamainakoa. Ez dakigu zein den tunelaren egoera. Alkateak tunel guztien ikerketa geologikoa egiteko eskatu dio Diputazioari. Erantzunaren zain gaude harria kentzeko".



15 kilo inguruko harria erori da Iraetako tunelean. | BEÑARDO KORTABARRIA

Zine emanaldiak berriro bueltan dira Torresoroan: gaur euskarazko azpitituluekin 'Kapitala' filma

Gaur, hileko azken egubakoitza, *Kapitala* filma ikusgai, 20:00etan, Torresoroan; sarrera doan. "Herritarren eskaerari erantzun gura izan diogu, eta, herritarrak gustura badaude eta zinerako ohitura sortzen bada, indartu egingo dugu eskaintza. Antzuola bezalako herri txiki batendako aukera ezin hobea eskaintzen du Filmazpit-ek eta zinema-areto komertzialetan ikusiko ez genituzkeen filmak ikusteko aukera ematen du", dio Kultura zinegotzi Usoa Agirrek.

OHARRAK

GAZTETXEA MARTXAN
Gaur, ate irekiera gaztetxean: luntxa eta kontzertua, 20:00etan.

OTEGIRI ONGIETORRIA
Antzuolako EH Bilduk antzuo-

larrei dei egin nahi die *Free Otegi*, *Free Them All* plataformak Arnaldo Otegi aske gertuko dela eta martxoaren 5erako antolatutako duen ongietorrira joan daitezten.

Kantari saioko grabazioa bihar

Antzuolako gaztetxoek dena prest dute Kantari saioko grabazioa egiteko. Bihar, zapatua, Bergarako Zabalotegi aretoan egingo dute grabazioa 7 eta 11 urte arteko 25 antzularrek. Urduritasunak alde batera uztea zaila den arren, gurasoen eta lagunaren begiradapean Kantariko agertokira igotzeko txanda iritsi zaie.



AITOR AGIRIANO



ANTZUOLAKO EZKER ABERTZALEA

40 lagun Herrera de la Manchako martxan

Otsailaren 20an antzularrek eta elgetarrek Herrera de la Manchako kartzelara egin zuten martxa. Joseba Erostege, *Eltzikorta*, antzuolarra dago bertan preso. 40 lagun joan ziren, eta senideek presoari bisita egin eta gero egin zuten ekitaldia. Espetxeko funtzionarioei idatzi bat eman zieten, han zergatik zeuden azaltzen zuena. Aipatu ere, *Abian* prozesuko lehen batzarra martxoaren 5ean, zapatua, izango dela, 09:30ean, Antzuolako Olaran etxean.



2014ko San Martin jaietako dantza emanaldia herriko plazan. | JOSETXO ARANTZABAL

Dantza taldearen 60. urteurrena ospatuko dute

Jaialdia antolatzeko batzar irekia egingo dute martxoaren 3an, 19:00etan

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

Lagun Artean dantza taldeak urteurren borobila beteko du aurten; 60 urte, hain zuzen. Bada, urteurrena modu berezian ospatzeko beharra ikusi dute dantza taldeko kideek. Hala, bilera irekia egingo dute datorren martxoaren 3an, eguena, 19:00etan, kultura etxean, urteurrena antolatzen hasi eta aurkezteko.

"Dantza taldean ibilitako jendea eta ospakizunetan parte hartu gura duten herritarrek daude gonbidatuta bilera irekira", diote Ainara Inuntziaga eta Goiatz Burgi dantza batzordeko kideek.

Uda ostean izango da

Ospakizun nagusia uda osterako utzi dute: urriaren 15ean egingo dute, egun guztiko jaia. Oraindik

hainbat gauza zehaztu barik dituzten arren, bi ekintza nagusi egitea dute buruan dantza taldekoek: batetik, argazki zaharren erakusketa egin gura dute, Sastiñan; eta, bestetik, euskal jantzien inguruko hitzaldia.

Urriaren 15ean egingo duten festarako, dantzarien kalejira, emanaldi berezia frontoian, herri bazkaria eta dantzaldia egitea aurreikusten dute. "Esan bezala, gauza asko oraindik zehaztu gabe ditugu, baina urrian izango den festa antolatzeko komeni zaigu honen berri ematea eta jendea animatzea", diote Inuntziagak eta Burgik. Besteak beste, jaialdian parte hartuko duen pertsona kopuruaren arabera dantzarako entseguak finkatu beharko dituzte.

65 lagun daude taldean

Aurtengo ikasturtean gaztetxo talde batek izena eman du dantza taldean; tartean, hainbat mutilek. "Pozik" daude, garrantzitsua delako mutilak ere taldean egotea. Iaz, esaterako, mutilez osatutako talde bat estreinatu zuten. "Garrantzitsua da hori; izan ere, azkeneko urteetan neskek egin ditugu mutilen dantzak", diote batzordeko kideek.

Aurten 65 pertsona inguru dabilta dantza taldean, umeak eta nagusiak. Talde bakoitzak ordubeteko entsegu egiten du astean, Ivan Garcia arrasatearraren gidaritzapean. "Dagoeneko hasi gara hurrengo zita prestatzen: Aramaioko San Martin jaiak, uztailera lehen asteburuan", diote dantza taldeko kideek.

Martxoaren 4an egingo dute lehentasunak zehazteko hurrengo saioa

Egubakoitzean egin zuten lehenengo batzarrean 12 bat lagunek parte hartu zuten

A.E. | ARAMAIO

Lehenengo batzarrean Udalaren funtzionamendu ekonomia azaldu zuten udal ordezkariak; eta bigarren batzarrerako etxerako lanak jarri zituzten: "Udalerrak izan ditzakeen beharrak identifikatzeko eskatu diegu", dio Lierni Altuna alkateak.

Hurrengo batzarra martxoaren 4an izango da, egubakoitza, 18:30ean, udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Herritarrek identifikatuko dituzten beharrak lehentasunen arabera ordenatu

beharko dituzte ondoren. Modu horretan, hurrengo diru laguntzak eskatu behar dituzteneko beharrak identifikatuta izango dituzte.

Proiektu txikiak

Proiektu edo obra handietarako dagoeneko ez dago dirurik –2016ko aurrekontuan–; baina gauza txikiak egiteko dirua egon daiteke: "Kultura mailan, adibidez, zerbait antolatzea gura bada, ba, izan dezakegu dirua hori egiteko", dio Altunak.



Egubakoitzean egin zuten batzarra. | JULEN IRIONDO

Txirritola elkartearen ipuin lehiaketan parte hartzeko epea martxoaren 18ra arte izango da

Ipuin lehiaketa jarri du abian Txirritola Euskara Elkarteak. Lehiaketan, Aramaion bizi edo ikasten duen edonork har dezake parte. Baloratuko dute: euskaraz zuzen idaztea –batuan edo euskalkian– eta originaltasuna. Lanak liburutegian aurkeztu beharko dira, martxoaren 18a baino lehen. Lau kategoriatan banatu dute lehiaketa.

'Egun handia' dokumentala euskaraz ikusteko aukera egongo da gaur, barikua, kultura etxean

Pascal Plisson zinegile frantziarraren *Le Grand Jour* filmaren euskarazko bertsioa ikusteko aukera egongo da gaur, barikua, kultura etxean, 22.30ean. Lau gaztetxoren istorioa kontatzen du filmak: Nidhi –15 urte, India–, Deegii –11 urte, Mongolia–, Tom –19 urte, Uganda– eta Albert –11 urte, Kuba–. Euren bizitza alda dezakeen proba prestatzen dabilta gaztetxoak.

Itur-Zurik ohiko batzar nagusia egingo du astelehenean, eta martxoaren 4an bingo afaria

Emakume elkarteak ohiko batzar nagusia egingo du astelehenean, hilaren 29an, 18:00etan, kultura etxean. Horrez gain, bingo afaria egingo dute martxoaren 4an eskolako jantokian –19:30ean–. Izena emateko iturzuri@gmail.com helbidera idatzi, edo deitu: 666 40 65 73 (Lurdes), 626 00 81 51 (Rocio) edo 617 85 66 88 (Mertxe). Izena emateko azkeneko eguna otsailaren 26a izango da –25 euro–.

Herri galdeketa bideratuko duen Erain Debagoiena elkarteak aurkeztuko dute martxoaren 5ean

Debagoieneko herrietan egingo dute aurkezpena; baita Aramaion ere. Martxoaren 5ean izango da, zapatua. Herri galdeketa bideratzeko Erain Debagoiena elkarteak sortu dute; bada, hori aurkeztu eta herri galdeketa nondik norakoak eta galdera bera aurkezteko ekitaldi txiki bat egingo dute. Sastiñan izango da Aramaioko ekitaldia, 12:30ean.

Gureia auzoan hainbat lan egiteko ia milioi erdi euroko proiektua onartu du Foru Aldundiak

A.E. | ARAMAIO

Arabako Aldundiak Gureia auzoan obrak egiteko 435.171,67 euroko laguntza onartu du. Aramaioko Udalak iaz eskatu zuen plan foraleko bi obretatik bat da Aldundiak onartu berri duena. Udalak aho batez eskatu zuen Gureia auzoko obrak egiteko laguntza. Laguntza horrekin, Gureia auzoko kaleen zoladura, argiteria, argindarraren eta telefonoaren lurperatzea, eta euri uren saneamendua hobetuko dute.

Lierni Altuna alkatea, Udala Gobernuaren izenean, pozik dago lanak egiteko laguntza onartu

duelako Aldundiak: "Proiektua eta obra zuzendaritza esleitu behar ditugu orain. Bi fasetan egingo dira obrak. 2016an 224.331 euro emango digute eta 2017an, berriz, 210.840,67 euro".

Oposizioa ere gustura

Aramaioko EAJk "atsegin handiz" hartu du proiektuaren onarpena: "EAJk Aramaion duen udal taldeak atsegin handiz ikusi du azken hauteskundeetan herritarrei egin zien hauteskunde-programa gauzatzen ari dela".

Plan foralean bi obra handi egiteko laguntzak eskatu zituen



Gureia auzoa. | GOIENA

Udalak iaz; bada, Matxin kaleko konponketak egiteko proiektua ez dute onartu. "Matxin kalerako beste konponbide batzuk aurkitzen hasi beharko dugu", dio Altuna alkateak.

Udalbatzak aho batez onartu du parte-hartzerako ordenantza

Praktikak emango duenaren zain helburuekin bat datoz bi talde politikoak

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

"Oso garrantzitsua deritzogu parte-hartzearen kultura sustatzeko pausoak ematea", adierazi du parte-hartzerako zinegotzi Janire Lazkano batzorde-buruak. Oposizioa bat dator udal ordenantzak finkatzen dituen helburuekin. "Ordenantzak helburu positiboak ditu eta onartzen du arautegia herriko errealitatera egokitzeko aukera. Kezka dugu praktikak emango duenarekin: herritarrek ulertuko dute ordenantza? Benetan sustatuko du parte-hartzea?", esan du Gu Geu Elgetako Mikel Larreak. Iraitz Lazkano alkateak esan du erronka moduan hartu behar dela herritarrek udal eskumenekoak diren gaietan parte-hartzeko dituz-



Elgetako udalbatza, martitzenean egindako osoko bilkuran. | L.Z.

ten eskubideen eta baliabideen jakinaren gainean jartzea. Hala, Udalak argitalpen "ulerkor" bat kaleratuko du ordenantzaren gaineko informazioa zabaltzeko.

Peoia behar du Udalak

Lan poltsa osatzeko deialdia egin du Udalak. Interesatuak martxoaren 11rako eman behar dute. Argibideetarako jo udaletxera.

Kiroldegiko sauna berriz martxan

Hasiera bateko erabakia sauna ixtea izan bazen ere Udalak berriz ere erabilgarri ipintzeko erabakia hartu du. "Berrikusi ostean erabilera datuak zeintzuk diren sauna zerbitzua zabaltzea erabaki dugu", esan du kiroletako zinegotzi Mikel Elkorok. Udalak jakinarazi du idatziz jasoko dela erabilera, higiene eta segurtasun neurriak zeintzuk beharko duten.

Eskaintza zabalik kanpokoendako ere

Elgetan erroldatuta ez dauden pertsonak ere baratze parkeko kide izateko aukera izango dute aurrerantzean. Aho batez onartu du udalbatzak ordenantzaren aldaketa. Hogei partzela ditu gaur egun baratze parkeak eta libre daude, oraindik ere, zortzi bat. Elgetarrek lehenatasuna izango dutela ere jasotzen du egokitua izan den arautegiak.



Elgetako baratze parkea. | L.Z.

Berrikuntzekin dator bi urte bete berri dituen Ipuinen Ordua egitasmoa

L.Z. | ELGETA

Otsailean bete ditu bi urte Udal Liburutegiko Ipuinen Ordua egitasmoak. Harrera ona dute boluntario talde baten eskutik egindako ipuin kontaketa saioek, eta berrikuntzekin dator 2016ko egutegia. "Eskaintza aberasteko helburuarekin 2016an bi adin tarte bereiziko ditugu. Batetik, 5 urtetik aurrerako haurrendako saioak eta bestetik bi urtetik gorako txikiendako tarteak", azaldu dute liburutegitik. Saio bakoitzak bi zati izango ditu: 16:40tik 17:15era 5 urtetik gorako neska-mutikoendako, eta 17:25etik 18:00etara 2 urtetik gorakoendako.

Dozena bat lagunek osatzen dute kontalari taldea, guztiak boluntarioak. "2014ko otsailean jarri genuen martxan egitasmoa. Hasiera batean bost saio finkatu genituen arren egitasmoak izan duen harrera paregabea eta haurren, gurasoen nahiz

boluntarioen balorazio positiboa tarteko saio berriak antolatzen jarraitzen dugu", adierazi dute Udal Liburutegitik. Emandako datuen arabera, 2015ean 217 egun egon da zabalik liburutegia, eta 2.915 erabiltzaile izan ditu, eta ekintzetan 639 pertsonak hartu dute parte.

Ipuin kontaketa tailerra

Liburutegiak antolatuta, martxoan irakurgaiak aukeratzeko eta lehen irakurleei ipuinak kontatzeko ikastaroa egingo dute Alabazan taldeko kideek Elgetan. Bina orduko hiru saio izango dira: martxoaren 3an, 10ean eta 17an, 17:00etatik 19:00etara. Ikastaroa doan da eta kontalari boluntarioek lehenatasuna izango dute. Interesatuak martxoaren 1erako eman behar dute izena liburutegian. Ludoteka zerbitzua eskainiko du Udalak, doan, parte-hartzaileen uimeandako.

Herrixa Dantzan, domekan, Txertubi taldearen zuzeneko musikarekin

KOMUNITATEA GOIENA | HERRIXA DANTZAN | ELGETA

"Hiruzpalau pieza berri joko ditugu emanaldi honetan: lotuan dantzatzeko zortziko bat, taldean egiteko eskotixa, korroan egiteko bals-kontradantza bat, eta Espaloiko tabernariaren oparitxoa. Horiez gain, ohiko erreperitorio anitza: balsa,

mazurka, eskotixa, jota, porrusalda, jauziak, korroko dantzak, kontradantzak, joko-dantzak, sokak, irradakak...

Sarrera doan da eta parte-hartzea libre. Laguntzailea: Elgetako Udala". Patxi Montorok gidatuko du saioa, eta ordu eta erdiko dantzaldia izango da 19:00etan hasita Elgetako Espaloia kafe antzokian.

Bihar aurkeztuko dute apirilaren 24ko Erresistenteen Eguna

Errepresaliatuak eta erresistentziako kide izan ziren emakumeak omenduko dituzte Elgetako Erresistenteen Egunean, apirilaren 24an, frankistak herrian sartu ziren egunean, justu. Ekitaldien aurkezpena egingo dute antolatzailaiek bihar, zapatua, 17:00etan, Espaloia kafe antzokian. Eta 21:30ean kontzertua eskainiko du El Drogas & (Des)Memoria Band taldeak.

Martxoaren 4rako deitu dugu urteko batzar orokorra

KOMUNITATEA GOIENA | KALBADORPE ELKARTEA | ELGETA

"Batzarra 17:30ean da Ozkarbi elkartearen. Gai zerrendan ditugu: 2015eko diru kontuak eta ekintzen azalpena, 2016rako proposamenak... Etortzeko eskaera egiten dugu bazkideen parte-hartzea garrantzitsua delako. Bukarera pintxoak egongo dira".

Dozena bat lagun interesatuta Aisa harrera ikastaroarekin

Euskara ezagutzen ez dutenendako da Aisa harrera ikastaroa, eta taldea osatzeko izen-emate deialdia egin zuen Udalak Uemarekin elkarlanean orain bi aste. Tarte horretan Elgetako dozena bat lagunek agertu dute interesa. Hurrengo pausoa izango da parte-hartzaileekin adostea ikastaroaren ordutegia zein izango den.

Areto futbol txapelketako beste bi partidu bihar

Aurrera doa Elgetako areto futbol txapelketa, eta aste bukaeran ligaxkako laugarren eta azken aurreko jardunaldia jokatu dute Jaitxo, Nahaste Borraste, Astuan Villa eta Kokotxa taldeek. Azken orduko aldaketarik ezean 16:00etan eta 17:00etan jokatu dira bi norgehiagokak, frontoian. Tzibaz United taldeak egingo ditu epaile lanak.

OHARRAK

BISITA GIDATUAK

Hilaren 28an eta martxoaren 6an, 10:00etan. Izen-emateak: 943 79 64 63 / 943 71 89 11.

GARBIGUNE IBILTARIA

Salbador kaleko plazan izango da, eguaztenean, martxoak 2, 10:00etatik 21:00etara.

HITZALDIA

Andaluziako langileen sindikatuko ordezkariak (SAT) Elgetako udaletxean izango dira, eguaztenean, 19:00etan.

LEINTZ GATZAGA

Hilabetean bukatuko dituzte paretako obrak

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Jausitako lurra erretiratu ondoren, aparkaleku berriko paretak berrekitzeko obrak egiten dihardu Zubieder enpresak. Eguraldiak eragozpenik eragin ezean, hilabetean bukatuko dute konponketa. Oraingoan, harri bitartez egonkor-tuko dute magala, atzera ere behe-

ra etor ez dadin. 800 eta 1.500 kilo arteko harriak dabilta erabiltzen horretarako, Arrasateko Kobate harrobitik ateratakoak. Eta menditik datozen urak bideratzeko-lurjausia eragin zutenak- drainatze azpiegiturak egokituko dituzte.

Urtarrilean etorri zen behera paretan, orduko eurien ondoren.



Enpresakoak obretan. | UBANE MADERA

LEINTZ GATZAGA

'Leintz Gatzaga ezagutzera dator!' saioa, egunean

Goiena telebistak ekoiztutako *Leintz Gatzaga ezagutzera dator!* saioa martxoaren 3an emitituko da. HUHEZIKO ikasleek egindakoa da, eta udalerrriaren nondik norakoak ezagutzen laguntzeko Eugenio Otsoren, Aitor Larrañagaren eta Ander Larrañagaren laguntza izan dute. 22:00etan izango da emisioa.

LEINTZ GATZAGA

Jakoba Errekondo Gatz Museoa egongo da egunean

Jakoba Errekondo agronomo eta paisajistak *Bizi Baratzea* liburua aurkeztuko du Gatz Museoa datorenean, martxoaren 3an, 18:30ean. Ondoren, bertaratutakoek galderak egiteko aukera izango dute: fruta-arbolen gainean, baratzearen gainean... Sarrera libre da.

ATLETISMOA

Euskadiko Txapelketan sasoi ona berrestera

Malen Ruiz de Azua: "Helburua datorren astean Espainiako Txapelketa absolutuan aurrean egotea da"

XABIER URZELAI | ARRASATE

Arrasateko pertika-jauzilariak sasoi on daude, eta sasoi on hori berresteko hitzordua izango dute asteburuan, Donostian jokatu duten Euskadiko Txapelketa absolutuan. Urteko hitzordu nagusietako baten atariko izango da, martxoko lehen asteburuan Madril batuko dira eta erreferente guztiak, erreagatik borrokan.

Hain zuzen, Malen Ruiz de Azuak eta Istar Dapenak joan den asteburuan erakutsi zuten gorputzaldi onean daudela, Anoetan jokatu duten promesen mailako Espainiako Txapelketan: "Txapelketa borobila izan zen. Hasi-ratik ikusi genuen Malen gainontzeko kontrarioekin alde-ratuta beste maila batean zegoela, eta Istarrek erronka polita zuen. Zazpi-zortzi atleta zeuden maila onekoak, eta bost metroko saltoa eginda (5,01) nabarmendu



Malen Ruiz de Azua urrezko dominaz, Jonathan Perez entrenatzaileaz. | AATLETIKO

DATUA

4,21

METRO

Promes mailako txapelketako errekor berria ezarri zuen Malen Ruiz de Azuak, duela 17 urtetik Mar Sanchezen jabetzan zegoena.

egin zen, ia txapelketa irabazte-raino", adierazi du aste barruan, Anoetan, entrenatsetik bueltan zetorren Jonathan Perezen entrenatzaileak.

Emakumezkoetan Ruiz de Azuarendako izan zen urrezko domina 4,21 metroko saltoa egin ostean -txapelketako errekor berria ezarri zuen Arrasatekoak, 1999tik Mar Sanchezen jabetzan zegoena-. Lehenagotik 4,08 metro-

ko marka zeukan Ruiz de Azuak; horrenbestez, pentsa zelako aurre-rapausoa eman duen. 4,21eko marka gainditzeko ahaleginean listoiak dar-dar egin zuen, eta ikusleak arnasari eutsi ezinka geratu ziren, listoiak gelditu geratu zen arte.

Jarraian, 4,26ko saltoa egiteko ahaleginean, Ruiz de Azuak lehenengo saiakeran izan zuen helburua gertuen, baina ez zuen lortu; dena dela, Super Amara BAT taldeko atletak bere esku dauka marka hori. Posible izateaz batera erreferentziatzeko salto izango litzateke, promesen mailan Espainiako markarik onena izango litzatekeelako. Laura Clemente izan zen bigarrena (3,85) eta Monica Clemente hirugarrena (3,75): "Gustura nabil, oraino asteburuan sentazio on horiek berretsi gura ditut, baina garrantzitsuagoa izango da datorren astean ondo ibiltzea, Madrilan".

Istar Dapenak 5 metro oster

Istar Dapena ere txapelketako beste erreferenteetako bat izan zen, oster ere bost metroko marka gainditzeko kapaz izan zelako (5,01). Txapelkun geratu zen Ricard Clement kataluniarrak 5 zenti-metro gorago gainditu zuen listoiak (5,06) eta Jonathan Perezen ikasleak zilarrezko domina jantzi zuen. Hirugarren postua, berriz, Castelloko Emilio Izquierdorendako izan zen (4,96). Oraingo asteburura Arrasateko espedizioari Maialen Axpe batuko zaie.



Zeziaga barneraketa bat egiten, kontrarioz inguratuta. | GOIENA

SASKIBALOIA

Larreategi: "Dinamika positiborik ez badago, ezinezkoa da liderra mendean hartzea"

Joan den astean Ardoiri irabazi ostean, MUK Errioxako talde Clavijo hartuko du Iturripen bihar

XABIER URZELAI | ARRASATE

MUK mutilak lider zegoen Ardoi mendean hartzeko gauza izan ziren joan den astean, eta horrek ematen duen bultzadak on egingo die zapatuko (Iturripen, 18:00) norgehiagokara begira: "Taldeen dinamika positiborik ez badago, ezinezkoa da liderra mendean hartzea. Taldea ondo entrenatzen dabil, ondo lehiatzen ari gara... Ez daukat inongo kezarrik. Esango nuke, gainera, jokalariek hauek dituztenak baino 2-3 garaipen gehiago merezi izan dituztela, baina merezi izatea ez da nahikoa", adierazi du aste

barruan taldeko entrenatzaile Josu Zubiak.

Kontrario zuzena da Clavijo

Asteburura begira, eskoriatzarrak zapatuko partiduaren garrantzia azpimarratu zuen: "Kontrario zuzena da. Gu baino garaipen bat gehiago dute, baina euren kantxan irabazi egin genien, eta zapatuan irabazita atzean utziko genituzke. Talde teknikoak da, baina aldi berean gaztea, eta horrekin jokatzeko jakin beharko dugu. Gainera, taldea indartu egin dute, Suediako jokalariek bat fitxatuta".

MENDIA

Arrasate-Udalatx lasterketako ibilbidea lagunartean egiteko topaketa domekan

Arrasateko plazan elkartuko dira, 09:00etan; deialdi irekia da

XABIER URZELAI | ARRASATEZ

Arrasate-Udalatx lasterketa antolatzen duen Mondraitz taldekoen eskutik topaketa egingo dute domekan (09:00etan Arrasateko plazan), eta helburu nagusia ibilbidea erreparatzea izango da: "Sare sozialetatik zabaldu dugu deialdia, eta lagunartean goiz-pasa on bat egitea da asmoa. Parte-hartzaileei dagokienez, ehuneko handi bat bailarako jendea da, eta tartean arrasatear asko daude. Baina bailarako jendea izanda ere, beti egoten da inguruak ezagutzen ez dituenik, edo beste barik korrika



Iñigo Alzola. | ARTGAZKI

saio bat egin gura duenik. Gainera, gonbidatu bereziak izango ditugu: Oihana Kortazarrek baieztatu digu etorri egingo dela, eta baita Iokin Garai oñatiarrak ere", adierazi zuen astelehenean Har-mailatik saioan Iñigo Alzolak.

Domekakoa topaketa izango da, eta batzen den korrikalari kopuruaren arabera taldeak antolatuko dituzte: "Erritmo ezberdinetan korrika egiteko proposa da taldeak antolatzea, eta horrela lasaia ibiliko gara denok". Topaketa ez da lasterketan parte hartuko dutenei mugatu.

Saskibaloia maisu 'Iri' Arrasatera dator

ACBko entrenatzaile ohi eta Baskoniako harrobiarekin lan izugarria egin duen Iñaki Iriarte Arrasaten izango da martxoaren 3an, Ointxe!-ko mutilekin entrenamendu bat egiten. Talde nagusiko entrenatzaile Josu Larreategik harreman estua du Iñaki Iriarterekin, eta hark gonbidatuta etorriko da: "NBAn jokatu duten jokalariek asko pasa dira bere eskuetatik, eta Iñakiren ardura izan da jokalariek fintzea. Calderon, Scola, Splitter, Nocioni, Diop... bere eskuetatik pasa dira". Hala, Ointxe!-koek bailarako entrenatzaile, jokalariek eta saskibaloizaleak gonbidatu gura dituzte entrenamendu saio hori bertatik bertara jarraitzea. 21:00etan hasiko dute entrenamendua, Iturripen.



Iñaki Iriarte. | BASKONIA

FUTBOLA

Hirugarren mailako UDAk liderra hartuko du, eta Aloña Mendik Hernani kontrario zuzena

Bergarak azken hiru partiduak irabazi ditu, eta laugarren dago jada

XABIER URZELAI | ARRASATE

Aretxabaletak geroago eta tarte txikiagoa du partiduetan barkatzeko, eta geratzen diren 12 jardunaldietatik, Ibarren jokatu duten partidu bakoitza –guztira zazpi– finalizat hartu beharko dute, nahiz eta, oraingo domekan moduan, bisitari datorren taldea kategoriako liderra izan.

Zamudio denboraldiko momenturik onenean da, azken bost partiduak irabazita, eta Aretxabaletaren etxeko zenbakiak ez dira onak –garaipen bakarra–, baina egoera horri buelta ematen saiatu beharko dute Valleren eta Barkeroren mutilek (16:30, Ibarra).

Aloña Mendik ere etxean

Oñatiko taldeak etxean jokatu du bigarren astez jarraian, baina domekan (16:30), joan den astekoa baino kontrario gogorragoa izango dute, eurak baino puntu bat gehiago duen Hernani. Martuteneri emandako errepassoak, baina, morala igoko zien (4-0).

Bergarak, domekan

Erregional preferente mailan, Bergara jada laugarren postuan da, azken hiru partiduak irabazi eta gero. Domekan, jaitsiera pos-



Bolada onean da Bergara, sei puntu jarraian irabazita. | GOIENA

tuetatik urruntzeko borrokan dabilen Zumaiakoren kontra jokatuko dute (16:30).

Kategoria berean, Antzuolak eta Aretxabaletak ere etxean jokatuko dute. Antzuolarrek beheko postuetan kontrario zuzena den

Ilintxa izango dute aurrean (16:30, Estala), eta Aretxabaletak Beasainen kontra jokatuko du bihar (18:00). Mondrak, azkenik, bigarren postuagatik borrokatzen jarraitu beharko du, oraingoan Soraluzen (zapatua, 17:00).

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA
Aretxabaleta-Zamudio
Domeka, 16:30. Ibarra.

OHOREZKO ERREGIONALA
Aloña Mendi-Hernani
Domeka, 16:30. Azkoagain.

ERREGIONAL PREFERENTEA
Bergara-Zumaiako
Domeka, 16:30. Agorrosin.
Soralue-Mondra
Zapatua, 17:00. Ezozia.
Aretxabaleta-Beasain
Zapatua, 18:00. Ibarra.
Antzuola-Ilintxa
Zapatua, 16:30. Estala.

LEHEN ERREGIONALA, IGO.
Munibe-Bergara
Zapatua, 17:30. Berio.
Mondra-Ordizia
Zapatua, 15:30. Mojategi.

LEHEN ERREGIONALA, KOPA
Arizmendi-Soraluze
Domeka, 12:00. Ibarra.
Aloña Mendi-Eibartarrak
Zapatua, 18:00. Azkoagain.

OHOREZKO GAZTEAK

Urola-Aretxabaleta
Zapatua, 18:00. Argixao.
Mondra-Euskalduna
Zapatua, 17:30. Mojategi.
Zumaiako-Aloña Mendi
Zapatua, 15:45. Zumaiako.
Ilintxa-Bergara
Zapatua, 16:30. Legazpia.

EMAKUMEZKOEN LIGA

Arizmendi-Ordizia
Zapatua, 15:30. Ibarra.

ARETO FUTBOLA

EUSKAL LIGA
Gora Bilbao-Aretxabaleta UDA
Zapatua, 18:30. Bilbo.
Kukuyaga-Eskoriatza
Zapatua, 18:00. Etxebarri.

LEHENENGO MAILA
Lauburu-Pizza Per. Mondrate
Zapatua, 18:00. Ibarra.

EMAKUMEZKO SENIORRAK
Idiazabal-Eskoriatza
Gaur, 20:30. Idiazabal.
GIPUZKOAKO GAZTEAK
Egintza-Pizza Per. Mondrate
Zapatua, 12:00. Billabona.

ESKUBALOA

EUSKAL LIGAKO SENIORRAK
Hondarribia-Izarraitz Aloña
Domeka, 12:00. Hondarribia.
Urdaneta-Ford Mugarri
Zapatua, 20:00. Loin.

EUSKADIKO EMAK. GAZTEAK
Aloña Mendi-Kukullaga
Domeka, 12:00. Zubikoa.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA
Urola-Laztimestendi-Bergara
Zapatua, 18:00. Zumarraga.

GIPUZK. BIGARREN MAILA
Arrasate-Hondarribia
Domeka, 11:00. Iturripe.

SASKIBALOA

EBA
MU-Clavijo
Zapatua, 18:00. Iturripen.

EUSKAD. BIGARREN MAILA
Natra Oñati-Eroibide
Zapatua, 18:00. Zubikoa.

GAZTEAK, EUSKAL LIGAN
MU-Atletico San Sebastian
Zapatua, 12:00. Iturripe.

GIP. LEHEN MAILA
MU-Astigarragako Mundarro
Zapatua, 16:00. Musakola.
Soralue Bergara-Santo Tomas
Zapatua, 16:30. Labegaraleta.

GIP. HIRUGARREN MAILA
Aloña Mendi-Easo
Zapatua, 16:00. Zubikoa.

GAZTEAK ERRENDIMENDUA
Aloña Mendi-Cafes Aitona
Zapatua, 12:00. Zubikoa.
Soralue Bergara-Añorga
Zehaztu barik.

EMAKUMEZKO SENIORRAK
Eskoriatza-Donosti Dolphins
Gaur, 20:15. Manuel Muñoz.

DUATLOIA

ALOÑA MENDI TALDEAREN AURKEZPENA
Domeka, 12:00etan
Arrikruzten.

PILOTA

ARRASATE

Egubakoitza, 20:00etan
Gipuzkoako txapelketako
kadetako partidu bat.

Jarraian, kadete mailako
Euskadiko Txapelketako
finalerdia: Arrasate-Bergara

OÑATI

Egubakoitza, 19:00
Eskuz binakako partidu bat:
Aloña Mendi-Arrasate
Zapatua, 17:45
Hiru norgehiagoka.

ARETXABALETA

Egubakoitza, 19:30
Eskuz binakako kadetako:
Aretxabaleta-Arrasate.

BERGARA

Egubakoitza, 19:30
Udaberri Txapelketako finalerdia:
Bergara-Behar Zana (seniorrak).

DUATLOIA

Aloña Mendik taldearen aurkezpena egingo du domekan Arrikruzten

Oñatiko triatloi taldean nobedade garrantzitsuak dituzte aurten, besteak beste, Aloña Mendi barruan sartu direlako. Eta, hori igarri egingo da aurten soinean eramango dituzten koloreetan. Domekan (12:00) aurkeztuko dute taldea, eta martxoaren 12an egingo duten duatloiko –distantzia motzeko Euskadiko Txapelketa– xehetasunak ere emango dituzte.

PILOTA

Euskadiko kadete mailako txapelketako finalerdia, gaur, Arrasaten

Gaur, egubakoitza, 19:00etan Uarkapen hasiko duten jaialdian hainbat partidu jokatuko dituzte. Hasteko, San Juan txapelketa, 20:00etan Gipuzkoako txapelketako kadeteen partidu, eta ondoren izango da finalerdia. Eta hor, Arrasateko eta Bergarako pilotariak izango dira aurrez aurre. Muruak eta Egigurenek Etxanizen eta Gartziairen kontra jokatuko dute.

ERRUGBIA

Arrasate ARTk partidu bakarra galdu barik gainditu du fasea

Iazko liga irabazita, Arrasate erakusten dabil aurten ere aurrean ibiltzeko hautagaie-tako bat dela, nahiz eta pausoak banan-banan eman behar diren. Hasteko, lehenengo fasea partidu guztiak irabazita gainditu dute, eta datorren asteburuan hasiko dute fase berria. Bitartean, gaur, lagunartekoa jokatuko dute, Elorriorekin batera, Durangon.



Arrasateko pilotaria Uarkapen. | GOIENA

KARATEA



ALOÑA MENDI

Aloña Mendiko karateka koadrila polita Eibarren

Joan den astean zuten eskola mailako karate txapelketa Eibarren, eta Aloña Mendiko koadrila polita batu zen hitzorduan –erretatuan euretako batzuk baino ez daude–. Batu zituzten emaitza onen artean daude Arantzazu Regueiroren bigarren postua (katak), Alazne Unzurrunzagaren urrea kumitean, eta Leire Urkiaren eta Danel Casaisen bigarren postua kumitean.



Laboral Kutxa Baskonia Dominion Bilbao Basket

Partidurako 4 sarrera bikoitz ditugu

Martxoaren 6an, 19:30ean Buesa Arenan jokatuko den partidurako.

PARTE HARTZEKO (MARTXOAREN 2RA ARTE)

WhatsApp: [BASKONIA] [bazkidearen zenbakia]

688 69 00 07 zenbakira.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu bilaketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuak sartzea, hobe zuzentzeko edo eztertzeko. Hobe zuzentzeko edo eztertzeko helburu honetara idatzita: klub@goiena.com



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!



Amaia Txintxurreta
Kantariko aurkezlea.

5. ALDIA Kantari



Ikuskizunak Bergaran

Otsailaren 27an eta 28an Zabalotegin



Instagram* argazki lehiaketa:

Bergarako ikuskizuneko argazkiak bidali #goiena eta #kantari etiketak erabilita.

Saria: Tableta bat.

*Instagramek gomendatzen du bere aplikazioa 13 urtetik gorako umeek erabiltzea, Adingabeak Babesteko Pribatutasun Legearen arabera.



Oñatiko saioak Goiena Telebistan!

Oñatiko lehen saioa:

Martxoak 12, zapatua, 10:30 eta 20:00
Martxoak 13, domeka, 16:30
Martxoak 14, astelehena, 19:00
Martxoak 17, eguena, 13:30

Bigarren saioa:

Martxoak 12, zapatua, 16:30
Martxoak 13, domeka, 10:30 eta 20:00
Martxoak 15, martitzena, 13:30
Martxoak 18, egubakoitza, 19:00

Hirugarren saioa:

Martxoak 19, zapatua, 10:30 eta 20:00
Martxoak 20, domeka, 16:30
Martxoak 21, astelehena, 19:00
Martxoak 24, eguena, 13:30

Laugarren saioa:

Martxoak 19, zapatua, 16:30
Martxoak 20, domeka, 10:30 eta 20:00
Martxoak 22, martitzena, 13:30
Martxoak 25, egubakoitza, 19:00

Bosgarren saioa:

Martxoak 26, zapatua, 10:30 eta 20:00
Martxoak 27, domeka, 16:30
Martxoak 28, astelehena, 19:00
Martxoak 31, eguena, 13:30

Seigarren saioa:

Martxoak 26, zapatua, 16:30
Martxoak 27, domeka, 10:30 eta 20:00
Martxoak 29, martitzena, 13:30
Apirilak 1, egubakoitza, 19:00

Zazpigarren saioa:

Apirilak 2, zapatua, 10:30 eta 20:00
Apirilak 3, domeka, 16:30
Apirilak 4, astelehena, 19:00
Apirilak 7, eguena, 13:30

Zortzigarren saioa:

Apirilak 2, zapatua, 16:30
Apirilak 3, domeka, 10:30 eta 20:00
Apirilak 5, martitzena, 13:30
Apirilak 8, egubakoitza, 19:00



Informazio gehiago: 943 25 05 05
<http://blogak.goiena.eus/kantari/>

goiena™

KULTURA



Udal Pilotalekuan egingo duten ikuskizunean parte hartuko duten kideak, zapatuan egin zuten entsegu orokorrean ateratako talde argazkian. | ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO

A. ARANBURUZABALA | BERGARA

Bergarako Orfeoia urtero du, ohiko kontzertuez gainera, proiektu berezi bat prestatzeko ohitura. Oraingoan, Karl Jenkins-en (Penclawdd, Britaina Handia, 1944) *Adiemus Colores* obra aukeratu du Aitor Biain zuzendariak. "Zerbait ezberdina egin nahi genuen, eta uste dut obra horrekin lortu dugula; izan ere, hainbat musika estilo nahasten ditu: tangoa, samba, bossa nova, balsa... Hego Amerikako, Espainiako eta Portugalgo musikari keinua egiten dio obrak. Orkestra sinfonikoa, gitarrak, baxua eta akordeoia ere nahasten ditu, eta horrek oso orkestrazio berezia sortzen du. Abesti guztiak oso entzungarriak eta erritmikoak dira".

Orain dela bi urte sortu zuen Jenkinsek aipatutako obra. "Orkestra eta abesbatzen munduan eskarmentu handiko konpositorea da. *Adiemus* proiektu edo sagan, aurrez bost lan egin zituen; aukeratu duguna, sortu zuen seigarrena da. Kantuen hitzak

'Adiemus Colores': herriko abeslariak eta dantzariak egindakoa

- ▶ 135 lagunek osatutako taldea izango da agertokian
- ▶ Udal Pilotalekuan eskainiko dute bihar 20:00etan

ere bereziak dira, ez dira ohiko kantuek; beraz, ez du testurik. *Vocalise* eran dago idatzita; beste modu baten esanda, kantuek ez daude hizkuntza baten idatzita, asmatutako fonemekin baizik, gaineratu du Biainek.

Dantzariekin egiteko proposa

Hamabi koloretan, hamabi pieza ezberdinetan dago obra osatuta. "135 laguneko taldea zuzenduko dut. Bergarako Orfeoia eta Orfeoia Gazteko abeslariak gainera, espresuki ekimen honetarako sortu dugun Ganbera Orkestra ere badago. Hiru bakarlariek ere izango dira: Ainara Uribesalgo (kontraltoa), Rafa Moñux (tenorra) eta Nere Ibarra (sopranoa). Argi genuen, baina, ikuskizunak dantzariak eskatzen zituela, eta herriko Candem Town dantza akade-

miakoei proposatu genien", dio Orfeoia zuzendariak.

"Gabonen aurretik etorri zitzaidan Karlos Etxaniz, Orfeoia lehendakaria, ideiarekin. Horrenbeste gustatu zitzaidan, segituan eman nion baiezkoa.

Lan handiko garaia izan da, baina guretzako garrantzitsua da beste kultura eragileekin jardutea", azaldu du Olmar Elejagak, dantza akademiako zuzendariak, eta zera gaineratu du: "Lau dantza egingo ditugu: Bollywood ezaugarriak dituen dantza garaikidea da lehenengoa; bals eta flamenco ukituak ditu bigarrenak; Broadwayko musikal baten antza du hirugarrenak; eta azkenekoa tango polit bat da. Askotariko adinetako 40 dantzari amateur gara. Erroka itzela izan da guretzako: ohiko jardunetik aldentzen delako, batetik, eta kantuen iraupenagatik, bestetik; pentsa, zazpi minutuko kantuen koreografiak buruz ikasi behar izan ditugu!".

Sarrerak, aurrez eta leihailan

Pikupe.com eta *Kutxabank.es* atarietan eta Pikuperen bulegoan (Artekale 7) eskura daitezke sarrerak. 10 eurotan daude, palkorako eta beheko jarlekuetarako, eta zortzi eurotan beheko aulkietarakoak.



Rafa Moñux bakarlaria Aitor Biain zuzendariarekin.



Candem Town Dance Academyko akademiako dantzari gazteak.



Espresuki obrarako sortu dute Ganbera Orkestra.



Helduen eta gazteen orfeoiek abestuko dute elkarrekin.

ESANAK

"Esperientzia oso polita izan da eta emaitza ere ikusgarria izango da"

AITOR BIAIN | ZUZENDARIA

"Luxua da herrian maila honetako ikuskizunetan parte hartzea"

OLMAR ELEJAGA | CANDEM TOWN

Sorkun | Abeslaria

"Nire buruarekiko disko zintzoa egitea lortu dut"

Bakarkako laugarren lanean, 'Ziklomorphosia'-n, bizipen gogorak doinu dantzagarriekin kantatu ditu Sorkunek

AITZIBER ARANBURUZABALA | OÑATI
Azaroan argitaratu zuen *Ziklomorphosia* diskoa aurkeztuko du, bihar, zapatua, Gaztelekuan, 22:30ean. Sarrerak gaur eguerdia bitartean bost eurotan eskura daitezke Oñatiko Ona eta Boga tabernetan eta Arrasateko Jai-zale tabernan. Leihatilan zazpi eurotan izango dira.

Plaza ezaguna eta gustukoa duzu Oñati.

Bai; Oñati beti izan da gure bidean. Lagun asko ditut han; bertakoa da garai baten taldekide izan nuen Egoitz Olalde bateria jolea.

Bakarkako laugarren diskoa duzu. Gustura emaitzarekin?

Emanaldi gutxi egin ditugu. Abenduan lau aurkezpen-kontzertu egin genituen eta otsailaren 13an abiarazi dugu bira. Oso azkarra izan da dena. Kashbäd-ekin bira bukatu eta segidan diskoa prestatzen hasi nintzen, apiril inguruan-edo izango zen hori. Entsegu gutxi batzuk egin, eta segituan estudioan sartu ginen.

Musikari profesionalak dituzu alboan.

Bai; hala da. Jazz arlokoak dira: baterian Juanma Urriza dago, Aritz Luzuriaga baxuan, eta gitarrarekin Mikel Romero eta Fredi Pelaez. Musika ibilbide oso luzea dute. *Jam session* baten ezagutu nituen. Sekulako samurtasuna dute entsegu gutxi batzuk eginda kantua barneratzeke. Diskoa ez da erraza jotzeko, eta zelako ondo geratu den ikusita, izugarri pozik nago!



Sorkun abeslariak bakarkako laugarren diskoa aurkeztuko du. | PROMOMUSIKA

"Musika alaiarekin kantuen hitz sakonak mozorrotu gura izan ditut"

Izenburu konplikatu aukeratu duzu, baina ikuspuntu pertsonaletik begirata, zentzu handikoa.

Ziklotimia eta *metamorfosia* hitzen arteko nahasketa da. Lehenengoa nik dudak gaitzaren izena da; umorearen gorabehera handiak

"Lan berriko kantuez gainera, zaharragoak ere abestuko ditugu"

sortzen ditu; sarritan, depresioarekin nahasten den gaixotasuna da. Gogorra izan da, baina poliki-poliki banoa gaindituaz. Bigarrenarekin, azkeneko urteetan bizi izan ditudan aldaketak gura nituen adierazi; horien artean,

gaur egun ama naizela. Azkeneko lana kaleratu nuenetik zazpi urte pasa dira, eta ordutik, gauza asko gertatu zaizkit.

Eider Rodriguez lagunari eskatu diozu kantuen hitzak idazteko.

Betidanik izan gara oso lagunak. Azkeneko zazpi urte horietan alboan izan dut eta prozesu osoa bizi izan du. Diskoa egiteko orduan, maila handiko euskarazko kantuak sortu gura nituela argi nuen, alboan nituen musikariaren kalitatezkoak izateko. Eiderri proposatu, eta pozarren onartu zuen. Gure artean kode estuak ditugu; beraz, esaldi edo keinu bat ematen nion eta handik sortzen zuen berak kantu osoa. Denetarik istorioak daude. Nire buruarekiko disko zintzoa da; horrela sentitzen dut nik.

Agertokian nola sentitzen zara?

Asko gozatzen dut. Musikalki gauza oso bereziak gertatzen dira lan honetan. Musikari oso onak dira eta asko errazten didate nire egitekoa.

Doinu dantzagarriak dira.

Musikaren eta hitzen arteko nahasketa bat egin gura nuen; izan ere, hitzak oso sakonak dira, baina ez nuen disko triste bat egin gura. Hitzen iluntasuna mozorrotu gura nuen, eta musikalki gauza ezberdina egitea ere bai. Dantzan modu friboloan egiteko asmoz baino, musikalki beste kolore bat emateko baizik. Askotariko estiloetako kantuak daude: jazz, funka, soula, reggaea...

Zazpi urteren ostean, nola hartu zaituzte zaleek?

Ikaragarri ondo! Durangoko Azokan egunero egon ginen goizetik arratsaldera, eta, egia esan, ez dut sekula horrenbeste sinadura bota. Jende asko hurbildu zitzaidan diskoagatik zorientzen. Aberasgarria da zaleen iritzia zuzenean jasotzea.

Biharko kontzerturako ze asmo duzu? Izango da kantu zaharrentzako tokirik?

Duda barik; inori ez zaio gustatzen kontzertu batera joan eta dena material berria izatea. Nik, behintzat, ez dut gustuko. Bihar, Kashbäd-en bertsiorekin pare bat izango dira, *Onna* diskoko beste batzuk ere bai...

Eskolarteko Abesbatzen Topaketa larunbatean

KOMUNITATEA GOIENA | E. BALZATEGI
ARIZMENDI IKASTOLA | ARRASATE

Eskolarteko abesbatzen 28. Topaketa ospatuko da larunbatean Arrasateko Amaia antzokian. Debagoieneko 324 haur eta gazte kantari arituko dira bertan, zazpi abesbatza taldetan.

Debagoieneko zazpi talde

Amaia Udál Antzokian elkartuko dira aurten ere abesbatzen topaketan parte hartuko duten zazpi taldeak. Otsailaren 27an ospatuko da, arratsaldeko bostetan. Horietako lau ikastolakoak bertakoak izango dira eta gainerako hirurak, Oñatikoak. Arizmendi Ikastolaren aldetik, Santa Teresa, Arimazubi, Almen eta Gaztelupeko ordezkariak izango dira, eta Oñatitik, berriz, Urgain Eskola, Txantxiku Ikastola eta Elkar Hezi ikastetxea. Juantxo Zeberio piano jotzaileak eta Musikari taldeak lagunduta ospatuko da aurtengoa. Kantu ezagunak aipatuz, Ken Zazpiren *Gernikan* eta *Ilargia* abestuko dituzte, baita Zea Maysen *Negua joan da ta* ere, besteak beste. Joan zen ostiralean egin zuten kantariak entsegu orokorra, HH, LH eta BHko abesbatzek larunbaterako ahotsa prest izan zezaten.

DATUA

324
HAUR

Zazpi abesbatza taldetan arituko dira haur eta gazteak Arrasateko Amaia antzokian.

'Euspot' lehiaketarako lanak apirilaren 28rako izango dira

Sari banaketa ekitaldia maiatzaren 12an ospatuko da Aretxabaletako Arkupe Kultur Etxeko aretoan

IRATI ELORTONDO | ARETXABALETA
Euskarazko spot lehiaketak bete ditu jada bost urte eta aurtengo gaia Gipuzkoa barnealdeko turismoa izango da.

Bosgarren edizioa

Aurkeztu dute jada *Euspot* 2016ko 5. edizioa. Lanak apirilaren 28a baino lehen aurkeztu beharko dira *euspot.eus* webgunean eta sari banaketa ekitaldia maiatzaren 12an ospatuko da Aretxabaletako Arkupe Kultur Etxeko

Zaraia aretoan. Aurten, gainera, barnealdeak turismoarako eskaintzen dituen aukerak nabarmendu beharko ditu iragarkiak, eta, turismoaren arloan, Gipuzkoan lurralde oreka sustatzea da helburua. Iragarkiaren publikoa Euskal Herriko gainerako lurraldeetako biztanleak izango dira eta barne kontsumora bideratutako iragarkia izan beharko du.

Sari potoloak

Gutzira, *Euspot* lehiaketak berriz



Mondragon Unibertsitateko ikasleak, 5. edizioaren aurkezpenean. | ARTEMAN

ere 2.250 euro banatuko ditu sarritan. 14-18 urtetara bideratutako Gazteen saria eskuratuz 250 irabaz dezakete. Publikoaren saria 500 eurokoa izango da, baita Mondragon Unibertsitateko ikasleentzako spotik onena ere. Izan ere, lehia-

keta Euskal Herri osora irekia bada ere, Mondragon Unibertsitateko ikasleek ikasgai gisa egin eta garatu beharko dute euren spota. Azkenik, sari potoloena lortuta, Spotik onena, 1.000 eurokoa da.

Arrakasta pasa den urtean

2015eko lehiaketa arrakastatsua izan zela diote antolatzaileek, guztira 35 lan aurkeztu baitziren. Euskal Herri osoko autoreek eginak, eta, aurkeztutako lanen artean, 16-18 urte bitarteko nerabe eta gazteek eginiko 13 lan jaso zituzten. Aurtengo edizioaren helburua spot lehiaketa bermatzea da, eta euskararen panoraman erreferentziatzeko bilakatzea. Asmoa da gazteen sormena bultzatzea, ilusioa pizteko. Lehiaketa irekia da eta edozeinek har dezake parte; bertakoek, bailarakoek zein Euskal Herri osokoek, baita baldintzak betetzen dituzten munduko beste txoko batzuetako lagun taldeek ere. Pasa den urtean Kike Amonarriz hitzaldia ematera gerturatu zenez, aurten sorpresak ere ez direla faltako diote antolatzaileek.

Memoria kolektiboa eta norbanakoa astintzera dator El Drogas bihar Espaloia kafe antzokira

Proiektu honen birarako lau EP gertatu dituzte eta bat Elgetan banatuko dute, sarrerekin batera

OIHANA ELORTZA | ELGETA

Memoriarekin eta ahanzturaren lotutako kontzertua egingo du El Drogas musikariak bihar, zapatua, Elgetako Espaloia kafe antzokian. (Des) Memoria Band taldeko kideak izango ditu alboan, Flako Txarrena, Txus Maravi eta Brigi Duke. "Proiektu honetan ezinbestekoak dira, bai bertsoak moldatzeko orduan, bai zuzenekoetan; hortaz, haiek gabe ez du zentzurik", adierazi du musikari nafarrak.

Izan ere memoriari oso lotutako proiektu batekin dabil batekik bestera Txantreakoa. Madrilan, Etxarri Aranazen eta Iruñean eman dituzte kontzertuak, eta Elgetan egingo dute bihar. Proiektu pertsonala dela dio, amak oparitu zion Dulce Chacon idazlearen *La voz dormida* liburutik eta amari diagnostikatu zioten alzheimeretik eratorritakoa, eta memoria kolektiboarekin eta norbanakoarekin jolasten du. Hala, *La tierra está sorda* disko hamahiru kanta eta *Alzheimer*-eko lau dakartzate Espaloira. Asko, gainera, emakumeei eskainitakoak direla adierazi du El Drogasek.



El Drogas, (Des) Memoria Banda taldeko lagunak ondoan dituela. | NATA PIDO

(Des) Memoria Band taldearekin batera abian jarri duen proiektu honen arima letrak direla aitortu du El Drogasek, betiere instrumentuen babesarekin. Gainera, badaki Elgetan, Gerra Zibilaren hainbat borro-

kaldiren testigu den herrian, batzuk oso bereziak izango direla. Hain zuzen ere, kontzertu berezi honekin hasi gura dituzte udalak eta Intxorta 1937 elkar-teak frankistek Elgeta hartu zuteneko ekitaldiak.

EPa opari

Kontzertua 22:30ean hasiko da eta sarrerarekin, hamazazpi euro, EPA oparituko dute, lau abesti dituen diskoa. Egiten dabiltzan birarako lau EP gertatu dituzte eta horietako bat banatuko dute Elgetan.

BHKlip lehiaketa abian da, zortzigarrenez

O.E. | OÑATI

Zer da zuretzat konfiantza? galdera da Arizmendi Ikastolak antolatu duen aurtengo BHKlip bideo lehiaketako gaia.

Zortzigarren urtez antolatu dute lehiaketa. Aurtengoa ere Debagoien osoko DBHko hirugarren eta laugarren mailetan ikasten ari diren gazte-xoei zuzenduta dago eta ikasleen sormenean eragitea du helburu, ikus-entzunezko euskarria erabilita.

Zuretzat zer da konfiantza? galdera da gaia, objektua zuhaitza eta esaldia: *Zu modukorik ez dago munduan*. Lanak bi minutu izan behar ditu gehieenez, eta, Youtubera edo Vimeo-ra igo ondoren, helbide honetara bidali behar da esteka: komunikazioa@arizmendi.net.

Apirilaren 7a da lanak entregatzeko epea eta epaimahaiak irizpide hauek izango ditu kontuan, besteak beste, iritzia ematerakoan: originaltasuna; teknikoki irudi, soinu eta muntaiaren egokitasuna; gaiaren trataera eta musika. Bi sari emango ditu, dirutan, eta Ikuslearen Saria boto bidez aukeratuko da.

'GALDEGAZTE' GOIENA TELEBISTAN

Debagoieneko udalek, ikastetxeek eta Goiena Komunikazio Taldeak elkarlanean landutako egitasmoa da *Galdegazte*, 14-18 urte arteko gazteei zuzendutakoa. Hauxe da hurrengo saioaren aurrerapena.

Hesian barrutik, gidariaren ahotik



Ezkerretik eskuinera: Jokin Bereziartua (aurkezlea), Fran Urias (Hesian taldeko abeslaria), Iratxe Urzelai eta Garazi Erostarbe (Oñatiko Zuazola-Larraña Institutuko ikasleak). | OIHANE ISASI

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Hegalak astinduz bira amaitu eta gutxira etorri da Hesian taldeko abeslari Fran Urias Goiena telebistara, *Galdegazte*-ra "Oso ongi joan da, oso bira polita izan da. Diskoa irten zenean ilusio handia genuen bira egiteko; kontzertuetan publikoa oso gustura ikusi dugu eta disko berriko abestiek harrera ona izan dute". Aurten hamar urte bete ditu Hesianek, eta, Uriasen arabera, "zerbait berezia" egingo dute, baina oraindik ez dute ezer erabaki: "Durangoko Azokarako zerbait berezia argitaratzea, kontzertu edo jaialdi bereziren bat egitea... Sukaldeko lanean ari gara; aurreratu nuke zerbait, baina ez dut hankarik sartu nahi...".

Bihar, hilak 27, Durangon ospatuko den *40 minutu rock* jaialdian egongo dira; jaialdiaren promoziorako egindako kantuan Arkaitz Estiballes bertsolariaren hitzei talde nafarrak jarri die musika: "Beti da esperientzia polita taldetik kanpoko idazle batekin lan egitea, asko ikasten da", adierazi du Uriasek.

Oñatiko Institututik

Oñatiko Zuazola-Larraña Institutuko Garazi Erostarbe eta Iratxe Urzelai izan dira Hesian-eko gidaria elkarrizketatzeko ardura hartu dutenak. Taldearen jarraitzaile direlako aukeratu zuten Urias elkarrizketatzea, eta, urduritasu-

nak urduritasun, "gustura" ibili dira Goiena telebistako platoon.

Esandako moduan, aurten hamarkada bat bete du Hesianek agertokien gainean, eta, atzera begiratuta, nostalgia puntuaz gogoratzen ditu Etxarriko musikariak hasierako urteak: "Oso urte politikak izan ziren. Hasieran, nahikoa zen guretzat entsegu lokaletik irten eta ondoko herriko gaztetxean kontzertua ematea. Gero, herritik irteten hasi ginen eta, adibidez, Bergarara jotzera etorrita ikusleek gure abestiak zekizkitela ikustea... Itzela da sentsazio hori, deskribatzeko zaila. Eta, aldi berean, sekula ahaztuko ez dudana".

Musika talde batek bizi dituen gorabeheren isla da Hesian, 20 musikaritik gora izan ditu eta hamar urteotan. Urias bera da hasierako taldetik geratzen den bakarra.



SAIOA IKUSTEKO:
GOIENA TELEBISTA

Eguaztena, martxoak 2
22:00etan.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aramaio. Baseria salgai Arraga auzoan. Lursailarekin. Interesatuok deitu zenbaki hauek: 615 71 02 07 edo 615 70 59 96

Zubillaga (Oñati). Eraikuntza berria. Bi logela, komuna, sukaldia, egongela, 35 metro koadroko terraza. 115 metroko lorategia. Garaje itxia. Igogailua garajetik. Guztiz jantzita. Interesatuok deitu zenbaki hauek: 660 04 06 14 edo 665 72 18 54

102. EROSI

Baseria erosi. Baseri bat erosi nahi da. Ez du axola baserriaren egoerak. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 663 80 50 14

104. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta. Etxebizitza bila gabiltza. Gela bakarrekoa, bikoa edo hirukoa. Bikote eskalduna. Eskerrik asko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 664 54 53 37

Arrasate edo Bergara. Bi logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 71 55 53

Arrasate. Bilogelako etxebizitza behar dit errentan, ahal bada, erdigunean. 688 29 97 05

Arrasate. Hiru edo lau logelako etxebizitza hartuko genuke errentan. 631 34 00 17

Arrasate. Hiru logelako etxebizitza hartuko genuke errentan. 605 46 19 26

Arrasate. Hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan, prezio onean. 698 47 41 33

Bergara. Etxebizitza bila nabil. Gela bakarrekoa edo bikoa, eta igogailua duena. 697 86 48 91

Bergara. Euskaldun bikote batek etxe bat hartuko luke errentan. Berdin da txikia bada ere. 649 65 06 39

La Pineda edo Cambrils. Bergarako familia bat gara eta abuztuan 15 egunez apartamentu bat hartuko genuke errentan La Pineda edo Cambrilsen. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 680 17 33 61

Oñati. Bi logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. 639 00 35 57

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Neska langilea logela bila. 688 82 69 68

Logela errentan Oñatin. Logela errentan ematen da erdigunetik oso gertu dagoen duplex berri batean. Pertsona arduratsua eskatzen da. Wifi konexioarekin. 656 74 29 49

3. LOKALAK

301. SALDU

Bergara. 130 metro koadroko lokala salgai erdigunean. Hainbat autorentako garaje moduan erabiltzeko lizentziarekin. 60.000 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 667 80 92 89

303. ERRENTAN EMAN

Bergara. Lokala ematen da errentan alde zaharrean, Arteka le 5ean. Bi solairukoa, guztira 150 metro koadro ditu. Errenta ekonomikoa. Negozioa jartzeko edo 18 urtetik gorako partikularrendako. 645 00 71 46

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate
Zerbitzaria behar da, esperientziaduna. Euskara beharrezkoa. 10:00-13:00 artean deitu. 677 52 48 34

Zabolain sagardotegia
Mahai zerbitzaria behar da asteburuetarako. 615 75 96 57

Ospitalera joateko laguntzailea. Hilean 4-5 aldiz gutxi gora behera, Txagorritxu eta Gurutzetako ospitalelara familia bat garraiatu eta laguntzaile lanak egiteko pertsona bat behar da. Arrazoi kulturalak medio, emakumea izan behar da. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 637 13 16 23

402. ESKAERAK

Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Etxean bertan bizi izaten umeak eta nagusiak zaintzeko gertu nago. Baita nagusiekin paseoa irteteko ere. Zerbitzari moduan hiru urteko esperientzia dut. Gozoki eta arropa dendatan edota taberna eta elkartek garbitzen ere bai. Lan egin beharra daukat eta segituan hasiko nintzateke. 676 44 85 58



Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokoosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:

- Matxitegi, 72m², 3 logela, igogailua eta trastelekua. 170.000€. Ez du obrarik behar.
- Lizaria, 50m², 2 logela, Eraikuntza berria. Garaiea barne. 197.000€. Eguzkitsua.
- Zabaltegi, 79m², 3 logela, igogailua, eguzkitsua. Ez du obrarik behar. 165.000€.
- Artzamendi, 75m², 3 logela, trastelekua eta garaiea. 153.000€. Ez du obrarik behar.
- Aranerrea, 80m², 3 logela, trastelekua, igogailua. 130.000€. Garaiea aukeran.
- Madura, 65m², 4 logela, bi balkoi. 110.000€. AUKERA ONA.
- Bidekuruzeta, 130m², 4 log., 320.000€. PREZIO JAITSIERA. Terraza, igogailu, patioa.
- Irizar, 93m², 2 logela, 2 balkoi. Erdialdean. 180.000€. PREZIO JAITSIERA.
- Ibagarai, 105m², 4 logela, balkoi. 420.000€. Garaiea aukeran.
- Arteka, 83 m², 3 logela, trastelekua eta igogailua. 155.000€. AUKERA ONA.
- Ernai, 52m², atikoa, 2 logela eta terraza handia. Etxebizitza tasatua. 178.000€.
- San Lorenzo, 85m², 3 logela, garaiea eta trastelekua. 150.000€.
- Koldo Eleizalde, 74m²+30m² garbata, duplexa egiteko aukera 170.000 €
- Koldo Eleizalde, 76m², 3 logela. Terrazarekin. 115.000€. NEGOTZIA GARRIA.
- Koldo Eleizalde, 87m², 3 logela, oso ondo apaindua. Fatxada berri. 210.000€.
- Burdinata, 93m², 3 logela, igogailua. 210.000€. PREZIO JAITSIERA. Garaiea aukeran.
- Mestereka, 72m², duplexa. 150.000€. ESTREINATZEKO. AUKERA ONA.
- Simon Arrieta, 68m², 2 logela, 80 m²ko terrazarekin. 132. 600€.
- Simon Arrieta, 82m², 3 logela. Igogailuarekin. 160.000€.
- Zubiate, 125m², terraza eta 2 ortuekin. Bi etxe egiteko aukera. 192.000€.
- San Pedro, 90m², 4 logela. 95.000 €. AUKERA ONA.
- Zabaltegi, 80m², 2 logela, berri. 156.263€.
- Zabaltegi, 62m², 3 logela. Berri. 80.000€.
- San Antonio, 86m². 3 logela, trastelekua eta garaiearekin. Igogailua. 204.000€.
- Zubiarre, 60m², 2 logela, trastelekua eta igogailua. 98.000€. AUKERA ONA.
- Ibarra, 62m², 3 logela. Trastelekua. 86.000€. PREZIO JAITSIERA. AUKERA ONA.

ANGIOZAR:

- Etxebizitza, 60m², 2 logela, erabat berri. Trastelekuarekin. 92.000€.
- Baseria, 233m². Lur sailak eta etxebizitza egiteko baimenarekin. 250.000€.
- Errelega aldogai. Errelegi bezala erabiltzeko dena hornitua eta martxan.

OSINTXU:

- Osintxu, 85m². 3 logela. Igogailua. Berri. 130.000€. AUKERA BIKAINA.
- Osintxu, 61m². 3 logela eta trasteroa. BERRITZEKO. 43.000€. AUKERA BIKAINA.
- Osintxu, 70m². 2 logela eta igogailua. 62.000€. AUKERA BIKAINA.

ANTZUOLA:

- Buztin-zuri, 65m², 2 logela. Ez du obrarik behar. 180.000€. Garaiea aukeran.
- Errekalde, 78m², 3 logela, Berri. 130.000€. Garaiea aukeran.
- Ibarrodo, 90m², 3 logela. Trastelekua, eguzkitsua. 190.000€. Garaiea barne.

ELGETA:

- Gudarien Bidea, 75m², berri. 72.000€. AUKERA BIKAINA.
- Torrealeña, 77m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatu 150m² + 45m² garaiea + 90m² lursaila.

ZURE IRAGARKIAK

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak
Eguztzeneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak iragarriko ditugu. Hortik aurrera, ez du onartuko aldaketarik edo iragarkia bertan behera uzterik. GOIENAK ez du iragarkien ondoko operazioen erantzukizunik.

Dendaria behar da Arrasaten

Dendan esperientzia izatea eta euskara beharrezkoak. Teknologia berriak erabiltzea eta pertsona dinamikoa eta ekintzailea izatea baloratuko da. Bidali curriculumak helbide honetara: 139 posta kutxa (20500 Arrasate)

Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza. Erizain titulua daukan mutil euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko prest. Dependentsiadun pertsonak zaintzen eskarmentuduna. 622 69 98 13

Arrasate. 48 urteko emakume euskalduna, etxeko etxeko zerbitzuko laguntzailea eta arlo horretan esperientziaduna, orduka nagusiei laguntzeko prest. Telefonoa: 605 71 50 14 (Maribel)

Arrasate. Bertako emakume, euskalduna, orduka edo egun osoz lan egiteko gertu: umeak edo nagusiak zaintzen zein etxeko lanak egiten. 688 66 76 91 edo 943 79 60 89

Arrasate. Mutila gertu nagusiak edota laguntza behar duen jendea zaintzeko. Esperientzia dut. 632 08 57 69

Arrasate. Neska gertu goizetan nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko. Deitu zenbaki honetara: 655 15 36 59

Arrasate. Orduka lan egiteko garbiketarako egiten edo nagusiei laguntzen. 698 47 41 33

Bergaran eta inguruan. Mutila sukalde laguntzaile moduan lan egiteko gertu. Esperientziaduna. 687 69 71 86 (Jesus)

Debagoiena. Andrea prest adineko pertsona zaintzeko, garbiketarako edo sukaldari laguntzaile izateko. Tel.: 691 03 25 02

Debagoiena. Arrasaten bizi den emakume pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Etxeko lanak egiten ere lan egiteko nuke. Orduetegi aldetik ez daukat arazorik. 629 06 94 11

Debagoiena. Banatzaile, gidari, mezulari, dendako kuxan edo apalak betetzean, zerbitzari, margotzen edota etxeko langile moduan jarduteko gertu nago. Autoa daukat. 634 29 33 69

Debagoiena. Emakumea gertu lan egiteko. Esperientzia handia ostalaritzan. Gertu baita ere bestelako lanetarako. Autoa daukat. 663 43 92 53

Debagoiena. Emakume alerako gertu. Nagusi edo umeak zaintzen, garbiketara edo etxeko lanak egiten. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Baita baserrietan ere. Lege agiriak dauzkat. 606 64 16 09

Debagoiena. Erizain laguntzaile ikasketak dituen neska arduratsua, nagusiak edota laguntza behar duten pertsonak zaintzeko gertu. 620 23 58 15

Debagoiena. Esperientzia eta erreferentzia onak dituen mutila zaintza lanetarako gertu. Etxeko lanak egiten eta bertako jana prestatzen ondo moldatzen naiz. Autoa daukat. Etxean bertan bizi izaten, gauak egiten, edo edozelako orduetegiarekin. 662 43 08 54

Debagoiena. Esperientziadun mutila pertsonen zaintzan lan egiteko gertu, orduka. Soziosanitario ikasketak egiten ari naiz. 634 94 31 59

Debagoiena. Esperientziadun neska gertu nagusi eta umeak zaintzeko. Etxean bertan bizi izanda, egun osoz edo orduka. 632 66 13 22

Debagoiena. Etxeak garbitu, lisatu, umeak zaindu, nagusiak zaindu eta kalera lagundu, tabernako sukaldetan lagundu eta abar egiteko prest nago. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. 634 84 41 94

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egiteko nuke, zaintzan. Arrasaten bizi naiz. 697 22 80 04

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egiteko nuke. Baita asteburuetan ere. Deitu zenbaki honetara: 722 28 81 56

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten lan egiteko nuke. 631 46 41 76

Debagoiena. Etxeko eta baserriko lanetan, nagusiak zaintzen zein denetarik garbiketarako egiten lan egiteko nuke. Bertan bizi izaten edo bestela. 608 49 89 95 (Judith)

Debagoiena. Gizarte laguntzailea naiz eta umeak eta nagusiak zaindu edota etxeko lanak egiteko gertu nago. Umeak zaintzen esperientziadun. Autoa daukat. 686 59 28 41

Debagoiena. Gizona prest margo lanak egiteko, zerbitzari edota adineko pertsonak zaintzeko. Tel.: 697 88 35 62

Debagoiena. Lan bila nabil. Lan ezberdinak egiten gertu nago. 631 05 58 21

Debagoiena. Lan bila nabil. Nagusiak zainduko nituzke etxean bertan bizi izaten, baita garbitasun lanak egin ere. 40 urte ditut eta eskarmentua daukat antzeko lanetan. 602 06 80 31

Debagoiena. Lan egiteko nuke umeak eta nagusiak zaintzen. Orduka ere bai. Garbiketara lanak ere egiteko nituzke. 639 34 70 53

Debagoiena. Leuntze lanetan esperientzia duen mutila lan bila: automozioan, autoen llantak, tronpeten piezak eta abar. 631 05 41 08 / 943 04 77 58 edo arjungr2013@outlook.es (Arjüng)

Debagoiena. Mutila gertu etxean bertan bizi izaten lan egiteko. Hiru urteko esperientzia daukat eta agiriak aurkez ditzaket. 678 25 95 46

Debagoiena. Mutila gertu

etxean bertan bizi izaten nagusiak zaintzeko. Umeak zaintzen, garbiketarako egiten edo sukaldari laguntzaile ere lan egiteko nuke. 685 64 85 64

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzeko, mekanikari, ostalaritzan eta abarretan. Ikasketak ditut. Kontratuarekin. 674 50 83 61

Debagoiena. Mutila gertu zaintza lanak edota garbiketarako egiteko. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izaten. 638 85 43 36

Debagoiena. Mutila nagusiak zaintzeko gertu. Esperientzia daukat eta sukaldetan ere ondo moldatzen naiz. Autoa daukat. 647 01 74 66 (Cristino)

Debagoiena. Nagusiak zaindu eta garbiketara lanak egiteko gertu nago. 679 30 12 37 (Arelis)

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke etxean bertan bizi izanda. Erreferentziak aurkez ditzaket. 39 urteko neska nikaraguarra naiz. 631 72 38 40

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko gertu nago. Arratsaldetan orduka edo asteburuetan. 622 24 86 64

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta garbiketarako egiten ari zeko gertu nago. Esperientzia daukat eta erreferentziak aurkez ditzaket. 686 44 70 38

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egiteko nuke etxean bertan bizi izaten edo bestela. Esperientzia dut eta erreferentziak aurkez ditzaket. 631 14 27 02

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egiteko nuke, etxean bertan bizi izaten edo bestela. 617 72 94 98 (Rosario)

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egiteko nuke, orduka. 639 02 00 81 edo 632 98 17 79

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egiteko nuke. Esperientzia daukat. Sukaldetan ondo moldatzen naiz. Autoarekin. 660 90 51 50 (Argelis)

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, garbiketarako egiten eta abarretan lan egiteko nuke. 616 35 54 96 (Carmen)

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, garbiketara eta sukaldetan laguntzaile moduan lan egiteko nuke. Manikura egiten ere badaikit. 688 71 55 53

Debagoiena. Nagusiei laguntzen, umeak zaintzen, tailerretan, lantegiak garbitzen zein bestelako lanetan aritu izan naiz. Orduetegi aldetik arazo barik. 647 10 58 72 edo 943 79 96 25

Debagoiena. Neska gertu nagusi edo gaixok zaintzeko. Eskarmentu handia dut eta geriatría titulua. Bestela, etxetan orduka zein jardun osoz ere lan egiteko nuke. 600 00 51 60

Debagoiena. Neska gertu nagusiak edo umeak zaintzeko eta baita garbitasun lanak egiteko ere. Orduetegi arazo barik. 639 34 70 53

Debagoiena. Neska gertu ume edo nagusiak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko ere. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. 638 12 30 22

Debagoiena. Neska gertu umeak eta nagusiak zaintzeko. Baita garbiketara lanak egiteko ere. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. 689 10 48 38

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen esperientzia daukan emakumea, orduka edo etxean bertan bizi izaten lan egiteko prest. Aurretik lan egindako familien erreferentziak aurkez ditzaket. 666 07 49 24

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen eta garbiketara lanak egiten esperientzia daukan emakumea, orduka pertsona nagusiak edo garbiketara lanak egiteko prest. 632 85 12 14

Debagoiena. Urte askoan jendaurrean lan egindako emakumea lanerako gertu. Dendan edota nagusiak zaintzen, garbiketara eta abarretan ere lan egiteko nuke. Etxean bertan bizi izanda, jardun osoz edo orduka. Orduetegi arazo barik. 665 35 38 11 (Idalma)

Debagoiena. Zerbitzari moduan edo nagusi eta umeak zaintzen lan egiteko nuke. 629 29 11 23

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Aretxabaleta. Marrazketa artistikoko klaseak jasotzeko, pertsona baten bila nabil. 629 98 42 56

Arrasate. Txinerako eskola partikularrek emango dizkidan norbait behar dut. Egubakoitzean, 17:00etatik 18:30era izango litzateke. 630 40 55 95

Bergara. Goi mailako ikasketentzat eskola partikularrek jasotzeko. 605 26 24 62

6. MOTORRA

602. EROSI

Autokarabana erosiko nuke. 10.000 euro baino gutxiagoko autokarabana erosiko nuke. Zaharra bai, baina barrutik zein mekanika aldetik ondo zaindua behar du. 660 43 64 29

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Txakurkumeak opari. Ama Bordel Collie bikaina da. Martxo erdialdera arte amarekin egongo dira. Deitu lasai zenbaki hauek: 675 70 82 05 edo 635 20 09 53

8. DENETARIK

802. EROSI

Mendirako bizikleta. Bigarren eskuko mendirako bizikleta erosiko nuke. Merkea. 653 70 84 09

Mendirako eskiak. Bigarren eskuko trabesiarako eskiak erosi nahiko nituzke. Tel.: 628 51 22 78

Motozerra. Motozerra elektriko erosiko nuke. 656 75 76 98

806. GALDU

Txamarra trukakuta Oñatin. Otsailaren 6an, zapatuan, nire txamarra hartu eta beste bat laga zuten Oñatiko Txaketa tabernan. Beltzak eta ileadun txanodunak dira biak; baina nire lumazkoa da. Nire itzuli eta zure hartzeko, deituz zenbaki honetara mesede: 662 04 46 80

9. HARREMANAK

903. DEIAK

Alemana praktikatzeko Bergaran. Alemana praktikatu ahal izateko, taldea sortu dugu Bergaran. Oraingo, egubakoitzero elkartzen gara 18:30etik aurrera. Gurekin alemanez berba egiteko interesa baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan. 663 65 76 06 edo maitemungica@yahoo.es

904. BESTELAKOAK

ZORION AGURRAK



OÑATI
Aine Martinez Lopez
Martxoaren 3an, 2 urte.
Zorionak, maitia! Oso ondo pasatu zure eguna eta musu handi bat, familiako denen partetik.



ARETXABALETA
Oier Urkia Lezeta
Martxoaren 2an, 6 urte.
Zorionak familia osoaren partetik, eta ondo-ondo pasatu zure egunean!



OÑATI
Eneko eta Maider Alberdi Gil
Otsailaren 28an, 9 urte. Zorionak, bikote! Ondo pasatu zuen egunean eta muxu potolo bat etxekoan partetik.



OÑATI
Anje Gezalaga Rodriguez
Otsailaren 27an, 2 urte.
Zorionak, maitia! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Muxu handi bat, familia osoaren partetik!



BERGARA
Laiatz Agirre Igarza
Otsailaren 26an, 5 urte.
Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu eta zorionak beti! Patxo handi bat etxeko danon partetik.



ARRASATE
Eider Balantzategi Eiro
Otsailaren 26an, 4 urte.
Zorionak, *bitxo!* Oso-oso ondo pasatu zeure egunean. Familia osoaren partetik, besarkada eta patxo handi bat.



BERGARA
Sara Sotil Barrio
Otsailaren 26an, 4 urte.
Zorionak, Sara! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu potolo bat etxekoan eta, bereziki, Aratzen eta Unainen partetik.



ARRASATE
Aitor Garcia Salaberri
Otsailaren 25ean, 4 urte. Zorionak, maitia! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Dinosaurio muxu erraldoi bat, etxeko danon partetik!



BERGARA
Malen Azkarate-Askasua Baleztena
Otsailaren 25ean, urtebete. Zorionak, gure txikixa! Muxu handi bat zure urtebetetzean, bereziki, Meiren eta Laiaren partetik.



ARETXABALETA
Aner Zugasti Herrera
Otsailaren 25ean, 10 urte. Zorionak, maitia. Dagoeneko esku biak bete dituzu. Horrela jarraitu. Hamar belarri tirakada eta muxu potoloak, Enekoren eta gurasoen partetik.



BERGARA
Igor Larrañaga Agirre
Otsailaren 25ean, 6 urte. Zorionak, Igor, Bergarako Jedi txikia! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzean. Patxuak, etxekoan partetik.



ARETXABALETA
Aimar Diez Castro
Otsailaren 24an, 9 urte. Zorionak gure etxeko mutiltxoari! Maialenen, Malenen, Iratiren eta Laiaren partetik.



ELGETA
Sebastiana Atorrasagasti
Otsailaren 24an, urtebetetzea. Zorionak, amama! Primeran pasatu zure urtebetetzea eta besarkada handi bat, familiaren partetik.



ARRASATE
Izaro Soto Acha
Otsailaren 24an, 11 urte. Zorionak, Izaro! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Muxu handi bat, etxeko denok partetik.



OÑATI
Ixiar Moreno Lana
Otsailaren 24an, 6 urte. Zorionak familia danaren partetik! Oso ondo ospatu zure urtebetetzea!



ARRASATE
Aimar Gomez Martins
Otsailaren 23an, 11 urte. Zorionak! Oso ondo pasatu! Muxu handi bat zure anaia Ibanen eta zure lehengusu Zoeren, Julenen eta Enderren partetik.



ARRASATE
Mara Garcia Martin
Otsailaren 23an, 3 urte. Zorionak, maitia! 3 urte! Primeran ospatuko degu!



ARETXABALETA
Jon Cano
Otsailaren 22an, 24 urte. Zorionak, tio Jon! Oso-oso ondo pasatu eguna! Asko maite zaitugu eta ez aldatu sekula. Mila muxu danon partetik baina, muxurik handiena Joelena da.



ARETXABALETA
Manex Gorrotzategi Urrutia
Otsailaren 21ean, urtebete. Zorionak, potxolo! Ze azkar pasatu dan. Segi alai-alai oin arte moduan. Patxo potolo bat, aitaoren eta amaxoren partetik.



ANTZUOLA
Izei Irizar Iztueta
Otsailaren 21ean, urtebete. Zorionak eta urte askotako, etxekoan partetik! Muxu potolo bat, polit hori!



ARRASATE
Libe Urionabarrenetxea
Otsailaren 20an, urtebete. Zorionak, txiki! Urteko bat bete du gure etxeko inurriak. Musu potolo bat etxeko igelaren eta saguaren partetik!



BERGARA
Nahia Rodriguez Lazkano
Otsailaren 20an, 2 urte. Zorionak, printzesa! Muxu eta besarkada handi bat, familiaren eta, bereziki, Enderren partetik!



BERGARA
Haizea Sanchez Roman
Otsailaren 19an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Espero dogu egun bereziki izatia zuretzat. Muxu potolo bat etxekoan eta, Tataren eta Heleneren partetik.



LEGUTIO
Josu Guinea Aiape
Otsailaren 22an, 6 urte. Arrasateko familiaren partetik: aitaoren, amamaren eta anaia Aratzen partetik. Zorionak eta larunbatean ondo-ondo ospatuko dugu zure eguna!



OÑATI
Auritz Regueiro
Otsailaren 19an, 9 urte. Zorionak, maitia, zure urtebetetzean. Oso ondo pasatu zure eguna. Muxu handi bat amaxoren, aitaoren eta lkerren partetik.



ARRASATE
Nagore Sasiain Loiti
Otsailaren 19an, 12 urte. Heldu da zure eguna! Izan zaitez zoriontsu zure urtebetetze egunean. Zorionak, bihotz-bihotzez, zure familia osoaren partetik.



BERGARA
Nahia eta Xabat
Otsailaren 18an, 5 urte. Zorionak, Nahia eta Xabat! 18an, 5 urte! Ugarrizako familiaren partetik.



OÑATI
Izar Arenaza Barriola
Otsailaren 18an, urtebete. Gure etxeko sorgintxuaren lehenengo urtebetetzian, patxo handi bat familixako danon partetik!



BERGARA
Aroa Aristegi Iturralde
Otsailaren 13an, 3 urte. Zorionak, printzesa! Segi horren bikaina izaten! Geroz eta ederragoa zara. Bihotzez maite zaitugu. Ilargiraino buelta eta askoz ere gehiago, maitia! Primeran pasatu zeure egunean. Aitana, Ender, Morgan, aita eta amatxo.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitez Goienaren ordezkartzen batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

ASTEAGOIENAN



Bergarako osoko bilkura ikusgai

Astelehenean 2016ko udal aurrekontuen gaineko osoko bilkura izango da Bergaran eta bertan eztabaidatu eta bozkatuko dituzte aurtengo aurrekontuak. Osoko bilkura oso-osorik erakutsiko da Goiena telebistan martitzen gauean. **'Bergarako osoko bilkura'** Martitzena, 22:00



'Txantxariak' haurrendako saioa

Urtxintxaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko lankidetzaren ondorioz, 3-8 urte bitarteko haurrentzako *Txantxariak* telebista saioaren kapitulu berriak sortu dituzte, eta Goienan ikusi ahal izango dira zapatuetan eta domeketan 09:30etan eta 16:00etan. **'Txantxariak'** Zapatua, 09:30

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 26	ZAPATUA, 27	DOMEKA, 28	ASTELEHENA, 29	MARTITZENA, 1	EGUAZTENA, 2	EGUENA, 3
12:00 Debagoiena zuzenean	09:00 Kantari	09:00 Kantari	12:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Arrasate ezagutzera nator!	09:30 Txantxariak	09:30 Txantxariak	13:00 Korapilo	12:30 Harmailatik	12:30 Osoko bilkura: Bergara	12:30 Galdegazte: Fran Urias
13:00 Korapilo	10:00 Korapilo	10:00 Korapilo	13:30 Debagoiena zuzenean	13:00 Txantxariak	13:30 Korapilo	13:00 Txantxariak
13:30 EKT	10:30 Kantari	10:30 Kantari	14:30 Berriak	13:30 Kantari 8	14:00 Debagoiena zuzenean	13:30 Kantari
14:00 Debagoiena zuzenean	11:00 Debagoiena zuzenean	11:00 Galdegazte: Malen Ruiz de Azua	15:00 Amaia DJ	14:00 Debagoiena zuzenean	14:30 Berriak	14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak	12:00 Astea iruditzen	11:30 Amaia DJ	15:30 Onein	14:30 Berriak	15:00 Ertzak: Elikadura	14:30 Berriak
15:00 Arrasate ezagutzera nator!	12:05 Arrasate ezagutzera nator!	12:00 Ertzak: Elikadura	16:00 Debagoiena zuzenean	15:00 Harmailatik	16:00 Zaindu zaitetz	15:00 Galdegazte: Fran Urias
15:30 Onein	12:30 Galdegazte: Malen Ruiz de Azua	13:00 Debagoiena zuzenean	16:30 Berriak	15:30 Onein	17:00 Kontzertua: Sueder	15:30 Onein
16:00 Debagoiena zuzenean	13:00 Onein	13:55 Astea iruditzen	17:00 Osoko bilkura: Oñati	16:00 Debagoiena zuzenean	18:00 Hurbilean: Porrotx	16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak	13:30 EKT 1	14:00 Arrasate ezagutzera nator!	18:00 Zaindu zaitetz	16:30 Berriak	18:25 Zorion agurrak	16:30 Berriak
17:00 Hurbilean	14:00 Ikusi irratia: Alex Gibelalde	14:30 Onein	18:30 Berriak	17:00 Berriak	18:30 Berriak	17:00 Ikusi irratia: Alex Gibelalde
17:30 Ur eta lur	15:00 Debagoiena zuzenean	15:00 Zaindu zaitetz	19:00 Kantari 7	17:30 Ertzak: Elikadura	19:00 Osoko bilkura: Bergara	18:00 Ur eta lur
18:00 EKT	16:00 Astea iruditzen	15:30 Galdegazte: Malen Ruiz de Azua	19:30 Amaia DJ	18:00 Hurbilean: Porrotx	19:30 Korapilo	18:30 Berriak
18:25 Zorion Agurrak	16:05 Txantxariak	16:00 Txantxariak	20:00 Debagoiena zuzenean	18:30 Berriak	20:00 Debagoiena zuzenean	19:00 Korapilo
18:30 Berriak	16:30 Kantari	16:30 Kantari	20:30 Berriak	19:00 Harmailatik	20:30 Berriak	19:30 Galdegazte: Fran Urias
19:00 Kantari	17:00 Korapilo	17:00 Korapilo	21:00 Debagoiena zuzenean	20:00 Debagoiena zuzenean	21:00 Debagoiena zuzenean	20:00 Debagoiena zuzenean
19:30 Arrasate ezagutzera nator!	17:30 Amaia DJ	17:30 Debagoiena zuzenean	21:30 Berriak	20:30 Berriak	21:30 Berriak	20:30 Berriak
20:00 Debagoiena zuzenean	18:00 Galdegazte: Malen Ruiz de Azua	18:25 Astea iruditzen	22:00 Harmailatik	21:00 Debagoiena zuzenean	22:00 Osoko bilkura: Bergara	21:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak	18:30 Arrasate ezagutzera nator!	18:30 Arrasate ezagutzera nator!	22:30 Debagoiena zuzenean	21:30 Berriak	22:30 Debagoiena zuzenean	21:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean	19:00 Debagoiena zuzenean	19:00 Ertzak: Elikadura	23:00 Berriak	22:00 Osoko bilkura: Bergara	23:00 Berriak	22:00 Leintz Gatzaga ezagutzera nator!
21:30 Berriak	19:30 Astea iruditzen	20:00 Kantari	23:30 Amaia DJ	23:00 Berriak	23:30 Osoko bilkura: Bergara	22:30 EKT
22:00 Osoko bilkura: Oñati	20:00 Kantari	20:30 Debagoiena zuzenean	00:00 Debagoiena zuzenean	00:00 Harmailatik	00:00 Debagoiena zuzenean	23:00 Debagoiena zuzenean
22:30 Debagoiena zuzenean	20:30 Amaia DJ	21:25 Astea iruditzen	00:30 Berriak	00:30 Debagoiena zuzenean	00:30 Debagoiena zuzenean	23:30 Berriak
23:00 Berriak	21:00 Osoko bilkura: Oñati	21:30 Galdegazte: Malen Ruiz de Azua	01:00 Berriak	01:00 Berriak	01:00 Berriak	00:00 Galdegazte: Fran Urias
23:30 Amaia DJ	21:30 Galdegazte: Malen Ruiz de Azua	22:00 Osoko bilkura: Oñati	01:20 Harmailatik			00:30 Debagoiena zuzenean
00:00 Debagoiena zuzenean	22:00 Debagoiena zuzenean	22:30 Amaia DJ				01:00 Berriak
00:30 Berriak	22:55 Astea iruditzen	23:00 Debagoiena zuzenean				
01:00 Arrasate ezagutzera nator!	23:00 Galdegazte: Malen Ruiz de Azua	23:55 Astea iruditzen				
	23:30 Arrasate ezagutzera nator!	00:00 Kontzertua: Sueder				
	00:00 Amaia DJ	01:00 Amaia DJ				
	00:30 Kontzertua: Sueder					

ARRASATE IRRATIA

Asteko gainbegiratu zapatuan eta domekan 10:00etan

Sorkun abeslariak Oñatiko gaztelekuan eskainiko du kontzertua bihar, zapatua, eta horri buruz astean irratian egindako elkarrizketa entzun ahal izango da asteburuan, 10:00etan, 107.7ko uhinetan. Sorkunen elkarrizketaz gain, asteko bestelako elkarrizketak ere entzun ahal izango dira.

'Amour' haur antzerkirako sarrerak zozketatuko dira

Martxoaren 5ean Amaia antzokian izango den *Amour* haur antzerkirako sarrerak zozketatuko dira egubakoitzean. Eguenean, berriz, Moby Dick bakarlariek gaztetxean emango duen kontzerturako sarrerak ere zozketatuko dira. Parte hartzeak bideak: 943 25 05 05 eta irratia@goiena.eus.


GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE			
Egubakoitza, 26	ALBERTO AZKOAGA	Ferrerias kalea, 1	943 79 15 15
Zapatua, 27	M.FCA. AZKOAGA	Iturriotz 17	943 79 79 99
Domeka, 28	FERNANDEZ	Maisu Aranbarri kalea, 1	943 79 22 26
Astelehena, 29	IRIZAR	Erguin, 11	943 79 12 39
Martitzena, 1	AMEZUA	Sta. Marina, 32	943 79 09 74
Eguaztena, 2	ESPAÑOL MORALES	Araba Etorb., 14	943 79 18 65
Eguena, 3	RUIZ	Nafarroa Etorb., 1	943 79 14 09
BERGARA			
Egubakoitza, 26	OJARBIDE	San Antonio, 5	943 76 11 05
Zapatua, 27	ESTELLA	Matxiategi 5	943 76 19 63
Domeka, 28	ESTELLA	Matxiategi 5	943 76 19 63
Astelehena, 29	ALVAREZ MOZOS	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Martitzena, 1	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza 4	943 76 11 74
Eguaztena, 2	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Eguena, 3	OJARBIDE	San Antonio, 5	943 76 11 05
OÑATI			
Egubakoitza, 26	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Zapatua, 27	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Domeka, 28	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Astelehena, 29	ANDUAGA	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Martitzena, 1	ANDUAGA	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Eguaztena, 2	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Eguena, 3	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22

Gipuzkoako farmaziak eskuko telefonoz izateko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehieneko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen araberak. (www.cofgipuzkoa.com).

EGURALDIA ASTEBURUAN


DEBAGOIENA



ZAPATUA, 27
Eguraldia orokorrean okerrera egingo du. Temperatura nabarmen jaitsiko da eta euria egingo du egun osoan.

DOMEKA, 28
Zerua lainoz estalita egongo da eta ez da ostarerik zabalduko. Zapatuan bezala, euria egingo du domekan ere.

FUSKAL HERRIA



GAZTE INFORMAZIOA

LANA
Koordinatzaileak udalekue-tarako. Zumaiako Udala. Uztailan antolatzen dituzten udaleku irekietarako koordinatzaileak behar dira. Baldintzak: 18 urte beteta izatea, DBH, denbora libreko begirale titulua, euskaraz ulertu eta ongi hitz egitea. Epea: martxoak 10.

Begiraleak, zuzendariak eta sukaldariak. Bertso Udalekue-tarako. Uztailan eta abuztuan hainbat txanda betetzeko. Epea: martxoak 18.

Hainbat postu: nekazaritza ingeniari zuzendari lan poltsa eta nekazaritza ingeniari tekniko postuak, kimikarien lan poltsak. Arabako Foru Aldundia. Epea: martxoak 4.

Ogasuneko erdi eta goi mailako teknikarien lan poltsa.

Gipuzkoako Foru Aldundia. Baldintzak: diplomatura edo baliokidea (erdi mailakoak), lizentziatura (goi mailako teknikariak), Euskara: 3. HE. Epea: martxoak 13.

Gizarte hezitzaileen lan poltsa. Nafarroako Gobernua. Baldintzak: gizarte hezikuntzaren diplomadun edo graduatuaren titulua. Azken eguna: martxoak 9.

Administrazio langileen lan poltsa. Zullako Udala. Baldintzak: Batxilergoa LHII, IT-Txartelak. Epea: martxoak 17.

TXARTELAK
Renfe. 14-25 urte arteko gazteentzako txartela atera du, %50eko deskontuak bidaia luzeetarako eta AHTrako hila-bete aurretik txartelak erosita, bestelako deskontuak ere bai.

ESKER ONA

Bixente Azkarate Zabarte

'Zelaitxo'



2016ko otsailaren 19an hil zen, 82 urte zituela.

Anai-arrebak: Jesus (+) eta Leonor (+), Anton eta Tere, Mari eta Jesus (+), Mariano eta Pilar, Jose Luis eta Mila, Marije eta Antonio, Txaro, Kontxi (+); ilobak: Iñigo eta Monse (+), Cristi eta Joserra, Alex, Idoia (+) eta Txema, Jose Ignacio eta Maria, Josune eta Iñaki, Roberto eta Irma, Oskar eta Ana, Cesar eta Larraitx, Sergio eta Saioa, Leire eta Iñaki, Fertxu eta Nerea, eta gainerako ahaideak.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko.

Arrasaten, 2016ko otsailaren 26an.

ESKER ONA

**Martin Arrese-Igor Aranzabal**

2016ko otsailaren 18an hil zen, 83 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi diguzuen guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana familiaren izenean.

Bergaran, 2016ko otsailaren 26an.

ESKER ONA

Hipolito Ugarte Urtzelai

Otsailaren 23an hil zen, Oñatin, 95 urterekin.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2016ko otsailaren 26an.

HILDAKOAK

Martin Arrese-Igor Aranzabal. Bergaran, otsailaren 18an. 83 urte.**Anselmo Gomez Santamaria.** Arrasaten, otsailaren 18an. 81 urte.**Manuel Donoso Sanchez.** Arrasaten, otsailaren 19an. 70 urte.**Antonio Espejo Martinez.** Arrasaten, otsailaren 19an. 86 urte.**Ricardo Caballero Azantza.** Arrasaten, otsailaren 19an. 87 urte.**Bixente Azkarate Zabarte.** Arrasaten, otsailaren 19an. 82 urte.**Jesus Badiola Uribeetxebarria.** Eskoriatzan, otsailaren 19an. 80 urte.**Maria Carral Martinez.** Bergaran, otsailaren 20an. 88 urte.**Felix Agirre Aiausti.** Arrasaten, otsailaren 20an. 87 urte.**Karmen Intxauspe Perez.** Arrasaten, otsailaren 21ean. 96 urte.**Virginia Diez Baro.** Arrasaten, otsailaren 21ean. 79 urte.**Juan Bautista Archidona Alcaide.** Arrasaten, otsailaren 22an. 65 urte.**Modesto Muñoz Fonseca.** Arrasaten, otsailaren 23an. 91 urte.**Fernanda Laskurain Aldaz.** Bergaran, otsailaren 23an. 87 urte.**Hipolito Ugarte Urtzelai.** Oñatin, otsailaren 23an. 95 urte.

URTEURRENA

Felisa Murguzur Yarza

Jose Agirre Balanzategiren alarguna



2015eko otsailaren 23an hil zen, Donostian, 99 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, otsailaren 28an, 11:00etan, Arrasateko San Juan Batailatzailearen parrokian.

*Belaunaldien arteko zilar-hestea,
joan zirenen, izan garenon eta etorriko direnen zaindaria.
Mende oso baten lekuko diren begiak itzali arren,
munduari begiratzeke zure moduak gugan dira.
Betirako zure altzoan, betirako gure alboan.*

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Arrasaten, 2016ko otsailaren 26an.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.



maribi 617 44 21 55
BERGARA

EZKONTZAK ETA EZTEI-OSPAKIZUNAK

**Jon eta Nerea**

Angiozarko Jon eta Bergarako Nerea larunbat honetan, otsailaren 27an, ezkonduko dira Bergarako udaletxean. Ondoren, familiarekin ospatuko dute. "Oso ondo pasatu eztei-bidaian eta zorianak familiaren, lagunaren eta, batez ere, Unaxen partetik!

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

edo eskelak@goiena.eus

- Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 160 € / Goiena Klubeko bazkideendako 142 €
- Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 140 € / Goiena Klubeko bazkideendako 125 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:


ARRASATE Goiena: Otolara Lizentziaduna 31.943 25 05 05.

BERGARA Jardun elkartea: Errotalde (kultura etxean), 943 76 08 19.

OÑATI Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

ELGETA Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.

ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.



MUSIKA

ESKORIATZA Piano kontzertua

Eskoriatzako musika eskolako ikasleen emanaldia.
Gaur, egubakoitza, Zaldibarren, 18:00etan.

ARRASATE The Potes

Emanaldi akustikoa egingo dute.
Gaur, egubakoitza, Arrasate tabernan, 20:15ean.

OÑATI Naiz Roxa taldea

Hardcore musika egiten du Pasai Donibaneko taldeak.
Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean.

ARRASATE Antton Aranburu eta Bikiak

Hirukote moduan egingo du emanaldia Busturiako taldeak. Rocka izango dute hizpide, baina modu akustikoan. Doan.
Gaur, egubakoitza, Jai Zalen, 22:30ean.

ARETXABALETA Pinotxet eta Blood Brothers taldeak

Hardcore doinuak nagusi. Doako emanaldia.
Bihar, zapatua, Haizea tabernan, 19:00etan.

ARRASATE Cadena Perpetua eta Dirty Brothers

Punk doinuak protagonista.
Bihar, zapatua, Arrasate tabernan, 19:30ean.

BERGARA 'Beer and roll fest'

El Exterminio de la Raza del Mono eta Krisis taldeak 19:00etan, eta Shock Waves, WC, Oldarkor eta Los Perros, 22:00etan. Sarrerak, bost euro.
Bihar, zapatua, gaztetxean, aipatutako orduetan.

BERGARA 'Adiemus colores'

Bergarako Orfeoia, Orfeoi Gaztea, Ganbera Orkestra eta Camden Town taldeko dantzariak Karl Jenkins obraren bertsoa egingo dute. Sarrerak, hamar euro.
Bihar, zapatua, pilotalekuan, 20:00etan.

ANTZUOLA Elkartasun kontzertua

Antzuolako taldeen emanaldia: Namekatarrak, Klak!son, Patxi Luque, Issuo Sasiia eta Josune, trikitilari taldea eta Koldo Lizarralde, besteak beste. Batutako dirua SOS Sahara taldeak sahararrei bideratuko die.
Bihar, zapatua, Torresoran, 22:00etan.

NON-ZER

Emaguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

OTSAILA 26
MARTXOA 3

ELGETA El Drogas & Desmemoria Band taldea

Sombras que la luz grita birako kontzertua egingo dute. Sarrerekin batera CD bat opari. Sarrerak salgai daude Espaloian, Bergarako Pol-Pol tabernan eta *www.ticketea.com* atarian.
Bihar, zapatua, Espaloian, 22:30ean.

OÑATI Azkater Pelox Trio

Unai Azkaratek, Jon Zabaletak eta Aitor Aranburuk osatzen dute taldea. Doako emanaldia.
Etzi, domeka, Pako tabernan, 19:30ean.

ANTZERKIA

ARETXABALETA Xavier Deltell eta Jose Andres

Bakarrizketa saioa egingo dute. Sarrerak, lau euro.
Bihar, egubakoitza, Arkupen, 20:00etan.

OÑATI 'Distancia siete minutos'

Kataluniako Titzina konpainiaren eskutik. *Curiosity* robot espaziala bidaltze eta lurreratzearekin batera, Felix, etxetik alde egin beharrean dago termita-plaga bat dela-eta, eta egun batzuetarako aitaren etxera joango da. Orduan sortuko dira bien arteko ika-mikak.
Gaur, egubakoitza, Santa Anan, 22:30ean.

DANTZA

ELGETA Herrixa Dantzan

Txertubi taldearen zuzeneko musikarekin egingo dute domekan dantza saioa, Patxi Monterok gidatuta. Askotariko dantzak landuko dituzte. Sarrera doakoa eta parte-hartzea librea da herriar guztiendako.
Etzi, domeka, Espaloian, 19:00etan.

GAZTELEKUAK

OÑATI 'Arzerixan' ginkana

Herri Curriculumean oinarritutako jinkana-lehiaketari dagokion laugarren probaren aurkezpena.
Gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 18:00etan.

ARRASATE Eski irteerako batzarra

Bidaian parte hartu behar dute. Bidaian parte hartu behar dute.
Gaur, egubakoitza, erdiguneko gaztegunean, 19:00etan.

ARRASATE Valdezcarayra irteera

Eskia eta snowa egiteko aukera.
Bihar, zapatua, Garibain, 06:30ean.

ESKORIATZA Filtro tailerra

Askotariko gauzak egingo dituzte material horrekin.
Etzi, domeka, gaztelekuan, 16:30ean.

BERGARA 'Aupa Etxebeste'

2005ean Asier Altunak eta Telmo Esnalek zuzendutako pelikula.
Etzi, domeka, Xabaloten, 18:00etan.

ARRASATE Sare sozialen gaineko tailerra

Pribatutasuna mantentzeko eta identitate digitala babesteko ikastaro praktikoa egingo dute.
Etzi, domeka, erdiguneko gaztegunean, 18:30ean.

OÑATI Pelikula musikala

Otsaila musikala ekimenaren barruan.
Etzi, domeka, gaztelekuko kuboan, 17:00etan.

ERAKUSKETAK

ESKORIATZA Karmelo Oñate

Arroila jaitsierekin, alpinismoarekin eta eskiarekin lotutako marrazkiak Inkernu eta Hotela tabernetan.
Hilaren 29ra arte, aipatutako lekuetan.

OÑATI Anfibioak

Anfibioen sekretuak nagusi Ingu-rumen Astearen erakusketan.
Martxoaren 6ra arte, kultura etxean.



OÑATI Sorkun abeslaria 'Ziklomorphosia' diskoa aurkezten

Estilo jauzi handia eman du bakarlariak azken lanarekin. Modu magistralean konbinatu ditu bere ahots ederra eta Eider Rodriguezen testu bereziak. Tratamendu estetiko eta musikala heldutasunera eraman ditu.
Bihar, zapatua, gaztelekuan, 22:30etan.

BERGARA Isidro Monzonen arkitektura

Hainbat argazkiz, marrazkiz eta planoz osatutako erakusketa da. Bere eraikinak paisaia nola txertatu zituen erakusten du.
Martxoaren 13ra arte, Laboratorio museoan.

BERGARA 'Amama' erakusketa

Asier Altunaren pelikularekin gainera erakusketa. Domeka da azken eguna.
Otsailaren 28ra arte, Aroztegin.

ARETXABALETA 'Elkarlanean gizarteratzen'

Gu Haziak Gara elkartearen erakusketa.
Otsailaren 26ra arte, Arkupen.

ARRASATE 'Dinbi, danba, mailukaren hotsa'

Bixente Barandiaranen lanak, eta burdinak Arrasaten izandako eragina ikusgai.
Harresi aretoan ikusgai.

AURKEZPENA

OÑATI 'Burdin elorri arantzetan... denbora jorratzen' liburua

Joseba Arregi *Azpilleta*-ren liburuaren aurkezpena, haren senitartekoen eskutik.
Gaur, egubakoitza, Antixenan, 18:30ean.

HITZALDIK

OÑATI 'Diadaren barne fenomenoak. Auto-estimaren jatorria'

Haurdun daudenezat eta 0 eta 1 urteko haurrak dituzten gurasoendako.
Gaur, egubakoitza, ikastolan, 17:00etan.

OÑATI Oñatiko anfibioen egoera

Jon Garin biologoak egingo du berba Ingu-rumen Astearen barruan.
Gaur, egubakoitza, kultura etxean, 19:00etan.

OÑATI Azaleramendu geologikoa

Geologian doktore Asier Hilariok Euskal Herriko azaleramendu aniztasunaz berba egingo du, Ingu-rumen Astearen barruan.
Martxoaren 1ean, kultura etxean, 19:00etan.

Zorionak denoi!

Hauek dira Goiena Klubeko otsaileko zozketetako irabazleak



REINCIDENTES TALDEAREN LIBURUA + CD + DVD
Fernando Contreras Munilla (Bergara)

Jose Maria Lasaga Heriz (Arrasate)

ANARI-REN KONTZERTURAKO SARRERAK
Amaia Arana Beitia (Arrasate)

'BARBANTXO' IKUSKIZUNERAKO SARRERAK
Eneritz Urbietza Atxa (Bergara)
Maritere Galdos Urzelai (Oñati)
Espe Lizarralde Gallastegi (Arrasate)

JUAN MUÑOZ-EN BAKARRIZKETARAKO SARRERAK
Pilar Etxaniz Kortabarría (Antzuola)

'ETXEKOAK' ANTZERKIRAKO SARRERAK
Iñaki Barrena Sanmiguel (Arrasate)
Loli Zeziaga Bengoa (Arrasate)
Ander Ugalde Etxebarria (Arrasate)

LASA JATETXEAN BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Luis Jesus Arenaza Zurbano (Bergara)

KIKE AMONARRIZ-EN LIBURUA
Ainhoa Irazola Arana (Arrasate)
Esteban Barandiaran Fdez. de Jauregi (Arrasate)
Jesus Mari Markinez Legarda (Oñati)

'RIGOLETTO' OPERARAKO BINA SARRERA
Jesus Agirre Isasmendi (Aretxabaleta)

ARRIKRUTZ KOBETARAKO BINA SARRERA
Miren Urzelai Eizagirre (Oñati)

Arantzazu Uribe-Etxebarria Maiztegi (Aretxabaleta)
Maixa Arozena Irastorza (Aretxabaleta)

HARREMAN DENDAKO OTARREA
Itsaso Uribeetxebarria Madinabeitia (Aretxabaleta)

SIRIMIRI JATETXEAN BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Lurdes Larrañaga Iturbe (Arrasate)

'LA TRAVIATA' OPERARAKO BINA SARRERA
Ramon Agirrezabal Beitia (Bergara)

'EIDABE' ANTZEZLANERAKO BINA SARRERA
Nerea Perez Idigoras (Arrasate)

ERREKA JATETXEAN BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Mikel Sarasola Astigarraga (Arrasate)

BASKONIA-ZALGIRIS PARTIDURAKO BINA SARRERA
Jose Miguel Uribarren Azpiazu (Aretxabaleta)
Mertxe Cantero Perianes (Oñati)
Aritz Altube Iñarra (Bergara)
Iñigo del Rio Juarizti (Oñati)

SARIAK JASOTZEKO:

Arrikrutzeko sarrerak: Goiena klubeko txartela erakutsita, bina sarrera izango dituzue Arrikrutzeko txarteldegian. Sarrerak 3 hilabeteko epe mugari izango dute. ARRIKRUTZ KOBAK. Arozte Auzoa, Oñati, 943 08 20 00. Ordutegia: Asteartetik Igandera 10:00 - 17:00 (Aurrez deitu hitzordua egiteko) Harreman dendako otarrea: Otareak jasotzeko, jo zuzenean, bazkide txartelarekin, Harreman dendara. Arrasateko Eroski hipermerkatuan duen dendara. Beste sariak: Zatoz, otsailaren 29tik aurrera. GOIENAREN egoitzara. Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA jakitera eman beharko da. GOIENA Oñalora Lizenziaduna, Arrasate: 943 25 05 05. Ordutegia: Astelehenetik eguenera: 09:00 - 18:00. Egubakoitzetan: 08:00 - 14:00.

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

ARETXABALETA 'Zermatte eta goi ibilbidea'

Martin Elortzak egingo du berba, Murruxok gonbidatuta. Martxoaren 1ean, Zariaian, 19:00etan.

ARETXABALETA 'Islandia, Vatnajokull glaziarra'

Luisi Egiluzek egingo du berba, Murruxok gonbidatuta. Martxoaren 2an, Zariaian, 19:00etan.

BERTSOLARITZA**ARETXABALETA Bertso afaria**

Agin Laburu eta Iker Zubeldia bertsoan, Lekaixoka bertso eskolak gonbidatuta. Gaur, egubakoitza, Hiba Gain elkartean, 21:00etan.

UMEAK**BERGARA Ipuin kontaketa**

Munduan asko bezala delako ipuin kontaketa saioa egingo du Eneko Haritzak. Gaur, egubakoitza, liburutegian, 18:30ean.

ARRASATE Ludoteka ibiltaria

Oraingoan, garraio ezberdinekin nola ibili landuko dute. Pedaloak, patineteak eta bizikletak etxetik eramatea eskatu dute. Bihar, zapatua, Musakolan, 10:30ean.

BESTELAKOAK**ELGETA Gure Esku Dago**

Bazkidetza kanpaina abiarazi dute Elgetan. Bazkide egiteko edo informazioa eskatzeko, taldeko kideak zeramika gelan egongo dira, egubakoitzero, 18:30etik 20:00etara arte. Gaur, egubakoitza, aipaturako lekuan eta orduan.

DEIA**ANTZUOLA Gaztetxea biziberrituta**

Etenaldi baten ostean biziberrituta zabalduko dute. Luntxa eta Bexamela eta Kroketa taldearen kontzertua egongo dira. Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 20:00etan.

OÑATI Txandaren neguko 'outlet'-a

Umeendako kale animazioa egongo da eta deskontu handiak egubakoitzean eta zapatuan. Erosketak diruarekin ordaindu behar dira. Aste bukaeran, herriko kaleetan, 09:00etan.

OÑATI Zuhaitz eguna

Bidebarrieta kalearen eta saihesbidearen artean dauden zelaietan landatuko dituzte zuhaitzak. Ingurumen Astearen barruan. Etzi, domeka, Foruen plazan, 10:00etan.

ARAMAIO Ohiko batzar orokorra

Itur-Zuri emakume elkartearen batzarra. Otsailaren 29an, kultura etxean, 18:00etan.

ESKORIATZA Odol ateratzea

Arabako odol bankuko autobusa egongo da Huhezin. Odol email berriak behar dituzte. Martxoaren 2an, fakultatean, 09:30ean.

OÑATI Parisen izan zen klimaren goi bileraren ondorioak aztergai

EHUko irakasle Iñaki Antiguada izango da moderatzailea. Ingurumen Asteko ekitaldia da. Martxoaren 2an, kultura etxean, 19:00etan.

LEINTZ GATZAGA Jakoba Errekondo

Solasaldia egingo du. Lehenengo, *Bizi Baratzea* liburua aurkeztuko du, eta ostean, herritarren galderei erantzungo die. Martxoaren 3an, Gatz museoa, 18:30ean.

IKUS-ENTZUNEZKOA**ESKORIATZA 'Itsasoari begira'**

Gaixotasun neurologiko batekin jaiotako ume baten eta inguruko bizitza kontatzen duen dokumentala. Martxoaren 2an, Zaldibarren, 19:00etan.

IKASTAROKAK**OÑATI Anfibioren identifikazioa**

Ikastaro-tailerra egingo du Jon Garinek, Ingurumen Astearen barruan. Bihar, zapatua, Natur Eskolan, 09:00etan.

ELGETA Xilografia tailerra

Maite Barrainkuaren eta Elgetako Udalaren eskutik, 18 urtetik gorakoendako eta doan. Bihar, zapatua, Rmateria tailerlean, 10:00etan.

IRTEERA**ARRASATE GR-282ko etapa**

Artzaintzaren ibilbidearen lehen etapa egingo dute martxoaren 13an. Izen-ematea, Besaiden, martitzenetan eta eguaztenetan, 19:30etik 20:30era. Aipaturako egunetan, lekuan eta orduan.

ZINEMA**ARRASATE****AMAIA ANTZOKIA**

El renacido
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

The show queen (euskaraz)
Domeka: 17:00.

OÑATI**KULTURA ETXEA**

La chica danesa
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Paperezko hegazkinak
Zapatua eta domeka: 17:00.

ARETXABALETA**ARKUPE**

Joy
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

Paperezko hegazkinak
Zapatua eta domeka: 17:00.

EIBAR**COLISEO**

Tenemos que hablar
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.

Astelehena: 20:30.

Zootropolis
Zapatua: 17:00.

Carol
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

Ave, Cesar
Domeka: 17:00.

ANTZOKIA

Ave, Cesar
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

Zootropolis
Domeka: 17:00.

GASTEIZ**BOULEVARD**

Tenemos que hablar
Zapatua: 23:45.
Egubakoitzetik eguenera: 17:45, 19:45, 21:45.
Zapatua eta domeka: 15:45.

13 horas: soldados de Bengasi
Zapatua: 00:15.
Egubakoitzetik eguenera: 18:50, 21:35.
Zapatua eta domeka: 16:30.

La habitacion
Egunbakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Deadpool
Zapatua: 23:30.
Egubakoitzetik

eguenera: 17:45, 19:00, 20:00, 21:15, 22:30.
Zapatua eta domeka: 16:45.

Zootropolis
Egubakoitzetik domekara: 17:45, 20:00.
Egubakoitza: 17:30, 19:45.
Zapatua eta domeka: 15:30, 17:00.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 17:45, 19:45, 20:00.

Ave, Cesar
Zapatua: 00:45.
Egubakoitzetik eguenera: 20:15, 22:30.

Mejor...solteras
Zapatua, astelehena eta eguaztena: 00:45.
Egubakoitzetik domekara: 20:10, 22:25.
Eguaztena eta eguenera: 20:00, 22:25.

El renacido
Egubakoitzetik eguenera: 19:00, 22:00.
Zapatua: 16:00.

Zoolander
Zapatua: 00:30.

Pesadillas
Zapatua eta domeka: 15:30.

La verdad duele
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua eta domeka: 21:30, 00:00.

Alvin y las ardillas
Egubakoitzetik domekara: 18:00.
Zapatua eta domeka: 16:00.

La quinta ola
Egubakoitzetik domekara: 17:50.
Zapatua eta domeka: 15:30.

Creed, la leyenda de Rocky
Egubakoitzetik domekara eta eguaztena: 22:15.

El bosque de los suicidios
Astelehenetik eguenera: 18:30, 20:30, 22:30.

Joy
Astelehenetik eguenera: 22:00.

El puente de los espías
Astelehena eta eguaztena: 20:00.

La gran apuesta
Astelehena, martitzena eta eguenera: 22:15.

Marte
Martitzena eta eguenera: 22:00.

Steve Jobs
Martitzena eta eguenera: 17:30.

Spotlight
Astelehena eta eguaztena: 17:30.

Carol
Astelehena eta eguaztena: 17:30.

La chica danesa
Astelehenetik eguenera: 17:30.

FLORIDA

La habitacion
Egunbakoitzetik domekara: 17:15, 19:45, 22:30.
Astelehena, eguaztena eta eguenera: 17:15, 19:45.
Martitzena: 17:15, 20:30.

Deadpool
Egubakoitza: 17:30, 20:00.
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:30, 20:00.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

La corona partida
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 20:35, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

Tenemos que hablar
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 20:35, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 18:45.

Spotlight
Egubakoitzetik domekara: 18:15.
Astelehenetik eguenera: 20:30.

Brooklyn
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30,

20:00.
Zootropolis
Egubakoitza: 16:25, 18:20.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:25, 18:20.

Carol
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 20:20.
Astelehenetik eguenera: 21:00.

Ave, Cesar
Egubakoitza: 18:30, 22:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 18:30, 22:30.

El renacido
Egubakoitzetik domekara: 19:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 20:00.

La decision de Julia
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 18:40.

La juventud
Egunbakoitzetik domekara: 20:00, 22:30.
Astelehena, eguaztena eta eguenera: 20:20.

La chica danesa
Egubakoitzetik domekara: 22:30.
Astelehenetik eguenera: 16:50.

Alvin y las ardillas
Zapatua eta domeka: 12:00.

KRITIKA**EL RENACIDO ★★★★★**

Zuzendaria: Alejandro Gonzalez Iñárritu

Herrialdea: AEB.

Urtea: 2015.

Aktoreak: Leonardo DiCaprio, Tom Hardy, Domhnall Gleeson.

Iraupena: 156 minutu.

Erronkaz erronka, aurrera

Alejandro Gonzalez Iñárrituri hari-harian mugitzea gustatzen zaio. Ez da kikitzen den horietakoa eta erronkaz erronka ibiltzen da. Proiektu batek zailtasun ugari baditu, hurrengoarekin pauso bat gehiago ematen du. Istorio latzak izaten dira, pertsonaiak mugan daude, eta, jasaten ari diren infernu pertsonala azaltzeko, aktoreen eta talde teknikoaren inplikazioa behar beharrezkoak ditu zuzendariak. *Birdman*-en, antzerki munduan estreinaldi batek dakartzan tentsioak eta estresa islatzeko luzera handiko plano sekuentziak erabili zituen. *El Renacido* baldintza oso gogorretan egin da. Naturan filmatuta, aktoreak eta

teknikariak pertsonaiek jasaten duten odisea gerturatu dira. Iñárrituk filmari tratamendu naturalista eman dio. Bere istorioak eta pertsonaiak sufrimenduz beterik daude. Istorio bortitzak dira eta pertsonaiei, batez ere DiCapriok egiten duen pertsonaiari, denetarik gertatzen zaie. Zuzendariak detaile askorekin islatzen du pertsonaiaren sufrimendua. Horien keinu, garrasi eta arnasestuak lehen planotan ditugu. Naturaren baldintzak, goseak, hotzak eta indiarren, ehiztarien eta animalia basatien presentzia kezagarriak pertsonaien bizitzak arriskuan jartzen dituzte. Biziraupen senak eta mendekua lortzearen grinak

pertsonaiak bizirik mantenduko ditu. Agian, Iñárrituk duen istorioarengatik eta filmaketaren baldintzengatik, zerbait nahasten da. Pelikula oso handia egin nahian ikuspuntua edo neurria galtzen du. *El Renacido*-ko eszena batzuen iraupena luzeegia da. Pertsonaiak alde batera eta bestera joaten eta hainbeste ekintza ikusgarri bateratzea gehiegizkoa da. Dena den, merezi du pelikula ikustea: hasierako bataila modu zoragarrian filmatuta dago, zaldiaren eszena gogoan geratzen da... Gainera, arriskuz beteriko proiektu ausarta da. Ona, baina gehiegizkoa.

ANTONIO ZABALA



Goibeko, Elgetako Euskaltzaleen Topaguneari esker Ruper Ordorikaren kontzertua ikusteko sarrerak ditugu
Elgetako Espaloia kafe antzokian.
Martxoaren 6an, 19:00etan.

ZOKETAN PARTE HARTZEKO (MARTXOAREN 2A BAINO LEHENAGO)
E-posta: klubak@goiena.eus WhatsApp: KLUBA RUPER [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07
zenbakira. Irabazleei deitu egingo zaie eta goienakluba.com webgunean agertuko dira euren izen-abizenak.

Indararen dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indararen dagoen sustapena gestiozuztea. Eskubidea trango dugu datuak sartzea, hain zuzentzeko edo ezaratzeko, helbide honetara idatzita: klubak@goiena.eus

goienakluba

Bi lagunendako otorduen zozketa astero Puntuan. Hartu parte eta... on egin!

Hilaion jatetxeko
torradak



puntua

'PUNTUA' ORAINDIK ETXEAN JASOTZEN EZ BADUZU:
943 25 05 05 edo Puntua.eus edo Whatsapp: 688 69 00 07

goienakluba

goiena

2016-02-26

BUKATZEKO

Matematikez gozatu, ukituz eta sentituz

- ▶ Arizmendiko irakasle Leire Aranak 'www.matematiketan.eus' bloga sortu du, bereziki umeei begira
- ▶ Zientzia "ederra" dena, era "ilun, iristezin, mekaniko eta aspergarrian" irakatsi izan dela uste du

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

"Azken urteetan sarriegi ikusi ditut ikasleak matematikekin sufritzen". Arizmendi Ikastolako Leire Arana irakasleak, bizipen horretatik eta ama izan ostean bere semeetako bati laguntzeko beharretik, blog berezi bat sortu berri du: www.matematiketan.eus. Blogaren planteamendua oso argi dauka Aranak: "Matematikak ukitu daitezkeen modu batetik hurbiltzea umeari, askotariko moduak erabilia. Goazen ohiko batuketei edo kenketei tripak ateratzera, eta gero joango gara abstrakzio bideetatik".

Baina zergatik dago ikasle kopuru nahiko altu bat matematikekin sufritzen duena? "Faktore asko" daudela dio Aranak: "Erraza balitz arrazoiak zeintzuk diren zehatz-mehatz jakitea, emango genioke irtenbide bat, baina ez da horrela. Hala ere, uste dut oso faktore garrantzitsua dela umeari noiz aurkezten diozun kontzeptu berri bat. Askotan gertatzen da, 3 eta 6 urte arteko umeengan, ez daudela gertu oraindik abstrakziorako urratsa egiteko". Horrez gain, orain arteko irakaskuntzaren ikuspegia ez du uste egokiena izan denik: "Ez dakit nondik datorren gaur egun-



Leire Arana irakaslea Arizmendiko ikasgela baten, aritmetika lantzeko sistema ezberdinekin. | JOKIN BEREZIARTUA

go matematikaren ikuspegia, baina bai dakit berez gai ederra dena ilun, iristezin, mekaniko eta aspergarri bilakatu dugula irakasleok eta testu liburuek elkarlanean. Gaiak berez dauzkan jostagarritasuna, ukigarritasuna eta naturaltasuna galdu ditu".

Elur-bola efektuaren bila

Bigarren Hezkuntzan zenbait urtez irakasle izan ostean, ama zela deskubritu zuen matematika ukigarrian "mundu zabal" hori: "Nire umeetako bati laguntzeko beharretik ezagutu nuen eta konturatu nintzen hori dela bidea. Elur-

-bola handia egin aurretik elur-bola txikiak behar izaten dira, eta uste dut kasu honetan ni izan naizela elur-bola txiki hori". Erabat sinistuta dago matematikak modu ukigarrian irakasteko moduek gero eta presentzia handiagoa izan behar dutela ikasgelan.

AZKEN BERBA

IDOIA
ETXEBERRIA



Android

A mama, zure mobila Android da? Mutikoak zazpi urte ditu. Amonak patatafono bat dauka eskuen artean.

-Ui, gura badozu bai... hola jarriko dotsagu izena.

Etxean duen katuari bilobak jarri zion izena. Doraemon. Baita dortokari ere. Ninja.

-Ez, amama! Nere mobila Android da. Amaiarena be Android da... Amaiarena be bai, eta Aitorrena. Zuria Android da?

-A, ba orduan ez!

Izen bat jartzen hasi, eta nola jarriko dio ba denek jartzen dioten bera!

-Banekixen!

Mutikoak irribarre egin du. Bazekien amonaren mobila ez zela modernoa. Ezin zela Android izan.

-Badakitzu ze izen jarri geiken? Andromeda! Polittagua da Andromeda... Gustaitten zatzu?

Andromeda galaxia baten izena dela kontatu nahi dio. Greziako jainkosa batengatik jarri ziotela izen hori. Liburu bat irakurri zuela behin horri buruz. Amonaren begiek izarren distira dute. Mutikoak buruari eragin dio. Ezker-eskuin. Ezezko keinua da. Amonari urrutiko galaxia batetik etorria balitz bezala begiratu dio.

-Ez dozu ezer entenditten, amama!

Arrasaten

Benetan **pisua galdu** nahi duzu?



Esan baietz
betiko

RPS: 741/13

Rosa Sarabia doktorea

CMU centro médico UDALAITZ

Euskal Herria plaza 3. ARRASATE
Tel.: 943 79 44 22.

PronoKal[®] metodoa

Zientzia eta zorrotztasuna pisua galtzeko

- Kontrol mediku zorrotza
- Pisu galtze handia - Gosegabezia

Rosa Sarabia doktorea
Medikuntzan eta kirurgian lizentziaduna

OBESITATEAREN ETA GEHIEGIZKO PISUAREN UNITATEA
BOTOXA - EZPAINAK - MESOTERAPIA
BARIZEAK - HAZIERA FAKTOREAK
BULARRAK - SUDURRA - SABELALDEA

Medikuntza estetiko eta kirurgia plastikoa

Bilbon: Clinica Sarabia: Ercilla kalea, 42.

GOIENA TELEBISTA 2016 UDABERRIA-UDA

Oñatiko Kantari
saioaren grabaketan
bukaeran umeak
pozarren.



**Bertakoa,
bertakoekin**

1.000 gaztetxo kantuan

Goienak bosgarrenez antolatu duen 'Kantari' karaoke ikuskizunak marka guztiak gainditu ditu

noiz baino arrakastatsuegia izaten ari da Goiena Telebistako *Kantari* karaoke eta dantza ikuskizunaren bosgarren edizioa; izan ere, zazpi eta hamar urte bitarteko bertako mila umek hartuko dute parte. Hala, guztira berrogei saio ekoiztuko dituzte denboraldi honetan.

Ume zein gaztetxoei zuzendutako programazioan ahalegin berezia egiten dihardu Goiena telebista, bereziki asteburuetara begira. Horren adibide ditugu *Kantari*, *Korapilo* edota *Txantxariak* saio berria.

Urtarrilean Aretxabaletako Arkupe kultur etxean hasi zituzten *Kantariren* grabaketak, eta bertan Aretxabaletako, Eskoriatzako eta Leintz Gatzagako neska-mutikoei hartu zuten parte. Oñatiko grabaketak ere egin dituzte, eta orain Bergarakoak eta Arrasatekoak falta dira. Bergarakoak, hain zuzen, bihar eta etzi grabatuko dituzte Zabalotegi aretoan, eta Bergarako, Antzuolako eta Elgetako neska-mutikoei igoko dira taula gainera. Azkenik, Arrasateko grabaketak apirilaren 9ko eta 10eko asteburuan izango dira, Amaia antzokian.

"Oso pozik gaude *Kantarik* aurten izan duen harrerarekin. Grabazioetan ikusten ari gara gaztetxoak ilusioz etortzen direla, eta guraso, anai-arreba, aito-



Gaztetxoak Amaia Txintxurretarekin batera 'Kantari'-ren kantua abesten, Aretxabaletako grabaketa saio batean.

na-amonak eta lagunak ere gogotsu izaten dira animoak ematen", dio Amaia Txintxurreta aurkezleak. *Kantarik* "urtez urte gero eta indar handiagoa duela" azpimarratu du Txintxurretak, eta hori "oso pozgarria" da beretzat.

BI ESTREINALDI ASTERO

Astero-astero *Kantariko* bi saio

estreinatzen dituzte, zapatuetan, hain zuzen, lehena 10:30ean eta bigarrena 16:30ean. Saio horien errepikapenak, asteburuetan, 09:00etan, 10:30ean, 16:30ean eta 20:00etan eskaintzen dituzte.

Orain, Aretxabaletan grabatutako saioak emititzen dihardute, eta martxoaren 12tik aurrera Oñatikoekin hasiko dira. Horren

ostean, apirilaren 9tik aurrera, Bergarakoak emango dituzte, eta maiatzaren 14tik aurrera, berriz, Arrasatekoak.

ABESTIAK

Neska-mutikoei *Kantarin* abesten dituzten kantu guztiak euskaraz dira. Oraingo edizio honetan, hainbat abesti berri txerta-

tu dituzte erreperitorioan; hala nola Gatiburen *Euritan dantzan*, Vendettaren *Udarako gau luzeak* edota En Tol Sarmientoren *Bel-durrik ez*.

Horietaz gain, baina, dagoneko klasiko direnak ere mantendu dituzte: Kortaturen *Sarri-sarri*, Oskorriren *Furra-furra*, Ken Zazpiren *Ilargia...*



Maddi, korapilo saioiko gidaria. JAGOBA DOMINGO

'Korapilo', etxeko txikien saiorik gustukoena

Korapilo etxeko txikien saiorik gogokoena ere ez du hutsik egingo Goiena Telebistako udaberriko-udako denboraldiko programazioan. Maddi neskato alaiak magiarene, jolasen eta ipuinen mundura eroango ditu neska-mutikoei, eta hainbat gauza ikasteko aukera izango dute berarekin batera.

Udazkenean estreinatutako *Korapilo* Goiena telebistak, eta, hain zuzen ere, antenan jarraituko du, Debagoieneko haurren gozamenarako.

Zapatu eta domekero goizko hamarretan hasita izango da *Korapilo* saioa Goiena Telebistan. Hala, ordu horretan telebista piztu eta bertan aurkitu ahal izango dugu Maddi kulunkan balantzaka, bere arropa eta orrazkera bereziarekin soinean. Saioaren atal bakoitzak ordu erdi inguruko iraupena izaten du.

Elkarlanean ekoiztutako saioa da *Korapilo*, eta horretan lanean dabilza Goiena, Irrien Lagunak, Ene kantak, Pako Eizagirre, Vanesa Gonzalez eta Igor Sala.

PERTSONAIK

Esan bezala, Maddi neskati alaia da *Korapilo* saioiko gidaria eta protagonista nagusia, baina ez bakarrik, ezta gutxiagorik ere. Izan ere, lagun mordo bat du Maddik; besteak beste, Marikalanbre, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo famatuaren lagun handia. Pertsonaia hau zientzia kontuetan aditua da, eta makina bat bitxikeria erakutsiko die pantailaz bestaldean dauden neska-mutikoei.

Maddiren beste lagunetakoa bat Hodei magoa da. Bere trikimailu ikusgarriek zur eta lur utziko dituzte pantailaz bestaldeko ikusle guztiak.

ONDO PASATUAEZ IKASI

Ondo pasatzeaz gain, beraz, makina bat gauza berri ikasteko aukera izango dute txikienek *Korapilori* esker.

Hala, esate baterako, sukaldako errezetarik gozoenak edo eskulanik dotoreenak nola egin erakutsiko diete, eta ondoren gurasoan laguntzaz egin ahal izango dituzte.

Bestalde, abestiak ere ez dira falta izango *Korapilo* saioan, eta horien bitartez ingelesa ere landu ahal izango dute. Gainera, ipuin interesgarri eta hezitzaileak kontatuko ditu Maddik atal bakoitzean.

SAIO BERRIA



Eduki hezitzaileak dira nagusi 'Txantxariak'-en.

Umeen goizak alaitzera datoz 'Txantxariak'

Umeentzako saio berri bat izango da Goiena Telebistan bihurtik aurrera, otsailak 27, 09:30ean hasita. *Txantxariak* izena dauka, eta Urtxintxaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik dator.

*Txantxariak*en kapituluetan jolasak, eskulanak, haurren egunerokoan oinarritutako bizipenak, proiektu interesgarri batzuen ezagutza, haurren kontakizunak eta irratsaioak ikusi ahal izango dira.

Saioak hainbat balio sustatu nahi ditu: berdinen eta desberdinen arteko harremanen oparotasuna, norbanakoaren errespetua, egunerokotasunaren plazeraren bizipena...

3-8 urte bitarteko haurrei zuzendutako saioak dira, eduki pedagogiko, hezitzaile eta jolasgarriez osatuak.

Mari Txipi, Arantxa Zaballete, Antxon eta Txantxibiri Kamino eta Brauliok osatzen dute *Txantxarien* koadrila.

Elkarrizketa mamitsuak ibarreko gazteen eskutik

Galdegazte elkarrizketa saioak dagoeneko hasi du bigarren denboraldia. Eskualdeko ikastetxe desberdinetako ikasleek eurek aukeratu-tako pertsonaia famatuei elkarrizketak egiten dizkiete, Jokin Bereziartua kazetariak gidatuta. Denetariko gonbidatuak izango dira; kultura mundukoak, kirolariak... Eguazteno, gaueko hamarretan hasita, izango da *Galdegazte-z* gozatzeko aukera Goiena telebistan.

Lehenengo saioan Vendetta musika taldeko abeslari Pello Reparaz izan zen protagonista,

eta asteen, berriz, Malen Ruiz de Azua pertika-jauzilari arrasatearra izan da elkarrizketatua. Hurrengo Hesian taldeko Fran Urias nafarra izango da, eta Arrasateko Arizmendi Ikastolako Gaztelupe guneko ikasleak arduratu-tako dira bera elkarrizketatzeaz.

Saioan parte hartuko duten ikasle guztiak hamalau eta hemezortzi urte bitartekoak dira.

PRESTAKETAK

Grabazioak hasi aurretik, Jokin Bereziartua ikastetxez ikastetxe aritu da ikastarotxoak ematen. Ondoren, talde bakoitzarekin

bildu da eta ikasleek prestatutako galderak berrikusi eta eurekin batera gertatu dituzte elkarrizketak. Gidariak aipatu du neska-mutilak "urduri baina gogotsu" joaten direla elkarrizketetara.

Bereziartuarentzat ere esperentzia berria da *Galdegazte* saioa; izan ere, platoan gidari moduan dabilen lehen aldia da. Aipatu du "esperientzia polita" izaten ari dela: "Irakasle lanetan aritzen naizen lehen aldia da, eta batez ere hor nabaritu dut urduritasuna; platoa ere berria da niretzat, baina ilusio handiz hartu dut erronka hau", adierazi du.



Pello Artabe gonbidatua, Jokin Bereziartua eta ikasleak.

Jaiak etxetik bertatik gozatzeko aukera bikaina

Beti bezala, eskualde osoan ospatzen diren jaietan ere ez dira faltako Goienako kameralari eta kazetariak, jai giro hori gure eskualdeko etxe guztietara eramateko asmoz. Aitor Agiriano festarik festa ibiliko da, mikrofono gorri-beltza eskuan.

Uda partean, gainera, herriko jaiak ospatzen dituzte ibarreko herri askok; beraz, garai horretan sarri ikusi ahal izango dute debagoiendarrek Agiriano euren telebistetako pantailetan, saltsa guztietan sartuta: herri bazkarietan, kalejiretan, kontzertuetan...

Hala, gure eskualdeko herrietakoren batean jaiak direnean edota ospakizun bereziren bat dagoenean, saio bereziak eskainiko ditu Goiena Telebistak, festa egun horiek eman dituzten momenturik onenak bilduz eta Debagoieneko etxe guztietara eramanez.

Seriotasuna alde batera lagata, tonu informal eta entretenigarrian emango digu jaien berri Agiriano. Guztia, musikaz eta irudi dibertigarri osatuta.



Primeran ibiltzen da Agiriano jairik jai.



'Ezagutzera nator!' saio berriaren grabazioaren une bat.

Debagoiena ezagutzera ematera datoza

Denboraldi honetarako saio berri bat iritsi da Goiena Telebistara, Huhezi Fakultateko Ikus-entzuzko Komunikazioko ikasleek eskutik. *Ezagutzera nator!* izena dauka, eta lehen bi saioak emititu dituzte dagoeneko: joan den asteen lehena eta bigarrena atzo bertan. Bederatzi saio ekoiztu dituzte eta horietako bakoitza Debagoieneko herri bati buruz izango da. Eguenetan, gaueko hamarretan hasita, emititzen dira saioak.

Hala, programa berri honi esker gure eskualdeko herriak hobeto ezagutzeko aukera izango da, tokian tokiko herritarren eskutik eta astero pertsona desberdin batek aurkeztuta. Aurkezle lanetan arituko diren Huheziko ikasle horietatik bat ere ez da debagoiendarra, eta, beraz, ez dituzte bailarako herriak bertakoek bezain ondo ezagutzen. Kanpotik datorren pertsona baten ikuspegitik ezagutu ahal izango ditugu gure herriak, beraz.

Ezagutzera nator!-en, euren herria erakutsi eta azalpenak

emateaz arduratuko diren protagonistak ez dira pertsonaia famatuak, baina bai ezagunak herri mailan.

EKOIZPENA

Saio bakoitzean azalduko diren herritarrekin kontaktuan jartzetik hasita eta postproduktziozaino, ikasleek eurek ekoiztu dute *Ezagutzera nator*. Saio bakoitza lantalde desberdin batek ekoiztu du, eta horregatik ikusiko dugu saio bakoitzean aurkezle desberdin bat. Talde bakoitza lauzpabost pertsonak osatu dute, eta berrogei bat ikasle hartu dute parte.

NOIZ ETA NON

Ezagutzera nator! saioaren lehendabiziko saioa Aramaiori buruzkoa izan zen, eta otsailaren 18an estreinatu zen. Atzo, berriz, Arrasateri eskainitakoa eman zuen Goiena Telebistak, eta datorren eguenean, martxoak 3, Leintz Gatzagaren txanda izango da. Horren ostean, Oñati, Eskoriatza, Bergara, Aretxabaleta, Antzuola eta Elgeta etorriko dira.

Bideoklipik onenak Amaia DJren eskutik

Amaia Txintxurreta oñatiarrak aurkeztutako *Amaia DJ* saioak Debagoieneko etxeak musikaz betetzen jarraituko du denboraldi honetan ere.

Saio horretan, musika talde desberdinen bideoklipak eskaintzen dira, betiere, ikusleek gustuetara egokituta; izan ere, saio honetan, ikusleek euren bideoklipik gustukoena Whatsapp aplikazioaren bidez -688 69 00 07- edo Twitter bitar-

tez -@amaiadj- eskatzeko aukera daukate.

Horretaz gain, Euskal Herriko musikariek eskatutako abestiak ere jarriko ditu Amaia DJk.

MODAKO MUSIKA

Gaztetxoei zuzenduta dago, bereziki, eta euskal musika izango da saioan protagonista, baina mundu mailan ezagunak diren beste hizkuntza batzuetan abestutako kantak ere izango dira.



Eneko Azkarate 'Harira' saioko aurkezlea.



Txomin Madina 'Debagoiena Zuzenean' saioko aurkezlea.

Bertatik bertara egina

Goienako lantaldeak astero hainbat saio ekoizten ditu, ibarrean gertatzen den guztiaren berri emateko

Tokiko informazio guztiaren berri izateko programazio zabala eskaintzen du Goiena telebista. Gaurkotasuna, kirolak, politika... denetarioko gaiak, eta, betiere, bertako ikuspuntutik jorratuta.

'BERRIAK'

Astelehenetik egubakoitzera, Debagoienean gertatzen den guztiaren berri izateko albistegia izaten da Goiena telebistan, Larraitz Zeberio aurkeztuta. Egunero emititzen da, 14:30ean hasita, astelehenetik barikura bitartean, eta asteburuan asteko albisteen errepasoa egiten da. Gertuko informazioa eta egunean eguneko albistek.

'DEBAGOIENA ZUZENEAN'

Debagoieneko gaurkotasuna bertatik bertara ezagutzeko erreportaje eta elkarrizketa saioa da *Debagoiena zuzenean*, Txomin Madinak aurkeztua. Astelehenetik egubakoitzera, 20:00etan, gairik interesgarrienak jorratuko dituzte, ordu erdiko saioan.

Kultura, gertakariak, ekimen desberdinak... denetarik lantzen da saio honetan. Goienako erreportariak kalera ateratzen dira,

mikrofonoa eskuan, eta ibarrean gertatzen den guztia erakusten dute protagonisten eskutik. Protagonistak eurak ere etortzen dira Goienako platora, Madinaren elkarrizketa egitera.

Saio dinamikoa, interesgarria eta ez aspertzeko modukoa da *Debagoiena zuzenean*.

'HARMAILATIK'

Astero-astero Xabier Urzelai kazetari arrasatearrak ibarreko kirolari buruzko saioa eskaintzen du Goiena telebistan. Astelehenetan izaten da saioa, gaueko hamarretan, eta asteburuko kirol gertakariak aipagarrienak lantzen dira bertan: kronikak, elkarrizketak, erreportajeak... baita aurrera begira datozen hitzorduak ere.

Astebururo jardunaldiak izaten dituzten futbolaz, saskibaloiaz eta eskubaloiaz gainera, hitzordu puntualak ere arituko da Urzelai

Denetarioko gaiak; betiere, bertako ikuspuntutik

bere saioan; esaterako, lasterketak, mendi probak, lehiaketak...

Norberaren herriko talde edo kirolari gogokoenaren gaurkotasuna gertutik jarraitzeko saio egokia da *Harmailatik*.

'HARIRA'

Harira saioa ere bueltan da, formatu aldaketa eta guzti, Goienan, Eneko Azkarate kazetariaren eskutik. Saio honetan, bailara mailako alkate edota herri ordezkariekin izango da Azkarate, herritarrei interesatzen zaizkien gaiak lantzeko. Oraingoan, baina, lehenik ordu erdiko elkarrizketa egingo du Azkaratek alkatearekin, eta hurrengo ordu erdian oposizioko alderdiak solasean arituko dira mahaiaren bueltan. Martxoaren 15ean hasiko dira *Harira* emititzen, eta martitzenero emango dute, 22:00etan.

OSOKO BILKURAK

Arrasateko, Bergarako eta Oñatiko udaletako osoko bilkurak ere emitituko ditu, osorik, Goiena telebista. Saio bakoitzeko herria txandakatuz joango da.

Emisio eguna bilkuraren dataren arabera izango da. Ordua, berriz, gaueko hamarrek.



Larraitz Zeberio 'Berriak' saioko aurkezlea.



Xabier Urzelai 'Harmailatik' saioko aurkezlea.

Dekoratu berriak laster Goiena Telebistan

Itxura berritua izango du aurki Goiena Telebista. Izan ere, bertan ekoiztutako hainbat saio dekoratu berriak estreinatuko dituzte. Esaterako, honezkeroko Goiena Telebistako ikur bilakatu diren *Berriak* albistegiak, *Debagoiena Zuzenean* eta *Harmailatik*. *Harira* saioan ere, formatua aldatzeaz gain dekoratua ere aldatu dute, orrialde honetako goiko aldeko argazkietan ikus daitekeen bezala. Dekoratuaz gain, baina, saio horietako kareta eta diseinua ere eraberrituta dator sasoi berrirako.

Modu honetan, dekoratu birtualetarako jauzia egin du Goiena telebista, eta aipatutako lehen hiru saioetan kroma bidez ezarriko dituzte hondo berriak. *Harira* elkarrizketa saioaren kasuan, aldiz, aldaketa hori dekoratu errealean, hau da, elementu fisikoak aldatuaz burutu dute.

Hala, aurrerantzean itxura moderno eta guztiz eraberritua ikusi ahal izango ditugu Goiena telebistako aipatutako lau saio horiek, eta beti bezalako eduki mamitsuak eskaintzen jarraituko dute.

Beste saio batzuen kasuan, aldiz, dekoratua mantenduko dute datozen hilabeteetan zehar. *Galdegazteren* kasuan, esaterako, bigarren denboraldi honetan ere egurrezko paletekin egindako sofa koloretsuak mantenduko dituzte, setari gatzetasun ukitua emateko asmotan.

Kanpotik gurera ekarritako aukera zabala

Goiena Telebista ekoizten dituen edukiez gain, beste etxe batzuekin kontribuzio sare baten parte da; hala, etxe desberdinek ekoiztutako orotariko saioak eskaintzen ditu.

Hamaika telebista ekoiztutako *Zaindu zaitetz* saioan osasun kontuei buruz jakin beharreko guztia. Etxe beraren eskutik datorren *Lurrean Bizi* saioa, berriz, ezin egokiagoa da ekologia, ingurumena, baratzea edota sukaldaritza bezalako gaiak interesatzen zaizkienendako. *Sagarrondotik*, berriz, sagardoazaleendako saio ezin hobea da. Eta *Hurbilean*-en, Euskal Herriko pertsonaia famatuaren elkarrizketa ikusteko aukera dago. Bukatzeko, *Ertzak* saioan orotariko gaiak sakon lantzen dituzte, adituen eta protagonisten laguntzarekin.

Goierri telebistaren *Onein* saioan, berriz, sukalde errezetarik onenak ikasteko aukera izango da sukaldari trebeenen eskutik. *Ikusi irratia* ere goierritarrek egiten dute, eta, izenak dioen moduan, irratiko elkarrizketak telebistan ematen dituzte.

Erlo telebistari esker, berriz, *Geure Altxorak* elkarrizketa saio interesgarria dago ikusgai Goiena telebistan. Bestalde, Xaloe telebistaren eskutik datorren *Ur eta Lur* saioan nekazaritza alorreko gaiak jorratzen dituzte nekazariekin batera egindako erreportaje eta elkarrizketen bidez. Bukatzeko, *Platopic* saioan, txotxongiloei buruzko tailertxoak eskaintzen dituzte Tolosako Topic taldeko kideek.